



TOKI-EREMUKO "NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA" ZEHAZTEKO OINARRIZKO DOKUMENTUA

2010eko azaroa

(Dokumentu hau hainbat nerabek eta profesionalak burututako partaidetza- eta eztabaida-prozesu baten emaitza da. Prozesu horren jarraipenaz udal-teknikariek eta Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiak osatutako batzorde bat arduratu da, Jaume Funesen aholkularitzarekin; eta azken honek idatzi du, hain zuzen ere, esku artean dugun dokumentua.)

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Infancia y Juventud



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

AURKIBIDEA

IRAKURKETA-GIDA	4
I. DOKUMENTU HAU ZERGATIK ETA ZERTARAKO?	6
1. SUSTAPENERAKO SISTEMAREN PROPOSAMENETIK "NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUARI" (NBAZ) BURUZKO OINARRIZKO DOKUMENTURA	7
Sustapena eta nerabeak	7
Definizioa	9
Aktiboki konpentsatzen duena	9
Nerabeen pedagogia partekatua	10
Hezi nahi ditugu	11
Dokumentuaren ezaugarriak. Bigarren zehaztapen-maila	12
2. NERABEEI ARRETA NOLA EMAN PENTSATZEA	13
3. GIPIZKOAKO NERABEEN ADINEI BURUZKO OHAR BAT	15
II. GAUR EGUNGO NERABE-IZAERAK ETA HORIEZ ARDURATZEKO ARRAZOIAK	17
1. DERRIGORREZKO ETAPA BERRI BATEZ ARDURATZEA	18
2. NERABEZARO UNIBERTSALETIK NERABEEN ANIZTASUNERA	19
3. ERATZEN ARI DIREN ETA LAGUNTZA BEHAR DUTEN PERTSONAK	21
4. AURRE NERABETIK NERABE ONDOKORA	23
5. HAIEN BIZITZAN SARTZEKO ARRAZOIAK	24
6. NERABEEN HEZKUNTZA-BEREZITASUNA	25
7. NERABEAREN HEZKUNTZA-BEHARRAK	27
III. NERABEEN ANIZTASUNA. JADA EGITEN ARI GARENA	29
1. NERABEEI DAGOZKIEN JARDUERA ETA GUNE BATZUK	30
2. GIZARTE-HEZKUNTZAKO LANA INGURUNE IREKIAN	32
IV. HELBURUAK ETA ASMOAK.	34
1. DAGOKION EREMUKO NERABEEN ERREFERENTZIA	35
2. NBAZ-RAKO HELBURUEN LABURPENA	35
V. ARRETA EMAN AHAL IZATEKO GILTZARRIAK ETA BALIABIDEAK ANTOLATZEKO OINARRIZKO PROPOSAMENA	37
1. ZERBITZUA EGITURATZEN DUTEN HIRU DIMENTSIO	38
2. NERABEEK NBAZ BATEAN ZER AURKITU NAHI DUTEN	40
3. BALIO ANITZEKO ZERBITZUKO ARRETA ANTOLATU ETA PLANIFIKATZEKO PROPOSAMEN BAT	42
4. BALIABIDE BAT, JARDUERA BAT, ESKU-HARTZE PROFESIONAL BAT NERABEEN BIZITZAN BALIAGARRIAK IZATEKO GILTZARRI BATZUK	45
5. ANIZTASUNA, IRUDI SOZIALAK ETA GATAZKAK	47
VI. GUNEAK, JARDUERAK, BIDE-LAGUNTZAK	48
1. NERABEENTZAKO EKIPAMENDUAK. GAZTELEKUTIK LOKALETARA	50
Erreferentzien tokia	50
Gunearen funtzio nagusiak	51
Oinarrizko gunea	51
Hasi berrientzako lokala, laster joango direnentzako lokala	52

Ordutegiei buruz	52
Ezin zaie guztiei arreta egokia eman	54
2. GUNE BAT BESTE GUNE BATZUEN ARTEAN	54
Nerabeen lokalak	56
3. NBAZ-N HEZITZAILE-LANA EGITEA.	57
Erreferentzia onuragarrien sorrera ahalbidetzea	57
Nerabe-taldeak eta profesional-taldeak	58
Nork balio du honetarako?	59
Behaleta-sistemak eta jarraipenerako oharrak	60
4. UDAL-TEKNIKARIAK EDO NBAZ-REN ETENGABEKO EUSKARRIA	61
5. JARDUERAK, AUKERAK	61
6. NERABEAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA	62
7. GAZTE-INFORMAZIOA KOMUNIKAZIOAREN GIZARTEAN	63
Nerabeentzako informazioa krisian	63
Informazio-paradigma, komunikazio-paradigma, hezkuntza-paradigma	64
8. NERABEAK ESKOLA-GUNEETAN	66
9. TRANTSIZIOEZ ARDURATZEA. HAURTZAROA UZTEN DUTENEAN, GAZTAROAREKIN AMETS EGITEN DUTENEAN	67
Hainbat trantsizio	67
Behar berriak, erantzun berriak	69
Bide-laguntza ahalbidetzea	70
10. BESTE HELDUEZ ARDURATZEA	71
VII. BALIO ANITZEKO ZERBITZUA ETA BESTELAKO ZERBITZUAK	74
1. NBAZ ERREFERENTZIA NAGUSIA	75
2. SARE-LANA IRITSI ARTEAN HARREMANA IZATEKO MODUAK	76
GAZTELEKUTIK NBAZ-RA	80
ERANSKINAK	81
1 ERREFERENTZIAZKO DEMOGRAFIA	81
3 INGURUNE IREKIKO HEZKUNTZA-PROGRAMAK GIPUZKOAN	88

IRAKURKETA-GIDA

Hurrengo orrialdeek suspergarri, ekarpen eta informazio-iturri desberdinei erantzuten diete. Dokumentu honen egitura bertan erantzun nahi diren galdera jakin batzuekin lotuta dago. Kapitulu guztiak ez dira nahitaez jarraian irakurri behar. Zati bakoitzak berezko koherentzia du, osorik hartuta guztiek zentzua duten arren eta bakoitzaren alderdi zehatzenak edo antolaketari dagozkionak aurreko nahiz ondorengo beste kapitulu batzuetan arrazoitu diren arren.

Testua idazteaz arduratu den pertsonak nerabeentzako arreta izan du bere ezagutzaren eta esperientziaren ardatz. Baina abiapuntutzat hartu ditu, lehenik, Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuko profesionalen iradokizunak; eta ondoren, Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua (NBAZ) diseinatu eta ezartzeko aurreikusitako jarraipen-batzordearen ekarpenak. Hemen idatzitakoa, neurri handi batean, 2010eko maiatzean eta ekainean egindako hausnarketen eta eztabaiden ondorioa da. Biler horietan Gipuzkoako zenbait udalerritan nerabeentzako arretan esku hartzen duten teknikarien, hezitzaileen eta informatzaileen ekarpenak jaso ziren. Azkenik, aurrekoak bezain garrantzitsuak izan dira hilabete horietan kontsulta zuzeneko bi jardueratan zenbait nerabe-taldek egindako iradokizunak.

Testua zazpi galdera edo ildok egituratzen dute eta horiek dira, hain zuzen ere, toki-eremuan nerabeei emango zaien arreta zehazteko beharra zeharkatzen dutenak:

1. Lehen kapitulua dokumentuaren zergatiak laburbiltzen saiatzen da. Halako dokumentu bat hemen eta orain zergatik eta zertarako.
2. Bigarrenean, nerabeez zergatik arduratu behar dugun justifikatu nahi da, XXI. mendeko gure arteko nerabe-izaerei buruzko ohar bat egin ondoren.
3. Ezerezetik sortu ez garenez, hurrengo kapitulua Gipuzkoako zenbait udalerritan nerabeentzat gaur egun martxan dauden jarduera eta baliabide batzuen laburpena da. Gaztelekuen, gazteentzako informazio-zerbitzuen eta ingurune irekian gizarte-hezkuntzako arreta emateko programen errealitatearen zati bat laburtzen du, transformatzeko lehen ildo batzuk iradokiz.
4. Aurrera jarraitu aurretik, laugarren kapitulua helburuak ordenatzen eta justifikatzen saiatzen da, nerabeez arduratzean zer lortu nahi dugun argi uzten.
5. Arrazoiak eta asmoak zehaztu ondoren, irakurleari, profesionalari edo baliabideak martxan jarri behar dituen arduradunari, ohartarazten zaio nerabeei arreta emateko ez duela edozerk balio eta edozein baliabide ezin dela NBAZ bat izan. Kapitulu honek zerbitzua egituratzen duten elementuak zein diren, esku hartzeko estiloak zein diren, eta nerabeen aniztasuna kontuan nola hartu behar den argitu nahi du. Kapitulu honetan laburtu dira, halaber, nerabeez gure eskaintzekiko dituzten itxaropen batzuk.
6. Seigarren kapituluak edukiak, jarduerak, antolaketa, egitura, profesionalak, etab. sistematizatzen ditu. Nerabeekin zer egin behar dugun, non, eta zein heldurekin azaltzen du. Proposamenaren muina da.

7. Amaitzeko, testuak gogora ekartzen digu, nerabeenganako kezka berezi eta onuragarri batek bereizten ez gaituen arren, badirela haiekin harremanetan jartzen diren profesional eta baliabide batzuk. Hala, bukaeran, lurraldean planifikatu eta lan egiteko modu partekatuak iradokitzen dira, sare-lanaren logikan oinarrituta pentsatutako jarduera profesionalak.

I. DOKUMENTU
I. DOKUMENTU HAU ZERGATIK ETA ZERTARAKO
ETA ZERTARAKO

1. SUSTAPENERAKO SISTEMAREN PROPOSAMENETIK "NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUARI" (NBAZ) BURUZKO OINARRIZKO DOKUMENTURA

"Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema: diseinu-proposamena" dokumentuan (2009.02.05) orientazio eta irizpide batzuk sistematizatu eta finkatu ziren, bizitza-ziklo desberdinen arabera bertan iradokitako Balio Anitzeko hiru Zerbitzuetako bakoitza gero zehazteko. Jada nerabeei bakarrik dagokien Zerbitzuari buruzko oinarrizko dokumentu berri honetan, hasteko, Sistemak orokorrean dituen alderdi garrantzitsuenetariko batzuk laburtuko ditugu, **nerabe-izaerarekin lotuta** (haien beharrak, haien idiosinkrasia, eman ahal eta eman behar zaien arreta baldintzatzen duten elementuak). Bi alderdi horien, alegia jatorrizko dokumentuaren eta nerabe-izaeraren arteko elkarreraginetik sortuko dira, gero, dokumentu honen muinean egingo diren proposamenak.

Sustapena eta nerabeak

Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua (NBAZ) **beren nerabeei behar bezalako arreta eman** nahi dieten eta hori egiteko modu egokiak sortu, mantendu eta zabaltzeko **elkar indartzen diren** administrazioen arteko lankidetzaren logikan kokatu behar da. Era berean, NBAZko arreta-proposamenak nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta zerbitzu **batzuen ondoan** kokatzea du bereizgarri. Hala, hiru eratako funtzioak betetzen ditu:

- batzuetan beste "zerbitzu orokor" batzuek (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak) egiten dutena **osatzen du** besterik gabe;
- beste batzuetan **proposamen nagusia** da, normalean aldi baterakoa, eta zerbitzu horiei eta espezializatuagoak diren beste batzuei (egoera edo arazo jakin batzuei arreta ematekoak) ahalbidetzen diete nerabearengana iristea, sortu dituen konfiantza eta erreferentzietatik abiatuta harreman eragingarri bat lantzea;
- azkenik, NBAZk beste baliabide eta zerbitzu batzuek (irizpide berberak dituzten neurrian) **hobeto funtzionatzea** errazten du, nerabeek horiek beren interesetatik eta beharretatik hurbil ikustea ahalbidetzen du.

Harremanen eta arretaren testuinguru asko berberak dira profesional eta gizarte-eragile desberdinentzat; izan ere, eragile horiek nerabeen bizitzan baliagarriak izateko duten aukera elkarren arteko harremanen eta laguntzaren arabera dira. Beren eragina "*beste zerbitzu-sistema, jarduera-esparru eta politika sektorial batzuekin dituzten harremanen bitartez*" sortzen da neurri handi batean.

NBAZ, nerabezaroa bera bezala, haurtzaroaren eta gaztaroaren artean kokatuta geratzen da. Sistemari adin horientzako zehaztu diren Balio Anitzeko bi Zerbitzu horiekin partekatzen ditu beren hezkuntza-asmoen koherentzia eta gero eta autonomoagoa den bizi-ibilbide beraren logika. Dena den, berezitasun handiak ditu besteen aldean. NBAZ definitzean eta bere jarduerak planifikatzean kontuan hartu beharko da nerabea **nerabe sentitzen dela eta ematen zaion arreta bera bezalakoak direnekin batera sentitzen, bizitzen, esperimendatzen eta partekatzen duen horren arabera izatea** nahi duela. NBAZk, gainera, hausnartu egin beharko du trantsizioei (aro edo izaera baten eta bestearen artean, Zerbitzu baten

eta bestearen artean) irtenbidea nola eman eta, aldi berean, kudeatu egin beharko ditu aurreko denboraren gaitzespenak eta etorkizuneko gaztetasunak gehiago edo gutxiago bizkortuko dituen xarmak. Gainera, nerabezaroa ziurgabetasunek, egonezinek eta entseguek markatutako bizi-erria izanik, **funtzio orientatzaileek** (eta berriz bideratzaileek) zeregin nabarmena izan dezakete.

Zerbitzu guztiek hurbilekoak eta erakargarriak izan behar dute. Nerabeen kasuan, hurbiltasun hori **gu haiek dauden tokietara joatearen eta haiek gu gauden tokira etortzea lortzearen** arteko mugimendu anibalantean txertatu behar da. Hurbiltasuna ez da fisikoa (bakarrik) nerabeen bizitzan eragin ahal izateko bizipenen eta jarreraren konstruktua bat da. *"Hurbilekoak funtsean esan nahi du plano berean dagoen norbait, hurbildu eta urrundu daitekeena, beste galaxia batekoa ez dena. Jada antzinakoa den musikako konparazio bat eginez, haiek MP3ari lotuta dauden garai honetan "onda pesquera" entzuten ari ez dena. Zerbait azaltzen ari den bitartean "twiteatzen" dabiltzanei entziklopediako fotokopiak banatzen ez dizkiena. Hurbiltasuna, lehenik, interesarekin erakusten da, gutxienez haien munduekiko jakin-mina erakutsiz ("ez da gure artekoa, baina gurea interesatzen zaio"). Hurbiltasuna gutxienez jakin-mina duen begirada bat eta, bereziki, begirada interesatu bat da, nerabeek zer bizi duten eta nola bizi duten aintzat hartzen duena. Gu ez gara nerabeak, baina, hasteko, nerabeena den ezer ez zaigu arrotza egiten, haiek neurri batean bakarrik ezagutuko ditugun arren edo beren dimentsioak partzialki menderatuko ditugun arren"*¹.

Eskaintzen diegun laguntza, egiteko adostu duguna, hori burutuko dugun ingurunea, **hurbilekoak direla sentitu behar dute, hurbiletik bizi behar dituzte**. Batzuetan, nerabeak dauden tokietan (eskola-eremua edo eremu publikoa) eman behar dugu geure burua ezagutzera, bizipen hori eratzen hasteko, eta proposamen desberdinen hasiera han landu behar dugu, beraiekin. Baina, hurbiltasunak eta erakargarritasunak pertsonalizazioarekin ere badute zerikusia, alegia, subjektu berezitzat hartuak sentitzearekin. Guregana datozen gure proposamenak beren nerabe-mendutik hurbil sentitzen dituztelako eta, aldi berean, guk bakarrik sentitzen diren subjektu moduan ematen diegulako arreta.

Erakargarritasunak edo xarmak, nerabeen kasuan, osagai berezi bat du: **nerabeen interesak dinamizatzeke modua**, aldi berean zabaltzea (haien erreferentziazko taldeen proposamenetatik harago joatea) eta mobilizatzea (izan ditzaketen bizi-abuliak aztoratzea) eraginez. Formatua, **komunikazio-hizkuntzak**, antolaketa edo ingurunea ere erabakigarriak izan daitezke erakargarritasuna lantzean. Nerabe-taldeak dira, agian, gehiegizko formalismoak, instituzionala denaren nagusitasuna edo profesionalen eta administrazioen asmo ez garbiak gehien arbuiatu ditzaketenak. NBAZ ezin da eskaerak egotearen edo ez egotearen arabera izan eta justifikatu, baina nerabeei **entzunez eta arreta emanez** sor ditzake bere proposamenak. Nerabeen beharrei erantzuteko baliagarria izan daitekeena proposatzen du, baina sistematikoki prest dago proposamen horiek eztabaidatzeko, negoziatzeko nahiz **nerabeek proposamen horiek bere egin ditzaten saiatzeko**.

Azkenik, dinamikoki aldakorra den gizarte honetan, NBAZren diseinuak eremu bakoitzeko nerabeen ezagutza sistematikoa izan behar du oinarri, baina modu dinamiko batean, horrek ahalbidetuko baitio **nerabeen errealitate anitzera eta mundu aldakorretara erraz moldatzea**.

¹ Funes, J. (2010): *Educar en la adolescencia. 9 Ideas clave*. Barcelona. Graó. Arg. 187. or.

Definizioa

NBAZ definitzean "erantzukizun publikoa eta gizartearen parte-hartzea dituen jardueren eta egituren multzo artikulatua" dela esan da. Nerabeentzako arreta zehaztean lehen bi alderdiak deskribatu beharko ditugu: **zein eratako "jarduerak"** (ez bakarrik ezta batez ere "ekintzak") diren egokiak, adierazgarriak eta lehentasuna dutenak (zenbait gauza proposatzeak ez du zentzurik, jarduera batzuk beste biziari batzuetan ez dira adierazgarriak, egin nahi dugun guztia ezin da egin, etab.); **zein eratako "egiturek"** (ekipamenduak eta kudeaketa- eta antolaketa-sistemak) ahalbidetzen diguten benetan eta modu eraginkorrean nerabe gehienengana iristea.

Hemen erantzukizun publikoak esan nahi du, gainera, administrazioek eta erakundeek kezka **berezia eta berbera** dutela nerabeenganako; ez dutela uste etorkizunean heldutasunera iristeko zain dagoen etapa bat denik, ezta erantzun beharreko arazoan multzo bat denik ere.

Parte-hartzea ez da, geroago aipatuko dugunez, nerabeen inplikazioa (proposamenetan eta halako proposamenak egiten dituen gizartean) bakarrik, aitzitik, lurraldeko nerabeak (era guztietakoak) **guztionak direla** (ez eskolarenak edo udalarenak soilik) oinarritzat hartuta, entitateen eta erakundeen inplikazioa ere bada. Gainera, nerabeez arduratzean erakundeen artean lehiak sortzen badira, ez dira gogoan hartzen nerabeen mugikortasuna, haiengana eraginkortasunez iristeko zailtasuna eta haiek aldi batez zerbitzuari atxikitzea zein konplexua den.

Proposamen hau ez dagokie ekintzari eta ekipamenduari bakarrik, **harreman-sistemez** ere hitz egiten du, hau da, beste profesional batzuekin lan egitera edo elkarrekin ezagutza sortzera bideratutako denborez eta ahaleginez.

Aktiboki konpentsatzen duena

Proposamenean defendatzen den diskriminazio positiboa nerabearoan zehaztean, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- a. Nerabeei nork bere burua **eratzeko aukerak** ematen nola jarraitu. Gero azpimarratuko denez, haien nerabearoak oso desberdinak eta era askotakoak dira beren nerabetasuna eratu eta praktikatzeko dituzten proposamenen eta aukeren arabera.
- b. Haien **ahulezia berriak** (maiz beren nerabearoko egonezinen ondorioz sortuak) kontuan nola hartu.
- c. **Erantzunek** nerabeen arazoak finkatzea eta haien identitatea arazo horien inguruan eratzeari saihesteko, arreta nola jarri.

Nerabearoan nerabe-izaerak bere-berea du aniztasuna, eta aniztasun hori nork bere burua sendotzeko eta kontrajartzeko prozesu bilakatzen da. NBAZk modu berezian lan egiten du, nerabe-izaera desberdinei arreta emateko eta bere jarduera eta ekipamenduetan gehienentzako tokia egon dadin. **Nerabe-izaera**

desberdinen artean elkarri eragiteko dinamiketan oinarritzen du bere lana. NBAZk kontuan hartzen du genero-aniztasuna, modu planifikatuan, eta horrekin batera **nesken nerabetasuna eta mutilena** osatzen dituzten desberdintasunak; izan ere, bizitzako une horretan beren identitateen zati bat eratzeaz gain, etorkizunean generoen artean izango duten harreman-estiloaren oinarria finkatzen da.

Nerabeen pedagogia partekatua

NBAZ desberdinek eta hauekin nerabeentzako arreta partekatzen duten zerbitzuek eta baliabideek jardunbide berdin batzuk ere izaten dituzte:

1. Emandako arretak **beti du asmoren bat**, hau da, balore zehaztu eta partekatu batzuen zerbitzura dago. Ez dira denbora pasatzearen eta kontrolaren zerbitzura jarritako entretenimendu hutseko proposamenak.
2. Nerabeak funtsean **harremanaren bitartez** "atzematen" dira. Harreman hori enpatikoa da (nerabearen lekuan jartzeko ahalmena du, nerabea dela jakinda). Elkarrenganako konfiantzan oinarrituta dago (beraien alde gauden helduak gara, gugan konfiantza izan dezaketen neurrian eta gu haiek aldatzeko dituzten aukerez fidatzen garen neurrian). Harreman horrek entzun eta balioetsi egiten du nerabeek adierazten eta proposatzen dutena (horregatik azpimarratzen dugu testuan haien "argudioak" aintzat hartu beharra). Prest dago unean uneko laguntza emateko nahiz denbora batez bidean laguntzeko.
3. Arreta pertsonalizatua den arren, (bakoitza nolakoa den kontuan hartuta) ekintza gehienak **berdinen taldetik** abiatzen dira. Ekintzaren eta arretaren subjektua taldea da. Taldea bera hezkuntza-ekintzarako tresna bat da.
4. Esperimentatzen eta arriskuan jartzen ari diren subjektuak dira eta, beraz, beti hitz egingo dugu **pedagogia inplikatuaz** (aurkikuntzan oinarritua) eta **esperientziaren pedagogiaz** (beren esperientziak ezagutzeko ematen zaien laguntza).
5. **Era askotako espazio eta denboretan** arduratzen gara nerabeez. Ekipamenduetan eta elkarguneetan. Betebehar instituzionalik gabeko asteburuko denboran eta libre edo huts gisa bizi den aste osoko denboran.
6. Arduratsu diren pertsonatzat hartuta eman behar genieke arreta beti. NBAZk **autonomiaren eta pixkanakako erantzukizunaren** sortzaile izan behar du, nor bere buruari, bere ekintzei eta bere ekintzen ondorioei dagokienez. Horregatik sortzen ditu erabakietan parte hartzeko eta inplikatzeko dinamikak, beren bizitzan, beren berdinen bizitzan, beraiek bizi diren gizartearen bizitzan inplikatzeko dinamikak.
7. Egiten ari garena ebaluatzeko proposamenek haien ikuspegia zein den ezagutu behar dute, gure arreta benetan baliagarria zertan izan zaien jakin behar dute, **nerabeen argudioak eta gureak egiaztatu behar dituzte**.

8. Ez gara nerabeez bakarrik arduratzen. Nerabearekiko jatorrizko harremanari lehentasuna emanaz, hura bizi den **familiari ere ematen diogu** arreta.

Nerabeaz nerabe den aldetik arduratzen diren arreta-proposamenak dira; hau da, nerabea ez dute hartzen egunen batean, guztion lasaitasunerako, nerabe izateari utziko dion subjektutzat. Horrek ez dio ukatzen etorkizunean izango dena izatera iristen laguntzeko arreta, **bere nerabe-izaeran kokatu eta gero uzten** lagunduko diona, pertsona eta aldi berean herritar izateko modu bat eratzen lagunduko diona. Nerabezaroa beraien ere atzean utzi nahi duten etapa bat da, eta guk bukaezin bilakatzea ekiditen dugu.

Egoera onuragarriena haien inguruan era askotako helduak izatea da, alegia profesional desberdinek antzeko moduan arreta ematea. Dena den, guztiek kontuan hartu behar dute nerabeak direla eta haientzako arretak **arau berezi batzuk partekatzea** eskatzen duela.

Hezi nahi ditugu

Proposamenak azpimarratzen duenez eta sarrera honetan behin eta berriz adierazi denez, NBAZen jardueraildoek nerabeak hezteko asmo argia du. Jakina denez, hezkuntzaren ikuspegiak testuinguru eragingarrien asmoa, plangintza eta eraikuntza behar ditu, subjektu diren aldetik eta talde bateko eta komunitate bateko kide diren aldetik.

Diseinu-proposamenean bertan bereizitako hiru Zerbitzuei dagozkien sei jarduera-motaz hitz egiten da. Testu honetan honako hauek azpimarratuko dira:

- a. Nerabeak, jada belaunaldi digitalen kide direnak, **komunikazioaren gizartean** kokatzea; beharrezkoak eta baliagarriak diren informazioekin (iturriekin) bitartekotza egiteko moduak; beraiengan eta beren bizitzan informazioak eta lotura-dinamikak integratzea.
- b. Orientazioaren eta bide-laguntzaren sekuentzia. Nerabeen bizitzan **orientazio desberdinen** beharrak agertzen dira (krisialdien atzean eta sistemen eta egoera pertsonalen artean) nork bere burua kokatzeko eta erabakiak hartzeko (ez bakarrik ezta bereziki ere zer ikasten jarraituko duten edo lanean hasiko diren erabakitzeko). Orientazio-behar horietan **haien eskura egotea** eta ordura arte **eratu diren harreman eraginkorrak** laguntza hori ahalbidetzeko giltzarri bilakatzen dira. Egoeren ugaritasunak, haien dinamika aldakorrak, era askotako krisiak agertzeak nahiz erreferentziazko erakundeetatik (esate baterako, eskola) irteteak NBAZn kokatzen dute informazio pertsonalizatuak, orientazio desberdinek, laguntza-eskaerei ematen zaien erantzunak, zeharkako laguntzak, etab. denboran irauteko, indarra hartzeko eta **bide-laguntzako prozesu** bat sortzeko aukera.
- c. NBAZ proposamen-multzo artikulatu bat da beti, eta **"aisia"** deitzen dugun testuingurua eta testuinguru horretan eragin hezigarria izatea ditu ardatz. Nerabezaroan, berriz ere, ñabardurak garrantzitsuak dira. Badirudi nerabeez arduratzean helburutzat instituzionalizatutako ikaskuntza jakin batzuk (halako ikaskuntzak diren aldetik eta gertatzen diren testuinguruagatik –esate baterako eskola-) ez dituzten proposamenean oinarritu behar dugula. Halaz ere, **eragina izan nahi dugu lortzen dituzten**

gaitasunetan (eta hauen ikaskuntzan) eta pertsonak izateko, beste batzuekin bizitzeko, komunitateko kide izateko, aldatzen ari den mundu honetara egokitzeko, etab. garatu behar dituzten ahalmenetan. Ezinezkoa da horiek banatzen dituen lerroa argia izatea. "Hezkuntza formalaz eta ez-formalaz" hitz egin izan da, baina nerabeekin edozein erakundek arrakasta izan nahi badu, neurri handi batean, **hezteko moduak desformalizatu behar ditu**. Ludikoa denetik abiatuta hezi nahi dugu, baina horrekin batera nerabeen beste ikaskuntza batzuk sortzaileak izatea eta ikastearen plazeraz hornituta egotea nahi dugu. Batzuetan, gure jarduera batzuk eskolaren osagarriak dira, gainera eskolan bertan egiten dira, nerabeen eskolatzean laguntzeko tokiko ekintza zabalagoen zati bat dira. Ez da "astialdiko talde" bat, baina funtsean **nerabeen une libreetan aritzen den eta haiek hartzen dituen "talde" bat da**.

Jarduera-proposamen guztietan nerabeen beharrak identifikatu beharko ditugu eta biziari honetan hezteak dakarren berezitasuna aintzat hartu.

Asmo hezitzaile hori kokatzeko, nolana ere, Sistemari eta bereziki NBAZri atxikitako bi alderdi azpimarratu, errepikatu, behar ditugu:

1. Beti "balio anitzeko" proposamena da. Hau da: aisia hezitzailea baino harago doa; era askotako jarduerak eta ekintzak proposatzen ditu beti (adierazpenetik parte-hartzera); nerabearen beharrei modu poliedrikoan erantzuten die; nerabea pertsona gisa hartzen du, herritar gisa duen osotasunean.
2. Beti "partaidetzako" egitura bat da. Nerabeek aktiboki parte hartzen dute NBAZn; beren inguruko errealitatea ezagutu dezaten lan egiten da haiekin, komunitatearen gaitan parte hartzeko adore ematen zaie (eztabaida eta ekintza), guztionak diren gaitan inplikatzeko "nerabeen" berezko moduak bilatuz. NBAZk herriaren (auzoaren) dinamikan sartuta eta beste entitate eta talde batzuekin (gazteak eta helduak) harremanetan egon behar du.

Dokumentuaren ezaugarriak. Bigarren zehaztapen-maila

Ondorengo orrietan dokumentuak Diseinu Proposamenean zehaztutako ideia bati erantzun nahi dio, alegia, nerabezaroari lotuko zaion **kontzeptuzko, metodologiazko eta antolaketako erreferentziazko esparru bat**, iradokitzen zuen ideari. Oinarrizko dokumentu honek hiru ezaugarri ditu, irakurleari bertan adierazitako guztia dagokion testuinguruan koka dezan azpimarratu beharko zaizkionak:

1. Hasteko, **proposamen orientatzailea** da, "estandarrik" (NBAZ den zerbitzu orok ezinbestean aintzat hartu behar dituenak) zehazten ditu eta nerabeak sustatzeko jarduerekin zerikusia duten jarduera eta testuinguru gehienak deskribatzen ditu (toki-ingurunean hainbat modu eta esperientzia desberdin daudela onartzen da). Baina, tokiko eremu bakoitzean zehaztapen-modu desberdinak bultzatzeko proposamen bat da. Malgutasunez orientatzen eta iradokitzen du NBAZ batek nolakoa izan behar duen, formatu uniforme eta bakar bat zehaztu gabe. Toki bakoitzean zehaztu beharko da.

2. Oinarrizko dokumentu hau bide erdian dago, hau da, Sistemaren Proposameneko proposamen orokorren eta egitura-proposamenen eta tokian tokiko NBAZ bakoitzak aldi behin egin eta berri behar dituen zehaztapeneko eta plangintzako dokumentuen artean. Dokumentu honek esku-hartzeaz hitz egiten du, baina ez du jardueren proiektu zehatz bat definitzen. Beste profesional batzuekin harremanak izateko moduez hitz egiten du, baina toki bakoitzean zehaztu beharko da harreman horiek zein motatakoak izan daitezkeen. **Dokumentuak irizpideez, arreta emateko moduez, aintzat hartu beharreko alderdi zehatzez hitz egiten du, baina ez ditu ordeztzen tokiko deskribapen zehatzak ezta leku bakoitzean aldi behin egin behar diren plangintzak ere.** Mugatu gabe iradokitzen saiatzen da.
3. Baina **eztabaidarako dokumentu bat da**, arduradunek eta profesionalak eztabaidatzekoa, bertan agertzen denaz ikuspegi profesionalak, norberaren istorioak eta jarduera-esparruak maiz inposatzen dizkiguten baldintzatzailek gabe hitz egin ahal izateko. Gainera, dokumentu honek profesionalen artean trukeak egiteko eta laguntzeko sistemen oinarriak jarri nahi ditu, hausnarketa eta jardunbide egokien ezagutza partekatu ahal izateko.

Azkenik, dokumentu hau bera zati bat bezala ere irakurri behar da. Nerabeentzako Sistemak zer izan behar duen zehazten duen dokumentua da, baina bertako iradokizunak eta proposamenak Sistema osoan kokatu behar dira. Testu honetako zehaztapenak Haurrentzako Sistema gisa proposatzen denarekin (12 urtera arte) lotzen dira eta Gazteentzako Sistemaren (18 urtetik gora) proposamenak eratzen dituzten jarraipen ildoak erakusten dituzte, neurri batean.

2. NERABEEI ARRETA NOLA EMAN PENTSATZEA

Testu hau **ideien, irizpideen, jarraibideen eta lurralde nahiz udalerrri bateko nerabeei eman beharreko arretaren (adore emailea, hezitzailea, parte-hartzailea, erantzukizun emailea) inguruko jarduera- eta antolamendu-proposamenen multzoa** da funtsean. Aspalditik egiten den horrek sortutako ezagutzaren zati bat da; baina, era berean, uste batetik ere sortu da, helduei arazoren bat sortzen dietenean salbu (gurasoei, auzokoei, agintariei) nerabeei arreta berezirik eskaintzen ez zaien uste osotik, alegia. Haurtzaroaren eta gaztaroaren artean harrapatuta (Haurren Eskubideen Hitzarmenaren arabera, 18 urtera arte haurrak dira) **ez da garbi geratzen zer diren ezta haiei arreta modu desberdin eta berezian emateko beharra dagoenik ere.**

Halaz ere, nerabeen berezitasuna (testuan behin eta berriz agertzen dena) eta bizi horrentzako politikek eta baliabideek topatu ohi dituzten ahanzturak eta zailtasunak azpimarratu ditugun arren, ohartarazi egin behar dugu neska-mutilak ez direla nerabe jaiotzen eta, beraz, haietzako aukerak, suspergarriak eta euskarriak sortzeko gure kezkak ez duela adin horretan hasi behar. Haurtzaroko iraganarekiko krisian dagoen etapa izan arren, nerabezaroa haurtzaroaren ondorioa da. Batzuek zein besteaz arduratzeko moduek oso desberdinak izan behar badute ere, oinarri beti izango da helburuen jarraipena eta haurtzaroan egindakoari probetxu ateratzea.

Nerabeez arduratzeko politikak diseinatzeko eta baliabideak planifikatzeko aukera muturrekoak diren bi baldintzatzailek oztopatzen dute. Alde batetik, arreta jaso behar duten kolektiboen dikotomia dago: haurrak batetik, gazteak bestetik. Bestalde, gazteria-politikan nagusi diren ezaugarriak ditugu: maiz hartu izan dira "periferikotzat", hau da, gehiago arduratu dira nerabeen bizitzako "bigarren mailako" alderdiez.

Nerabearoa **eraldatze kontzeptual bat** eta **antolaketa-oztopo bat da**. Gazteriaren azterketentzat nekez koka daitekeen adin-talde bat besterik ez da, 15 urtetik gorako biztanleez hitz egitea erabakitzen denean zatituta geratzen dena. Horrek gazte-izaeraren barnean nerabeen jardute edo ohitura asko sartzea behartzen du eta, horrekin batera, haurren artean kokatzera etapa berrian sartu zenetik hain zuzen haurtzat hartu eta haur gisa tratatzen jarraitzea nahi ez duen hori. Gauza bera gertatzen da **antolaketa-oztopoarekin**: ez da jakiten nerabeek norenak izan behar duten eta joera nagusia da haien beharrei emandako erantzunak zailtasunak dituzten haurrentzako programa eta zerbitzuetan sartzea eta oso gutxitan gazteekin zerikusia dutenen artean.

Gazteria-politika askoren logika "periferikoak" nerabeez arduratzean eragiten duen zailtasunak zerikusia du politika horien artean aisia ludikoaren gune eta jarduerak duten nagusitasunarekin, bai eta gazteriaren zati gisa talde kultural eta identitate-talde gisa errealizatzeari ematen zaion garrantziarekin ere. Dena den, beste era bateko politikak direnean (Iana, etxebizitza, etab.) emantzipatzen hasi nahi duten herritar gazteak (gaztetasunean aktiboki sartuta bizi direnak) diren aldetik ematen zaie arreta.

Nerabeak arazoak ditu logika horretan sartzeko, eskola-subjektutzat hartua baita; eta gainera, ezin da gazte gisa tratatu. **Nerabearen jokaerek, beharrek eta nahiek haur-izaeratik askatzearekin, bere nerabe-izaera finkatzearekin eta gazte-izaerara hurbiltzearekin dute lotura**. Trantsizioak, bizi-ibilbideak oraindik ez daude emantzipazioarekin lotuta. Oraingoz beren egoera eskola-gehiagokoa da, lan-txoak probatzekoa, beren ibilbide desorientatu eta alderraia kokatzekoa, emantzipatzekoa bai, baina oraingoz helduen kontroleratik emantzipatzekoa bakarrik.

Tentsio, kontraesan eta hutsune horietako asko desagertu egiten dira, orain Balio Anitzeko Zerbitzuarekin gertatzen den bezala, **arreta adin-tarteen edo biziaren arabera ematea** aukeratzen denean, lehen haurtzarotik gaztaroaren amaiera arte doan ildo komun baten barnean. Proposamen honek hiru ezaugarri ditu:

1. Beti, edozein ziklotan, pertsonak, herritar autonomoak, eratzea sustatu nahi du.
2. Kontuan hartzen ditu beti ziklo bakoitzaren ezaugarriak, behar, aukera eta suspergarri espezifikoekin. Ez du bata bestearen propedeutikotzat hartzen, ez du tratatzen aurrekoa baino handiagoa eta ondorengoa baino txikiagoa balitz bezala.
3. Etapak ez dira hurrengorako trantsizioa, baina kontuan hartzen du batzuek besteak nola baldintza dituzketen (bai azken asmoa ahanzten delako, bai pilatzen diren gabezia eta zailtasunengatik).

Ondoren datozen orriek baliagarriak izan nahi dute nerabeei arreta emateko tokian tokiko praktika anitzen zentzu eta logika kontzeptualak, teknikoak eta politikoak bateratzeko, **hiru helbururekin**:

- a. jada badiren edo garatzeko dauden ekintzei eta baliabideei **koherentzia ematea**;
- b. **Arretarako irizpideak eta moduak sistematizatzea**, bertan esku hartzen duten profesionalak partekatu ditzaten, erabili ditzaten eta egiten dutena ebaluatzeko orduan aipa ditzaten;
- c. halakorik ez dagoen tokietan edo egon arren oso partzialak diren lekuetan nerabeei arreta emateko sistema bereziak **martxan jartzea** eta sendotzea sustatu eta **suspertzea**.

Kapitulu honen lehen atalean adierazi denez, ez da dokumentu itxia. Hasteko, sistemako arduradun eta profesional desberdinen artean eztabaidatu eta hobetuko delako. Baina, behin betikoa izatera iristen denean ere, dokumentuak nerabeen errealitate aldakorrekin egiaztatua izan beharko du etengabe, eta aberastu egin beharko da iradokizun eta balorazio berriekin. Azken hauek nerabeekin planifikatutako gauza batzuek ez dutela funtzionatzen eta hasiera batean aurreikusi gabeko ekintzekin kontrakoa gertatzen dela egiaztatzearen ondorio izango dira. Dokumentu honek etengabe hausnartzea eskatzen du.

3. GIPUZKOAKO NERABEEN ADINEI BURUZKO OHAR BAT

Halaz ere, dokumentuaren muina den zati honetan sartu aurretik, ohar bat egin nahi genuke Gipuzkoako nerabeen adinei buruz, proposamenerako lehen gizarte-esparru bat izan dezagun.

Jakina, gure lurraldea anitza da eta aniztasun horiek, gero azpimarratuko dugunez, eragina dute nerabeizaera desberdinetan ere. Orain ez gara auzoez hitz egiten ari, ezta gizartearen zati izateko era askotako zailtasunez ere, ezta komunitate-dinamikez ere. Nahikoa dugu demografiaren zati batean kokatzea.

Inori ez zaio bururutzen Gipuzkoa Donostia denik, baina maiz ahanzten zaizkigu urtero nerabe berri pare bat eta beste gazteren bat dituztela-eta ustez nerabeen konturik ez duten komunitateak. Toki horietan gizarte-arloko edo hezkuntza-arloko profesionala adin guztientzat dago eta denetik egiten du pixka bat. Adinen arteko beste eragin batzuk dituzten nerabeak dira; mugikortasun geografikoen mende jartzen dira oso azkar, beste batzuekin harremanak izan eta nork bere burua eratzeko.

Beste herri batzuetan biztanle nerabeak gehiago dira, baina ia ez dago belaunaldien arteko txandaketarik eta helduen eta zaharren pisuak nerabeentzako arreta ito dezake. Lehentasun politiko batzuen edo besteen aldeko presioak gazteenak deserosotasunez ikusten dituen gerontokrazia bat izateko joera du.

Azken bi urteetako estatistikaren (2008, 2009)² oinarrizko azterketa batek ideia batzuk azpimarratzen la-gunduko digu:

- Gure arretaren xede izan behar luketen nerabeen populazioa herritarren %5etik hurbil dago.
- Kopuru horren erdia baino gehiago zazpi udalerritan biltzen da. Donostiak lau nerabetik bat du bere auzoetan.
- Udalerrri batzuek duten biztanle nerabeen proportzioa batez bestekoa baino handiagoa da. Gaztetu-tako biztanleriak dira (batzuetan, beste muturrean zahartuta ere badaudenak), eta horietan nerabeen kontuak garrantzi handiagoa izan behar luke (kasuz kasu aztertu beharko litzateke, horrez gain beste tentsiorik edo zailtasunik izan den ikusteko).

² Ikus I. eranskina

- Udalerrri handiek ere nerabe asko dituzte, baina guztiak orokorrean zahartzen dira eta nerabeen portzio erlatiboa batez bestekoa baino txikiagoa da.
- Nerabeen dinamikak ulertzeko auzoz auzoko erradiografia egin behar da eta, gainera, eskolen arteko mugikortasuna kontuan hartu. Hau da, nerabeak taldetan nola biltzen diren aintzat hartu behar dugu, non bizi diren kontuan izan gabe.
- Udalerrri txiki batzuetan NBAZren antolaketa belaunaldi bakoitzaren jarraipen ia pertsonalizatua egiteko aukera ematen du.

Gero azpimarratuko dugunez, nerabe-izaerez hitz egitea nerabe desberdinez hitz egitea da; hala, gehienetan erradiografia bakoitzak tokian tokiko kontraste-kolore desberdinak behar ditu. Halaz ere, zenbait profesionalen ustez, gure artean nagusi diren komunitate ertainek nerabe-kopuru garrantzitsua dute, baina gizartearen presio orokorrak eragotzi egiten du nerabe-izaera anitzak agertzea eta belaunaldien arteko hausturak nolabait agertzea. Itxuraz nerabe-izaera oso homogeenak dira, eta horietan ez da landu behar desberdinak diren arteko bizikidetzak bakarrik, baita gehiegizko adostasunaren edo konformismoaren presioa, eta gizarteak nerabe desegokien gainean duen kontrola ere. Jakina, Donostian gaia auzoz auzo landu behar da, bakoitzaren nerabe-izaerak eta behar desberdinak kontuan hartuta.

Aurreko taulan, gainera, zutabe bat sartu da migrazio-prozesuak bizi izan dituen populazioaren ehunekoari buruzko erreferentziekin. Horren arrazoia da bi alderdi kontuan hartu behar direla: a) udalerrri batzuetan haurren eta nerabeen kopuruaren igoerak migrazio-jatorriko familiekin du zerikusia; b) nerabeen aniztasun-elementuen artean daude, halaber, migrazio-prozesu horien bizipenarekin eta nerabearora iristean komunitateko kide izateko zailtasun handiagoarekin edo txikiagoarekin lotutakoak.

NBAZren diseinuak kontuan hartu behar ditu egoera horiek guztiak eta arreta berezia emateko moduak ahalbidetu behar ditu. Halaz ere, kontuan hartu behar da dokumentu honetan nerabe-izaera guztiez hitz egiten dela pixka bat, azkenean itxuraz gehiengoari dagokion estandar bati buruz hitz egiten dugula eta horrek ez lukeela Gipuzkoako nerabeen errealitate anitza ezkutatu behar.

II. GAUR EGUNGO
**II. GAUR EGUNGO NERABE-IZAERAK
ETA HAI EZ ARDURATZEKO ARRAZOIAK**
II. GAUR EGUNGO
L.C.I.A.R.

1. DERRIGORREZKO ETAPA BERRI BATEZ ARDURATZEA

Pubertaroa beti izan da. Nerabearoa ere izan da, baina batzuentzat bakarrik. Gizarte jakin batzuetan eta une historiko desberdinetan bakarrik gerta daitekeen biziara da. Unibertsal eta derrigorrezko bihurtzen da ekonomiak ahalbidetzen duenean edo adin jakin bateko langileak behar ez izatea eragiten duten aldaketa teknologikoei sorrarazten dutenean. Gure artean hogeita hamar urte eskas ditu eta heldu askorentzat neurri handi batean berria eta nahasgarria da oraindik. Nerabearoa jada finkatuta dauden haurtzaroen eta heldutasunaren arteko biziara bat besterik ez da. Hasieran gaztaroan kokatu zen, orokorrean, baina pixkanaka desberdindu egin dira lehen urteak, alegia nerabearoa.

Aztertzen ari garen biziara (gure artean berria bezain unibertsala dena), nerabearoa, orokorrean pixkanaka sortu da, baina neurri batean eratzen ari da oraindik. Biziara guztietan bezala, honetan ere hainbat transformazio biologiko eta psikologiko gertatzen dira eta horiek ondoezten eta egokitzapen-beharren iturri garrantzitsua izan daitezke. Nolanahi ere, aldi sozial horren gakoa bere erabilgarritasuna argitzea da. Zertarako balio du nerabearoak? Zein dira bere zereginak?

Nerabeentzako edozein arreta-motak talka egiten du beti aro horren zentzuak eta logikak helduengan sortzen duen nahasmenarekin. Nerabeek egiten dutenaren, edo egiten ez dutenaren, edo us-tez egin behar luketenaren aurrean, helduen iritziek banatuta jarraitzen dute: alde batetik, helduek dauden eta gure tutoretzapean jarraitu behar duten adingabeak direla uste dutenak, bestetik, garrantzi berezirik eman ez eta denborak ezinbestean sendatuko duen zerbait dela pentsatzen dutenak eta, azkenik, nerabeengan egokitzapen-ezen eta arazo jasanezinen bilduma besterik ikusten ez dutenak.

Gure oztoporik handiena da etapa honi funtzioak, helburuak eta zereginak esleitzeko gai ez izaten jarraitzea eta, ondorioz, nolako arreta eman behar diogun zehaztu ezin izatea. Hiru hamarkadatan nerabe-izaera unibertsal eta derrigorrezko bat izan ondoren, nerabeek aro hori ikasteko edo etorkizunerako prestatzeko aprobetxatu behar dutela zehaztera iristen gara, gehienez ere. Aldiz, nerabeentzat, gustura nahiz atsekabetuta egon, **nerabearoa nerabe izateko aprobetxatu behar dituzten urteak dira**, denetik sentitzeko eta bizitzeko uneekin.

Nerabeekin ditugun arazoen hutsune horretan edo desadostasun horretan dute jatorria. **Haiekin zer egin ez dakigunez** (edo proposatzen dieguna helduen ikuspegi zaharkituetatik datorrenez), eta beraiek, berriz, nerabearoa aspaldi bereganatu zutenaz, **zailtasunak eta arazoak ikusteko joera dugu beti**, borondate txarreko edo gatazkako fenomenoak ikusteko joera.

Etapa honetan dena ez da soziala, baina nerabeen errealitate sozialak dena baldintzatzen du. Gainera, pertsonalizazio-prozesu bat gertatzen da, aldaketa biologikoak, helduek suspertzen duten hainbat aldaketa, emoziozko aldaketak eta harremanei eta egokitzapenari dagozkienak. Aldaketa horien ondoren neska edo mutila desberdina izango da eta desberdin izate horretaz konturatuko da, bere bizitzako zenbait etapa atzean utzi izanaz jabetuko da. Nerabe-izaera, sozialki baldintzatua bada ere, ebolutiboa ere bada. Aldaketen aro bat da, izaerak aldatzekoa eta jardutekoa, norberaren munduari buruzko zalantzaz eta norberak munduan duen tokia buruzko zalantzaz bete.

Nerabezaroak, gainera, **gutxienez bi trantsizio dakartza berekin**: bata, aurreko etapa (hautzaroa) atzean uztea nerabe izateko, eta bestea, nerabe-izaera atzean uztea (batzuetan motel, denboran luze) gazte izateko eta gazte moduan jarduteko. **Nerabeentzako arreta beren trantsizioentzako arreta ere izaten hasten da** eta, alderdi batzuetan, neska-mutilek beraiek asmatzen, eratzten eta desegiten dituzten iragaite-errituentzako arreta ere.

Mintzagai dugun biziara nahitaez bizi behar da, luze samarra da, nerabeei nolabaiteko asetasuna eta helduei berriz halako nahaste bat ematen dieten ondo zehaztu gabeko zereginak ditu, eta aldaketa ebolutibo garrantzitsuekin nahasten da. Biziara hau berezia eta desberdina da eta, gero ikusiko dugunez, behar espezifikoa ditu eta, beraz, administrazio publikoek arreta berezia eman behar diote. Baina, nerabezaroaren zentzua argi ez badugu, ez da erraza herritarrek guk arreta nerabe diren aldetik emateko eskaerak egitea. Litekeena da batzuen kezkek eta estutasunek eragindako eskaeren itxura hartzea, erakunde batzuetan (esate baterako eskola) moldatu ezinak edo gizarte-gatazkak agertu izanak eragindako tentsioen itxura hartzea.

2. NERABEZARO UNIBERTSALETIK NERABEEN ANIZTASUNERA

Gure ingurunean nahitaezko nerabezaroak sortzen duen lehen harridura unibertsaltasun saihestezin hori da; bigarrena, bere aniztasuna da, **nerabe-izaeraren aurrean ez, baizik eta nerabe-izaera anitzen aurrean gaudela** egiaztatzea. Nerabetasuna adin-talde bat edo eboluzio-ezaugarri batzuk baino gehiago da; haien munduen ezagutza erabilgarriak ikuspegi poliedrikoagoak izatea dakar berekin. Norberaren nerabe-izaerari eta inguruan duten guztiari zentzua emateko neska-mutil horiek dituzten moduak, izaera horretan egoteko, sartu eta irteteko dituzten moduak, nerabe izateko (izaera hori nork bere egiteko) dituzten moduak elkarreragin konplexu askoren emaitza dira. Auzo desberdinetan, eremu desberdinetan gertatzen diren denbora jakinen emaitza dira. Nerabeek klima, giro eta harreman anitz eta aldakorren segida batean bizi dute beren nerabetasuna, eta ezinbestekoa da horiek guztiak ezagutzea nerabeak ezagutu ahal izateko.

*"Zer diren eta zer izaten saiatzen diren ulertzen da beren etxetik gertu dauden azokak, biltzen diren auzoko txokoak, egoten uzten dieten tabernak eta, aldi berean, munduaren alde honetan zein bestean parte hartzen duten sare birtualak, "esekitzen" dituzten bideoak edo trukutzen duten musika nolakoak diren jakinda. Nerabeak ulertzeko, bizimoduak edo gazte-kulturak bezalako kontzeptuetara eta analisi-kategorietara jo daiteke. Nerabeez hitz egitea haiek aurrerago izaten saiatuko diren eta orain imitatzen ahalegintzen diren gazteez hitz egitea da."*³.

Nerabe desberdinak ditugu, lehenik, haien nerabe izateko moduak beren jatorriaren arabera dira. Gurasoen jatorri sozialak, auzoko eguneroko bizitzaren errealitate sozioekonomikoak, eskura duten kulturakapitala, bai eta gizarte-egoeraren gainerako elementuek ere baldintzatuko dituzte haien nerabe-izaeraren osagaietako asko eta beren gurasoek haiek egiten dutenaz, beren bizitzetan gertatzen ari denaz duten ulermen-maila. Egoera sozial horrek baldintzatuko du, gainera, zein gizarte-talderekin nahasiko diren, norekin biziko diren, beren eskolako edo dibertsioako denbora norekin partekatuko duten.

³ Funes, J. o.c.

Nerabeen aniztasuna harremanen ondorioa ere bada, bereziki, izan ditzaketen eta izaten dituzten berdinen arteko harremanena. Nerabe izateko modu batzuekin edo besteekin bizitzeak modu bateko edo besteko nerabe izatea dakar. Eredu desberdinetan, une desberdinetan, nerabe-izaera batzuk edo besteak nagusitzen dira; izaera horiek gaur egun nerabeen eratzeari osatzen duten eragin desberdinen ondorioz jartzen dira modan, beren inguruko muga eta aukera sozialen arabera dira bideragarriak. Modu bateko edo besteko nerabe izatea, abian den nerabe-izaera zehaztea, norberak topatzen dituen nerabe-praktiken arabera izango da neurri handi batean. Gauzatu ditzaketen nerabetasunen multzoa askotarikoa da. Lurralde bakoitzean dauden nerabe-izaera nagusi eta kontrajarrien konposizio desberdinen arabera izango da guztia.

Nerabe bakoitzak, bere nerabe-identitatea zehazteko, eskura dituen ereduak eta praktikak erabiltzen ditu. Imitazio bidez edo sendotze kontrajarriaren bitartez definitzen dira, elkarreraginean dituzten nerabe-munduen arabera. Badirudi beren agertokian agertzen diren nerabe-izaeren katalogoaren arabera direla nerabe. Katalogo hori batzuetan zabala da, beste batzuetan txikia. Nerabe-izaera batzuk sozialki ontzat hartzen dira, eta beste batzuek arazoak eman ditzaketela uste da.

Nerabe-izaera batez ez, baizik eta nerabe anitzez arduratu behar izateak **bi erronka planteatzen dizkiete arretarako baliabideei:**

- a. Lehenik, nola diseinatu eta planifikatu behar diren, ekitatea sortzeko, **katalogo mugatuagoko nerabe-izaerak dituzten edo eratzeko katalogo pobretuagoa duten neska-mutilengan eragin esanguratsua izateko**. Oso ezaguna da, adibidez, gazte-informazioko zerbitzu batzuetan gertatzen den "mateo efektua": jada badutenak edo badakitenak dira deskonektatuta daudenentzat edo informaziorik ez dutenentzat aurreikusitako baliabideetara gehiago iristen direnak.
- b. Bigarrenik, baliabide gehienek (ekipamenduak nahiz jarduerak) erronka bat dute: alegia, zerbitzua zein nerabe-motari eman behar dioten. **Nerabe desberdinen arteko harreman-dinamikak (beti errazak ez direnak) konpondu eta helduen presioei (batzuetan erakundeetatik datozenak) aurka egin behar diete, baliabide horietara joaten diren nerabeek "lagun txarrak" izan ez ditzaten.**

Baina, horrez gain, nerabe-izaeren aniztasunak helduen portaerekin ere badu zerikusia. Izan ere, haien ondoan daudenek sortutako klima desberdinen, giro desberdinen emaitza dira. Haien inguruko helduak dira nerabe-izaerak pizten, mugatzen eta ardazten dituztenak, nerabe izateko modu batzuk edo besteak, jokabide batzuk edo besteak eragiten edo sendotzen dituztenak.

Modu bateko zein besteko nerabeak dira beren erakundeek tratatzen dituzten moduaren arabera. Txartzat bizitako eta tratatutako subjektuek ere, adibidez arazoak ematen dituztenek, identitate bat sortu behar dute beste guztiek bezala, baina elkarreragin eta emaitza onik ez badute, kontrajarritik sendotzea areagotzen dute. Beste nerabeen artean, nerabe izateko beste moduen artean, ukatu beharreko etsaiak bilatzen dituzte. Nerabe izatea jasotako tratua aurka ateratzea ere bada, onean izatea ezinezkoa denean txarrean izateko modu bat, norbera baino okerragoa den edo norberaren zailtasunen "errua duen" norbaitengandik bereizteko beharra.

Berriz ere baliabideetara, arretetara, itzultzen bagara, aniztasunaren alderdi honek gogora ekartzen digu nerabeei **arreta emateko edozein moduk ez duela balio; taldekatze batzuek (eskolan edo gaztelekuko sarreran) eratze txarrak ekar ditzaketela**; nerabeak beren jokabidearen erantzule izateko komunitate-moduak pentsatu ordez, zigor penala edo bereizketa aukeratzen direnean, nerabe-izaera jakin batzuk agertzea eta indartzea bultzatzen da.

3. ERATZEN ARI DIREN ETA LAGUNTZA BEHAR DUTEN PERTSONAK

Jada aditzera eman denez, nerabezaroa, **aro sozial bat eta izaera anitz bat izateaz gain, pertsonalizazioko aro eta prozesu bat ere bada**. Nerabeak funtsezko transformazio-eta batean murgilduta dauden subjektuak dira; orain direna deseraikitze eta zer izan nahi duten jakiteko etapa bat da, izan nahi dutena probatzeko, entseatzeko, praktikatzeko etapa bat. Sentitzen dutenak, esaten dutenak, egiten dutenak zerikusia du haien izaera ebolutiboarekin. Haiei arreta ematean aintzat hartu behar da eratze-prozesu kaotikoan dagoen beren mundu pertsonalaren zati hori ere.

Barrutik nolakoak diren ahaztu nahi ez badugu, kontuan hartu beharko dugu helduekin dituzten norgehiagokak beren burua sendotzeko modua direla edo, beren burua argitzeko, helduen hurbileko presentzia onuragarria behar dutela. Baliabideetako giroek, funtzionatzeko dinamikek zerikusia dute nerabeen asal-dura eta barealdi emozionalekin. Ez dugu ahaztu behar nerabe guztien kezka nagusia nor diren argitzea dela, beren identitatea eratzea. Egiten duten guztia badirela frogatzeko eta beren izaera topatu arte izateko modu desberdinak probatzeko da.

Mundu honek gogorarazten digu haien jokabideak lehenik nerabe moduan aztertu behar ditugula beti. Lis-
kar-egoeratik motibazioraino lehenik eta behin nerabeak dira, gero ikasle on edo txarrak, osasun mentaleko edo deskontrolako zailtasunak dituzten neska-mutilak.

Nerabeentzako baliabideek izan behar dituzten ezaugarrietako batzuk, hau da, haien bizitzan eragitea lortzeko bildu behar diren baldintzetako batzuk beren bizitzako alderdi horiekin lotuta daude. **Horregatik hitz egiten dugu nerabeentzako baliabideez.**

Nerabe-izaeren homogeneotasunetik aniztasunera pasatu gara. Laburpen bat egiten saiatuko bagina, neska eta mutil nerabe guztiek bi ezaugarri komun dituztela (intentsitate-maila desberdinetan bizitakoak) esango genuke, beren aniztasuna etengabe azpimarratzeaz eta masa uniforme bat bailiran ez tratatzea aldarrikatzeaz gain.

Haiatzat nerabezaroa zorionsu bizi eta izateko aro bat da. Nerabea *bizizalea, intentsitatez bizi nahi duen pertsonaia da funtsean*, intentsitate horren xedea beti eta guztientzat berdina izango ez den arren. Berriki ezagutzen ari den bizitza bizi nahi du eta denak emanda egin nahi du, inork konplikatu gabe ezta etorkizuna gogora ekarri gabe. Berehalakotasunak eta presentziak halako garrantzia duten gure mundu nerabeek areagotu egiten dute egunean-egunean bizitzeko premia, une bakoitza galdu gabe bizitzeko premia. Nerabezaroa bizitza honetaz gozatzeko aukera ezin hobea da, desagertu egingo dela eta aprobetxatu egin behar den etapa bat.

Nerabezaroa ezagutzeko, esperimentatzeko etapa bat ere bada. Haietako batek esaten zuen bezala, nerabea "esploratzaile erreprimitu" bat da. Jarrera horrek nerabezaroa batzuetan ahaztu egiten zaizkigun hiru dimentsiotan bizitzea dakar: 1) jarrera-hartze aktiboa, aurkitzailea; 2) orain inguratzen dituen errealitatea ezezaguntzat eta erakargarritzat hartzea, sakontzea merezi duen xarma multzo baten moduan; 3) itxuraz aurkikuntza hori eragotzi nahi dieten pertsonaia helduen presentzia, hau da, munduaren ezagutzan onarpen pasiboari eutsi nahi dioten helduena.

Dokumentu hau lantzeko egin ziren partaidetzako prozesuetako batean beren nerabe-izaerari buruz galdetu zitzairen gazteleku batzuetako neska-mutil desberdinei. Beren nerabetasunari buruz ematen dituzten deskribapenak oso mugatuak diren arren, bi ideia azpimarra ditzakegu:

- a. Nerabezaroan daudela ohartzen dira eta, zailtasunak dituen arren, bertan ondo egon daitezkeen egoera bat dela eta helduengandik tratatu desberdina eskatzen duela sentitzen dute;
- b. ez zaie gehiegizkoa iruditzen "gazteleku" "nerabea" izatea eta kezkatzen dituzten beren nerabe-izae-raren alderdiei han heldu ahal izatea.

Nerabeek beren munduaren zati batez bakarrik hitz egiten badute ere, beren nerabe-izaeraz egiten dituzten deskribapen laburrek honako hauek dituzte ardatz:

- mundu desberdin batean sartu gara;
- orain zure bizitzaren panorama zabaltzen da eta jende gehiago ezagutzen duzu (desberdin bizitzen dituzte: mutilak, neskak);
- tentsioa agertzen da egin nahi zenukeenaren eta egiten uzten ez dizutenaren artean, baina halaz ere egin egiten duzu (edatearen berezitasuna) berria delako eta jada egin dezakezula sentitzen duzulako;
- itxuraz bereizgarri irtetea eta dibertitzea dituen mundu batean sartzen dira.

Hala, nerabeentzako baliabideetan, arretan, eragina du nerabeak inplikatzeko aukera duten subjektu aktibotzat hartu behar izateak; izan ere, nerabeek bilatu eta jardun egin behar dute, eta esperimentazio hori eta bere arriskuak kudeatzen lagundu behar zaie. Nerabeentzako baliabideen helburua ez da haiek kontrolpean izatea, ezta lokartuta edukitzea ere, aitzitik, nerabeek aktiboki jakiteko eta ezagutzeko duten nahia piztea eta ordenatzea da helburua.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, **nerabea talde-subjektu bat dela**. Elkartasun emozional moduko bat aplikatuz eratzen da, eta bera bizitzen ari den berbera bizitzen ari direnek bakarrik uler dezaketelako uste osoa da horren jatorria. Nerabea eratzen eta izaten da berdin eta desberdin moduan harremanak izanez, partaide izanez, onartua izanez, ukatuz edo ukatua izanez eta nork bere burua sendotuz. Nerabeek hitz egitea nerabe-taldeez hitz egitea da eta haiekin lan egiten duen edonork badaki, nerabe batek heldu batek proposatzen dionaren eta bere taldeak proposatzen dionaren artean aukeratu behar badu, beti azken aukera honek irabaziko duela.

Nerabeentzako baliabideen antolaketaren ikuspegitik horrek bi gauza esan nahi ditu: alde batetik, kontuan hartu beharko da hezteko subjektua, hasteko, taldea dela (nahiz eta gero pertsonalizatu); bestetik, taldea eta bere dinamismoa kontuan hartu behar dira arreta emateko. NBAZ nerabe-taldeez arduratzen da eta,

neurri handi batean, berak sustatzen, dinamizatzen eta onartzen dituen nerabe-taldeetatik abiatuta egiten du lan.

4. AURRE NERABETIK NERABE ONDOKORA

Azkenik, zehazteko geratzen zaizkigu honako hauek: haien bizitzako zein urte, zein aldi sartuko ditugun nerabezeroaren kategorian; sozialki eratzten den ziklo bat den ala ez eta, beraz, argi ez dauden eta sarri kontrajarriak diren eskaera eta itxaropen sozialak dituen; nerabeen aldaketak heltze-erritmo desberdinekin suspertzen dituen motor biologikoa desagertzen den ala ez; eta amaitzeko, neska-mutilek egokitzeko eta aldatzeko nor bere erritmo pertsonalak dituzten ala ez. Badirudi ezin dugula zehaztu zein urte-tartez ari garen. Ez da hala. Honako hau azpimarratu besterik ez dugu egin nahi: **garapena suspertzeko edo moteltzeko hainbeste aldagai dituen talde batean oso garrantzitsuak izan daitezke banakako nahiz taldeko desberdintasunak, adina gorabehera.**

Betiko nerabeak eta aurre nerabe aurreratuak ditugun arren, nerabeentzako arreten berezitasuna zehaztu ahal izateko, orokorrean, baliabideek 12 urtetik 18 urtera bitarteko tartez (13-17) arduratu behar dute. Urte horietan neska-mutil gehienak beren nerabe-izaera bizitzen ariko dira eta, azkenean, uztea planteatuko dute.

Halaz ere, bereziki haiei arreta egokia emateaz ari garenean, **aldi hau ezin da bakarrik balitz bezala tratatu**; izan ere, nerabeen arretako eta laguntzako premiak ez dira berdinak eta beraiek ere ez lukete antzeko arreta onartuko adin horientzat guztientzat edo guztiz nahastutako adin-taldeetan eta egoera-taldeetan. Lurralde bateko baliabideek beti pentsatu behar dute **hiru arreta-taldetan eta horiei dagozkien partzialki bereizitako erantzunetan.**

Gaztelekuetako neska-mutilei egindako kontsultak agerian utzi zuen helduok nerabezero deitzen dugun horrek ñabardurak dituela adinaren arabera. 12tik 16 urtera bitartean mundu bat dago. 18 urtera arte kontatzen badugu, beste mundu bat. Nerabezero erdi-erdian daudenentzat (nagusiki 15etik 17ra bitartean), atzetik datozenak "txikiak" dira eta ez dute trataera bera izan behar (adibidez, ordutegiei eta jardueri dagokienez), baina ez daude elkarrekin bizitzearen kontra. "Txikiak" zalantza begiratzen diete jada "handi plantak" egiten dituztenei. Batzuk "jolastera" datoz; besteak beste gauza batzuetarako daude (hezitzaileek diotenez, "DBHko hirugarren mailara iristen direnean lasaitzen hasten dira eta beren gauzez hitz egiteko jotzen dute zuregana"). NBAZk adin guztientzat izan behar du, baina bi trantsizioak kontuan hartu behar dira (haurtzarotik, gaztarora) eta talde desberdinentzako dinamika desberdinak sortu.

Nerabeentzako arau komunak ahaztu gabe (aurrerago hitz egingo dugu horiei buruz), proposamenek hiru multzo aurreikusitako behar dituzte, hiru giro desberdinekin; multzo bakoitzean giro horietako bat nagusituko da, nahiz eta euren artean gainezarriko diren. Honako hauentzat partzialki desberdinak izango diren arretak eta erantzunak planifikatu behar dira:

- a. Oraindik aurre nerabe diren neska-mutilentzat (12, 13 eta zati batean 14 urte). Hauek egiten dutenaren eta behar dutenaren zati handi bat bizi dituzten aldaketekin eta horietara moldatzeko konplexutasuna-

rekin lotuta daude. Jasotzen dituzten erantzunak erabakigarriak izaten dira, neurri handi batean, beren nerabezaroa bizitzeko moduan.

- b. Bete-betean nerabe direnak (zati batean 14 urte, 15, 16, eta batzuetan 17 urte), nerabe sentitu eta nerabeen moduan jokatzeko dutenak. Hauentzako arreta beren bizitzako aro hori modu onuragarri eta aktiboan bizitzen laguntzarekin lotuta dago, zentzu txarrik eman gabe, bizkortu nahi izan gabe.
- c. Nerabe ondokoak (17, 18, ...). Gazte izateko nahia (nerabetzat hartua izateari uztea) eta mendeko izan gabe egin ahal izateko nahia dira nagusi. Kasu honetan arreta beren bizitza nolabait zentratzeko suspertzarekin eta laguntzarekin lotuta dago.

Baina, berriro diogu: adin-multzo horretan neska-mutil bakoitzak bere erritmoa du eta, benetako adina kontuan hartu gabe, bere esperientzien eta harremanen arabera, sartuta dagoen taldearen arabera kokatzen da fase horietako bakoitzean.

5. HAIEN BIZITZAN SARTZEKO ARRAZOIAK

"Justifikazioen" lehen kapitulu hau amaitzeko, planteatu dezakegu nerabeei benetan interesatzen zaien gu beren bizitzan sartzea, barru-barruan guk bakean uztea nahi ez ote duten. Zentzu politikoan galdera da **ea haiekin zerbait egin behar den, inolako arazorik ematen ez badigute ere.**

Profesionalen argudiaketa batzuetan agerian jartzen da nerabezaroaren alderdi batzuek arrisku-aldagaiak diren neurrian edo prebentzioa behar duen bizitzako une batean dauden neurrian arduratu behar dela. Guraso batzuek, estutasunak menean hartzen dituztenean eta kontrola galtzen dutenean izan ezik, ez dute nahi beste heldu batzuk beren nerabeen bizitzan sartzea. Zenbaitek gazteria-programei erasotzen diete eta, are gehiago nerabeentzako programei, ideia sozial zapaltzaileen edo helduenetatik desberdinak diren ideien mende jartzea edo dotrinatzea dela interpretatzen dutelako.

Gero mintzatuko gara nerabeen berezko beharrez eta hezkuntzak biziari honetan duen zentzuaz. Orain, haiei arreta emateko funtsezko arrazoi batzuk eman besterik ez dugu egingo; izan ere, arrazoi horiek justifikatzen dute administrazioek "Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua" bezalako proposamenak planteatzea.

Orain arte egindako nerabezaroari buruzko laburpenetik ondoriozta daitekeenez, gaur egun benetako bigarren hezkuntza-etapa bat izatera pasatu da eta **nerabeez arduratzeak esan nahi du haien bizitzan sartzea dela hura pertsona gisa eta herritar gisa desberdin era dadin ahalbidetzea.** Horregatik, NBAZ "sustapeneko" zerbitzua da, aukerak eta abaguneak sortzen dituena.

Gure artean aurrekoetatik oso desberdina den (gizarte-sektore txikiak bakarrik existitzen baitziren) nerabezaro bat finkatzean, azkenean, gizatiartze- eta sozializazio-aldi berezi bat sortu da eta, bertan, hezkuntza-eraginak garrantzitsuak izan daitezke, oraindik, proiektu pertsonalarentzat. Nerabezaro berria jada ez da biziari bat bakarrik, aitzitik, hezkuntza-etapa berri bat, hezteko aldi berri bat bihurtu da.

Nerabeez arduratzeko arrazoiak sistematizatzen baditugu, hiru irizpide zehatz ditzakegu:

- a. **Aukeraren irizpidea.** Haien bizitzan gauzak gerta daitezzen egiten dugu lan beraiekin. Eskolatuta egotea eragiten dugu, bestela, kalean ibili besterik egingo ez balute, hezkuntza-erakundeetan sortzen diren aukerak gertatuko ez liratekeelako. Ikasteko aukerak sortuko dira, baina baita harremanetarako aukerak ere. Pertsona heldu desberdinak izango dituzte eskura. Beren bizitzak beste mundu batzuetara ireki ahal izango dira, beste bizipen batzuetara, beste pizgarri eta esperientzia batzuetara. Gauza bera gertatzen da haietatik astialdian eta eremu ez formaletan arduratzen garenean. Beren nerabezaroa ez litzateke bera izango eta beren nerabe-trantsizioak ere ez luke amaiera bera izango. Gainera, batzuen kasuan, ingurune hurbilenak ematen dizkien aukerak, suspergarriak, pertsona izateko diseinua eta etorkizuneko proiektzioak eskasak izango dira. Beste heldu batzuen presentziak eta beste ingurune batzuek bakarrik osatu eta aberastu ditzakete aukera horiek.
- b. **Esperientziaren irizpidea.** Bizitzen duten horretatik ikas dezaten arduratzen gara nerabeez. Haien bizitzak ez dira eta ezin dute izan aintzira lasai bateko baretasun geldoa. Ekintzaz, pasibotasunez, kezka, entseguz, esperientziaz eta abarrez betetako bizitzak dira. Zerbait behar izatekotan, bizitzen duten guztiak arrastoa uzteko lagunduko dieten pertsona helduak dira, hain zuzen. Beren bizi-esperientziaz esperientzia ateratzeko behar gaituzte.
- c. **Erresilientziaren irizpidea.** Ez dugu ahaztu behar arrisku-gizarte batean arriskuan aritzen diren subjektuak direla. Horregatik, jada ez gaituzte behar babesteko, bai ordea sareak jartzeko. Ez gaituzte behar beraiei bidea errazteko, bai ordea indartzeko eta beti aldekoak ez dituzten ingurune arriskutsuetan garatzeko gaitasuna lortzeko. Nerabeekin gaude beren bizitza arriskutsuak autonomiaz kudeatzen lagunduko diena eskuratu eta sendotzen laguntzeko.

Ez du zentzurik nerabeez arduratzeak, hezteko ez bada eta, hasteko, norberaren nerabe-izaera kudeatzen, bertan kokatzen, nor bere burua ulertzen, norberaren inguruan gertatzen den guztia egoki kokatzen lagundu behar diegu.

6. NERABEEN HEZKUNTZA-BEREZITASUNA

Halaber, kontuan hartu behar dugu nerabeei, nerabe diren aldetik, arreta berezia emateko arrazoi batzuk ez datozela bizi duten etaparen berezitasun eta espezifikotasunetik. Arrazoi horiek aukeren berezitasuna deitu dezakegun horretan, hau da, haien bizitzan egiten dugun esku-hartzea eraginkorra izateko beharrean aurki ditzakegu. **Ez da etapa berezi bat bakarrik, aitzitik, hezteak, laguntzeak, eragina izateak, nerabezaroan berezitasun batzuk dituzte.** Horregatik definitzen ditugu nerabeentzako baliabide bereziak (antolaketan eta funtzionamenduan).

Haurtzaroari dagokionez, gaur egun aldaketa sakonak eta kanpoko eragin indartsuak jasaten ari den arren, esan dezakegu (sinplifikatuz) nerabeen eboluzioa heldze-prozesu egituratzaile batek gidatzen duela, alegia, funtsezkotzat aitortzen ditugun ikaskuntza batzuek eta erabakigarritzat hartzen ditugun hainbat esperientzia afektibo eta sozialek gidatzen dutela. Oso ahulak diren arren, badira zehaztuta eta onartuta dauden adostasun eta betekizun sozial batzuk. Nerabezaroan dena da desberdin samarra.

Jada aipatu dugu nerabezaroan heltze-aldaketak gertatzen direla (pubertaroko aldaketa anatomiko eta fisiologikoak) eta nerabeek horiekin kokatzen ikasi behar dutela. Baina, **beren bizitzan lehenengoz**, orekarik ezaren kontzientzia kritikoa dute, aldaketen kontzientzia kritikoa (norbaitek esan bezala, "boteredun hormonak" dira). Haien balio nagusia ez da biologikoa, egonezinekin, nork bere buruarekin dituen adostasun eta desadostasunekin lotuta dago. Balio hori, gainera, kanpotik emanda dago, gizartean nagusi den kulturaren edo garaikideen kulturen edo bizimoduaren arabera. **Nerabeen subjektibotasun ebolutiboa, hau da, aldaketak barnertzeko eta kudeatzeko duten modua zehazten duten dimentsio pertsonala eta aldagai sozialak hausnartu eta kontuan hartu behar ditugu.**

Nerabeek beren bizitzako urte batzuk nerabe izaten emateko betebeharrak ezagutzen dute. Haien jokabide, bizi-praktika askoren helburua da nork bere burua sendotzea eta helduei erakustea jada etapa horretan kokatuta daudela, jada nerabeak direla. **Beren burua nola definitzen duten, berdinaren artean eratzten dituzten nork bere burua sendotzeko eta bereizteko praktika desberdinak zein diren jakin behar dugu**, eta baita horiek belaunaldi bakoitzean nola aldatzen diren ere.

"Iragaitte-errituak" sortzen dituzte nerabe-izaerara heltzeko, hura sendotzeko. Baina erritu horiek beraiek zehazten dituzte, ez helduen gizarteak (edo helduok zehazten ditugunean edo gugandik jasotzen dituztenean, nerabeek baliozkotu egiten dituzte nolabait). Gauza bera gertatzen da nerabezaroa utzi eta gaztaroan kokatzeko errituekin ere. **Kontuan hartu behar ditugu trantsizioei lotuta dauden eta nerabeek trantsizio horiei esleitzen dizkieten onarpen-balioei lotutako osagai jakin batzuk.**

Badira nerabe-izaeraren praktika batzuk; bada entsegu eta ikaskuntzako prozesu bat; nerabe-ariketez betetako kokatzeko-aldi bat; atzean uzteko prozesu bat (nerabe ondoko gisa kokatzen diren ala ez kontuan hartuta osatuagoa izan daitekeena); eta azkenik, bizi izan dutenari emandako begirada kritikoa. "Praktika" horietako asko ez dira behar bezala irakurtzen edo interpretatzen. Nerabeei laguntzeko **ezagutu eta kontuan hartu behar dugu beren barne-logika, beraientzat beren portaeretak askok zein zentzu duen.**

Jada esan dugunez, gainera eta batez ere pertsonalizazioko aro bat da, konpondu beharreko arazo nagusi batzuk dituen. Identitatearen arazoaren inguruan (era askotakoa, desberdina, aldakorra, brikolajearen emaitza diren osagaiak dituen, gaur egungo nerabearena eta etorkizuneko subjektuarena) **esperientzia eta bizipen ugari gertatzen dira nor bere buruarekiko, besteekiko, berdinekiko, garaikideekiko, helduekiko, mundu fisikoan eta mundu birtualean, etab. kokatzeko.** Hezi ahal izateak esan nahi du aintzat hartzea prozesuaren osagai eta eduki horiek guztiak, iturri nagusiak, zaharretik eta berritik dutena.

Munduarekiko sozializazio kritiko bat ere bada (krisian dagoen eta bizkor aldatzen ari den mundua, beren krisiei gehitzen zaiena). Inguruan duten munduaren irakurketa kontraesankorrak krisian jartzen dira edo utzi egiten dira nerabeen iritziak direlako. Inguruan duten munduaren irakurketak bereganatzeko era biltzen dituzten elementu zehatzei (balioak, erreferentziak, ezaugarri erakargarriak, interpretaziorako osagaiak) arreta eman behar eta eman nahi diegu.

7. NERABEAREN HEZKUNTZA-BEHARRAK

Gehiegi sakondu gabe esan dezakegu nerabeen hezkuntza-beharrak (guztiak ez, baina bai zerbitzu desberdinetan nolabaiteko arreta jasotzeko planteak daitezkeenak) sei talde handitan bana daitezkeela:

1. Pertsona gisa nork bere burua argitzearekin eta munduan kokatzearekin zerikusia dutenak. Horien artean azpimarratzekoak dira:
 - Beren nerabe-izaera ulertzeko beharra, beren bizitzan gertatzen den guztiak zer zentzu duen jakiteko beharra, berdinen artean kokatzeko, ezagutzeko, zer duen eta zer lortu behar duen jakiteko, pixkanaka identitatea (era askotakoa eta aldakorra) eratzeko, subjektu sentitzeko eta ez arazoan eta zailtasunen bilduma...
 - Beren ingurune hurbilean, beren komunitatean kokatzeko beharra. Inguruko errealitate soziala ezagutzeko, onartzeko, kritikatzeko eta aldatu nahi izateko beharra. Errealitate horren zati eta partaide izatea merezi duela sentitzeko beharra. Sozializatzeko beharra (jokoaren arauak ikasteko eta beren kulturak eta bizi-logikak partekatzeko). Parte hartzeko beharra.
 - Herritar bilakatzeko beharra, eskubide kolektiboak eta pertsonalak era aktiboan erabiltzeko. Nork bere tokia aurkitzeko beharra. Nork bere bizitzaren zentzua aurkitzeko beharra.
 - Gaztetasunerako trantsizioaren eta pixkanaka orientatzearen ondoriozko beharrak.
2. Komunikazioaren eta etengabeko ikaskuntzaren gizartean ikasten ari den subjektu izatearekin zerikusia dutenak. Adibidez:
 - Sareko gizarte digital, global eta aldakorrean bizi eta funtzionatzeko gaitasunak lortzearekin lotuta dauden beharrak.
 - Jakiteko, ikasitakoa nork bere buruarekin eta bere bizitzarekin konektatzeko nahiari eusteari dagozkion beharrak.
3. Komunikazioarekin, adierazpenarekin eta sorkuntzarekin zerikusia dutenak. Adibidez:
 - Ideien, irudien, berezko sorkuntza-adierazpenen ekoizpenarekin lotutako beharrak.
 - Informazioaren ekoizpenari eta hedapenari dagozkion beharrak.
4. Arriskuen kudeaketaren ikaskuntzarekin zerikusia dutenak. Adibidez:
 - Modu seguruan arriskatzen ikastearen ondoriozko beharrak.
 - Beste errealitate batzuk eta beste mundu batzuk ezagutzeko duten nahiaren ondoriozko beharrak. Esperimentaziotik eta aurkikuntzatik ikasi ahal izatearen ondoriozkoak.
5. Autonomiaz eta erantzukizunez aritzeko beharra. Adibidez:
 - Nor bere buruaren jabe egin ahal izateko beharra. Nork bere bizitzaren oinarrizko alderdiei buruz, laguntzekin eta besteak tartean sartu gabe, erabakitzeko beharra. Autonomiaz aritzeko beharra.

- Erantzukizuna hartzeko, erantzukizuna sortzen duten pertsona helduengandik erantzunak jasotzeko beharra.

6. Elkarrekin bizitzen ikastearekin zerikusia dutenak.

- Nork bere desberdintasunak sendotzearekin eta, aldi berean, besteek erutzen dituzten desberdintasunak onartzearekin lotuta dauden beharrak. Nerabe, gazte eta heldu izaten eta, norbera bezalakoak izan nahi ez duten arren, ondoan behar dituen nerabe, gazte eta helduekin bizitzen ikasteko beharra.
- Adiskidetasuna, harreman-sareak, partaidetza-taldeak, sare fisikoak eta birtualak sortzeko beharra.
- Norbera murgilduta dagoen gatazkei helduek ematen dizkieten erantzunak etiketatzea, alde batera uztea edo baztertzea ez eragiteko beharra.

Aurrerago ikusiko dugunez, baliabide eta zerbitzu desberdinek, arreta-proposamen desberdinek arrazoitu egin behar dute zein beharri edo behar-multzori erantzun nahi dioten.

III. JARDUEREN ANIZTASUNA. JADA EGITEN ARI GARENA

Behin eta berriz esan dugu NBAZ ez dela "ex novo" eraiki behar; izan ere, proposatzen duenaren zati handi bat jada badiren praktika onen zerrenda luze bat nolabaiteko koherentzia-irizpide partekatu batzuen arabera sistematizatzea da. Horrez gain, eta bereziki, **erreferentzia-eredu baliagarri bat eduki handiagoaz hornitzeko, zabaldu eta iradokitzeko eta, azken batean, finkatzeko proposamena da, hala, lurralde osoan arreta-proposamen bera izan dadin eta proposamen hori homologagarria eta partekatua izan dadin.**

Horregatik gogoan izan behar dugu egiten ari garenaren konplexutasuna, transformatzeko eta hedatzeko il-doan aurrera egin ahal izateko. Tokian bertan eta tokitik bertatik nerabeentzako arretan bereziki inplikaturik dauden bi programa-multzo aztertuko ditugu: gaztelekuak, beren ingurunean sortzen diren jarduerekin; eta ingurune irekiko hezkuntza-programak. Lehenak orokorrean nerabe guztientzat pentsatuta daude, bigarrenak, aldiz, zailtasunak eta arriskua dituztenentzat.

1. NERABEEI DAGOZKIEN JARDUERA ETA GUNE BATZUK

Dauden gaztelekuen ezaugarrien (ordutegiak, adinak eta jarduerak)⁴ oinarrizko irakurketak, gutxienez, honako elementu hauek aintzat hartuz garamatza:

- a. Elkarreraginerako eremu bat duen nerabeei arreta emateko zerbitzu bat egoteak ez du zerikusirik herrian dauden nerabeen kopuruarekin edo herriaren tamainarekin, beste irizpide politiko batzuekin edo udalerriaren errealitatearekin baizik. Herri batzuek, hasteko, NBAZ martxan jartzea erabaki behar dute. Beste batzuek, jada egiten ari direna abiapuntutzat hartuta, hari koherentzia eta egonkortasuna emateko modua bilatu behar dute.
- b. Biztanle-kopuru handia izanik, nerabeei arreta emateko proposamenak dituzten herrietan bi errealitate bereiz ditzakegu: eremu jakin bati atxikita ez dagoen baliabide orokor bakarra dutenak; eta baliabide bat baino gehiago izan eta horietako bakoitza auzo jakin bati atxikita dutenak (guztietan ere ez dago). Etorkizuneko transformazioa NBAZ baten erreferentziazko lurraldea zein den zehazteari eta NBAZ horrekin lotuta dagoen komunitate-lanari eta sare-lanari dagokie.
- c. Arreta jasotzen duten adinak anitzak dira eta baliabide bakoitza ia horietako bati bakarrik dagokiola esan daiteke. Batzuetan baliabidea sortu zeneko arrazoi historikoen edo zerbitzua ematen duen entitatearen dinamikaren ondorioz gerta daiteke hori. Beste batzuetan, adin batzuekin lan egiteko zailtasunaren ondorioa izan daiteke. Besteren batean, ematen den arretaren izaera da arrazoa. NBAZren proposamenak 13tik 17 urtera bitarteko aldia hartzen du helburutzat (biak barne).
- d. Ordutegi desberdinak izateak funtsean asteburua barnean hartzen duten proposamenak sartzearekin edo ez sartzearekin du lotura. Ostiraletako ordutegi anitzekin hasita, eta larunbaterako eta iganderako izan daitezkeen proposamenekin jarraituz, transformaziorako baliagarria zer den hausnartu behar da, nerabeei arreta emateko, asteburuetako denborak planteatzeko arrazoizko helburu eta moduen arabera. Horrez gain, garbi utzi behar da asteburuko jarduerak bakarrik planteatzeak seguru aski ez duela zentzurik. Auzo batzuetan eta baliabide batzuen kasuan aintzat hartu behar dira goizak. Kontu honek

⁴ Ikus 2. eranskina

zentzu are handiagoa du ingurune irekiko hezkuntza-programekin nolabaiteko elkarreragin handia badago eta hori NBAZko denboratza hartu behar da (harreman berezietarako denbora, beste profesionalen lan egiteko denbora, etab.), lokal fisiko bat guztiz irekitzeko adina denbora ez bada ere.

Gaztelekuekin lotutako baliabideek eta praktikak badituzte atzean beste konplexutasun batzuk NBAZren proposamenen eragina izan dezaketenak. Horietako bat da zerbitzua emateaz udalaz kanpoko erakunde eta enpresak arduratzea, ezaugarri eta baldintza oso desberdinekin. Beste bat, udalak nerabeenganako duen erantzukizuna beti arlo berdinetan ez egotea eta horretaz arduratzen diren profesionalak beti berdinak ez izatea.

NBAZk udaletako "gazteria-teknikariekin" (eta maiz beste zerbaitetakoak ere) eta, kontratu bidez, zuzenean nerabeentzako baliabideetan aritzen diren kanpoko erakundeetako "hezitzaileekin" du lotura. Baina, normalean harreman zuzenik ez duten bi profesional-talde dira. Informazioaren eta plangintzako edo jarduteko irizpideen zirkulazioak, neurri handi batean, udalek esleitutako zerbitzuak ematen dituzten enpresetako profesional arduradunak ditu bitarteko (bi norabideetan). Herri askotan planifikatutako horretan oinarrituta NBAZ bat izan daitekeenaren eta izan behar duenaren arteko loturak, alde aurretik, profesionalen artean harreman baliagarri bat sortzea behar du (Gaztelekuko profesional bati ezin zaio eskatu, adibidez, sareko lana egitea, ez bada behar bezala argitu NBAZren tokiko arduradunarekin harreman eraginkorrak nola izan behar dituen).

Gipuzkoako nerabeentzako arretaren muina osatzen duten baliabideek eta giza taldeek jatorri eta historia desberdinak dituzte; horren ondorioz, alderdi desberdinak azpimarratzen dituzte edo arretaren alderdi batzuk beste batzuk baino gehiago baloratzen dituzte. Batzuen ibilbidea zailtasun sozial jakin batzuen prebentzioan eta arretan hasi eta nerabeentzako arreta orokorrera iritsi da, aldi ez formal eta ez instituzionaletan. Beste batzuek, alderantzizko bidea egin dute, astialdiko hezkuntzatik eta gazteria-zerbitzuetatik hasita, tokian tokiko zailtasunekin nerabe desberdin guztientzako hezkuntza-erreferentziazko eremuak eraikitzeke asmoraino. Bietan agertzen dira komunitatearen dinamizazioarekiko kezka eta zailtasunak agertu edo arazoak sortu aurretik eman beharreko arretarekiko kezka.

NBAZ diseinatzeko proposamena dinamika konbergente baten ondorioa da azken batean: hau da, profesional eta baliabide "espezializatuenean" nerabeengana iristeko beharrezkoa den normaltasuna bilatzen dituzte eta "orotarikoek" nerabe gehienengana iristeko behar diren malgutasuna eta inplikazioa bilatzen dituzte. Batzuetan transformazio-prozesuaren atzean parte hartzeko dinamikaren bat izan da. Beste batzuetan, nerabeentzako "zerbait" martxan jartzeko beharretik, haiekin egoteko "tokiak" izateko beharretik sortu da, besterik gabe.

Konplexutasuna areagotu egiten da zerbitzuak ematen dituzten erakundeak era askotakoak direla eta bakoitzak atzean historia desberdin bat duela kontuan hartzen badugu. Beharrezkoa dirudi administrazioetik egin behar den jarraipenak nolakoa izan behar duen sistematizatzea, bai kontzeptualki bai eta teknikoki ere.

Jatorrien eta ibilbideen aniztasuna are konplexuagoa da haurrentzako eta gero nerabeentzako "astialdiko" hezkuntzak jatorria euskararen defentsan eta hedapenean badu, sustraitzeko modu gisa eta hezkuntzako osagai garrantzitsu moduan. Herri batzuetan nerabeentzako arretak euskara-departamentuan jarraitzen du eta ez dago hezkuntza-departamentuaren, gazteria-departamentuaren edo gizarte-zerbitzuen mende.

"Historia" desberdin horiek pentsarazten dute NBAZren helburuei eta oinarrizko egiturari buruzko akordioa lortu behar dela eta nerabeen hezkuntza-helburuak zehaztu eta eguneratuta izan behar direla, agintaldi bakoitzean tokiko administrazioaren zein arlotan sartuta dagoen kontuan hartu gabe.

Aniztasun hori osatzeko, kontuan hartu behar dugu zenbait tokitan badirela "gazte-informazioko" baliabideak eta "informatzaile" moduan definitutako profesionalak, maiz beste profesionalak baino are isolatuago daudenak, nerabeekin harreman zuzenik ia ez dutenak eta beren funtzioetan nerabe-izaeraren eta komunikazio-gizartearen egitura-aldaketen eragin izugarria dutenak.

2. GIZARTE-HEZKUNTZAKO LANA INGURUNE IREKIAN

Tokiko eremuan nerabeei ematen zaien arretaren hurbilketa mugatu hau osatzeko, *"Komunitateko gizarte-zerbitzuetatik arrisku-egoeran dauden adingabe eta gazteen gizarte-hezkuntzan esku hartzeko programak"* aipatuko ditugu.

Programa horien helburua da "arrisku-egoeran dauden" nerabeez arduratzea, bai eta babespean edo adingabeen justiziaren ardurapean daudenez ere. Haien oinarrizko erreferentzia lurraldeko gizarte-zerbitzuak dira. Besteak beste, nerabeek komunitateko baliabideetan, zerbitzuetan eta testuinguruetan parte-hartze egonkorra izatea dute helburu.

Ingurune irekian lan egiteak esan nahi du nerabeak dauden lekuetan lan egitea, haien eremuetan (kalea, etxea, hezkuntza-ekipamendu soziokultural formalak eta ez-formalak eta bestelako baliabideak eta sistemak). Hezkuntza-proiektu indibidualetan, taldeko hezkuntza-proiektuetan eta komunitate-proiektuetan oinarritzen dira.

Orokorrean, talde guztiak gizarte-zerbitzuetan sartuta daude, gazteria-departamentuan sartuta duen udal bat eta ingurune irekirako eta gaztelekurako talde bera duen beste udal bat izan ezik.

Gorago aipatutako baliabideekin lotzen baditugu, ikus daitekeenez, (2010ean) bat datoz hamalau udalerritan (beste hirutan nerabeentzako eta gazteentzako beste leku batzuekin lotuta daude). Hamaika herritan gaztelekua dute baina ez ingurune irekiko programarik eta zortzi herritan (hamaika, beste lokalak kontuan hartzen ez badira), ingurune irekiko programa dute, baina ez da arreta emateko nerabeentzako leku bat. Beste askotan ez bata ez bestea.

Ingurune irekiko programan, neurri batean gaztelekuetan egiten denarekin bat etorritik, hezkuntza-harremanetik eta komunitateko agenteekin eta baliabideekin koordinatuta egiten da lan. Haien talde-proiektuak honako hauekin lotuta daude besteak beste: astialdi-taldeen, kirol-taldeen eta bestelako en egokitzapena; eskola-laguntza edo autolaguntza; eskolaz kanpoko jarduera egokituak; lokalen autogestioa edo kogestioa, etab.

Haien esku hartzeko filosofian garrantzitsua da arriskuan dagoen nerabeak hezkuntzako erreferentzia-irudi bat duenean, harentzako edo bere familiarentzako erreferentzia-irudien ugalketa kosta ahala kosta ekiditea. Nerabeak jada erreferentzia-irudi garrantzitsu bat badu, kale-hezitzaileak ez du ordeztu behar.

Aurrerago NBAZk programa horien artean ezarri behar duen erlazio praktikoa zehaztuko dugu. Orain azpimarratu nahi dugu oso konplexua dela nerabeez arduratuko diren baliabiderik (guneak, jarduerak) izan gabe nerabeen zailtasunekin lan egitea (adibidez, gaztelekuak). Era berean, edozein herritan nerabeen zailtasun-egoerak gertatzen dira eta horiez, gero ikusiko dugunez, leku bakoitzean dagoen baliabideak arduratu behar du, eta zenbaitetan gaztelekua besterik ez dago. Esku hartzeko helburuen, metodologia-ren eta filosofiaren alderdi batzuk partekatuak dira. Nerabeez ez da arduratzen guk nahi duguna, eragin-harreman bat sortzea lortzen duena baizik. Ez dira beti etortzen. Askotan haiek dauden tokira joan eta han egon behar da.

IV. HELBURUAK ETA ASMOAK.

1. DAGOKION EREMUKO NERABEEN ERREFERENTZIA

Balio Anitzeko Zerbitzuaren xedeak nerabeez arduratzea izan behar du, baina ez neska-mutil nerabeez bakarrik; nerabeekin "lan egiten" dutenez ere (orientatzaileak, irakasleak, kale-hezitzaileak, etab.) arduratu behar du. Neska-mutilen kasuan, ez dugu ahaztu behar beti ez dela nerabeentzako erreferentzia bat, automatikoki beren bizitzarekin modu onean lotuta antzematen duten zerbait. Oraingoz, gero laburtuko dugunez, beste profesionalekiko harremana edo ez dago edo zaila da eta gaztelekua (NBAZ) ez dute ikusten nerabeentzako baliabide moduan, profesional bakoitzak egunero ematen duen arretan erabil dezakeen baliabide moduan.

Era berean, komunitatearen aurrean nerabeez arduratzea beharrezkoa dela kontzeptualizatzeko balio izan behar du. NBAZren bitartez, komunitateak hezkuntza-ardura honen garrantzia ezagutu behar du. NBAZ gainera aukera soziopolitiko bat da, sozializazio-modu bat aukeratzen da, ez haiek besterik gabe beren kasa, beren behar eta arazoekin uztea.

NBAZren ideiak eten egiten du (haustura hori azaldu ahal izan behar du) neska-mutilak enbarazu egin gabe denbora pasatzera joango diren baliabideak martxan jartzeko ideia. Beti hezkuntza-planteamenduetatik zehaztuta dauden erantzunen multzo bat da. Nerabeentzako arreta elkarrekin "pentsatzeko" tokiko erreferentzia izan behar luke. Nerabeentzako arreta osoarentzako eta nerabeez arduratzen diren guztientzako erreferentziatzako egitura publiko bat izan behar du.

2. NBAZ-REN HELBURUEN LABURPENA

Azaldutako guztia (jatorria, arrazoiak eta beharrak) laburtzeko eta formak eta edukiak zehazten hasi aurretik, egokia dirudi NBAZ oreken helburu nagusiak finkatzea.

NBAZ-REN HELBURUEN LABURPEN-TAULA

OINARRIZKO BI ASMO

1. Bere ezaugarriengatik (bere proposamenak eta funtzionatzeko modua) nerabeentzako baliabide bilakatzea: lurralde bateko nerabe gehienek ezagutzen duten, beren bizitzarako egoki ikusten duten eta bizi duten garairako aukera-leku gisa sentitzen duten baliabidea.
2. Haien beharren zerbitzura dagoen baliabidea izatea, biziari jakin bat bizitzen ari diren, beren burua beste batzuekin harremanetan eratzen duten (garaikideak, aurreko belaunaldietakoak eta helduak) pertsona diren aldetik; komunitate batean bizi diren, gizarte bat osatzen duten subjektuak diren aldetik; eta etorkizun bat eraiki behar duten gizakiak diren aldetik.

HELDUEN GIZARTEAREKIN LOTUTAKO HELBURUAK

1. Helduen gizarteari nerabearoa eta nerabeek aldi hori bizitzeko dituzten moduak ulertaraztea. Nerabe-izaera desberdinen normalizazioa ahalbidetzea.
2. Hezkuntza-denbora delako ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin, beste profesional batzuekin nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzea.

BESTE PROFESIONAL BATZUEKIN LOTUTAKO HELBURUAK

1. Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.
2. Nerabe-izaerei eta haien zailtasunei arreta emateko sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzea.

NERABEEKIN BERAIEKIN LOTUTAKO HELBURUAK

1. Beren nerabe-izaerak ulertzen eta kudeatzen laguntzea.
2. Beren nerabe-izaerak ingurune desformalizatu eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.
3. Betebeharririk gabeko beren denbora betetzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sortzekoak, ahalbidetzea.
4. Jarduerak antolatzeke, nork bere burua antolatzeke eta beren denborak kudeatzeko nerabeek egiten dituzten proposamenak jaso eta erraztea.
5. Beren artean nerabe-izaeren aniztasuna ezagutu eta nerabe izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.
6. Ekipamenduetan eta hauetatik kanpo talde-bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.
7. Trantsizioak erraztea (hautzarotik nerabearora eta nerabearotik gaztarora), erritmo eta egoera desberdinak kontuan hartuta.
8. Arriskuen kudeaketaren ikaskuntza lantzea.
9. Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.
10. Guztion gaitan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.
11. Jakin-nahia bultzatzea eta oinarrizko informaziora iristen laguntzea, gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.
12. Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetzea.
13. Sorkuntza suspertu eta ahalbidetzea (nerabeen adierazpen gisa eta arte-sorkuntza moduan).
14. Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden heldu onuragarriak nerabeen eskura jartzea.
15. Harreman eragingarriak lantzea, nerabeen eremuetan, ekipamenduetan, aisialdian, betebeharririk gabeko denboran... presentzia izanez; jarduerak dinamizatu; laguntza-eskaintzen bidez.
16. Beren autonomia suspertzea eta beren jokaerak erantzuna izan dezaten erraztea, nork bere erantzukizuna landu ahal izateko.

*V. ARRETA EMAN AHAL IZATEKO GILTZARRIAK ETA BALIABIDEAK
ANTOLATZEKO OINARRIZKO PROPOSAMENA*


1. ZERBITZUA EGITURATZEN DUTEN HIRU DIMENTZIO

Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua hiru jarduera-dimentsioren inguruan egituratzen da, era malgu batean:

1. Ekipamendu bat. Ezaugarri jakin batzuk dituen elkargune bat.
2. Nerabeen antolaketarako eta ekintzarako jarduerak, ekintzak eta eskaintzak.
3. Profesionalen taldea, harreman eragingarri bat sortzeko gaitasuna dutenak eta prest daudenak. Hala, honako hauek ahalbidetuko dituzte:
 - nerabeen errealitate kolektiboak eta indibidualak behatzea,
 - arreta puntuala, pertsonala eta taldekoa,
 - nerabe batzuek agian beharko dituzten jarraipen indibidualizatuetao batzuk,
 - denbora batez, erreferentziak iruditzen dituzten nerabe batzuentzako bide-laguntza hezigarria.

Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzuak hiru dimentsio horietako osagaiak izan behar ditu beti; hona hemen grafikoki adierazita:

1. grafikoa
NBAZ-REN HIRU DIMENTZIOAK




Hiru elementuak garrantzitsuak eta ezinbestekoak dira. **Zerbitzua ez da bertan egoteko toki bat bakarrik** (baina nerabeen behar horri ere erantzun behar dio). Zerbitzua **ez da ekintza-programa bat**, entrenitzeko eta denbora ondo pasatzeko eskaintza bat (baina haiekin aritzeaz gain, haiekin gauzak egiteaz gain eta haiek gauzak egin ahal izan ditzaten egiteaz gain, bere lurraldeko nerabeen eskura interes berezia duten jarduera batzuk jarri behar ditu). **Zerbitzua ez da begiraleak dituen ekipamendu bat** (halakoak egon daitezkeen arren), profesional helduen talde bat baizik; eta profesional horiek prest egon behar dute nerabeentzat, hurbileko heldu onuragarri bilakatzeko aukera izan behar dute, eta hori guztia betetzeko prestakuntza, gaitasuna eta betekizuna izan behar dituzte. Zerbitzuaren elementu edo ardatz horietako bakoitzaz beste kapitulu batean hitz egingo dugu, hain zuzen, egiten ari garena edo egin behar genukeena nolabait zehaztuko duen kapituluan.

Grafikoan ikus daitekeenez, hiru ardatz horien baturak, hiru elementu horien arteko elkarreragin dinamikoak nerabeentzako **"erreferentzia-multzo" bat osatzen dute eta horrek "eragin-testuinguru garrantzitsuak" sortzeko aukera** ematen du.

"Erreferentziako" Zerbitzu bat da, "argiak" pizten ditu, bertan nerabeek gauza erakargarriak ezagutzen dituzte, agian noizbait baliagarriak izan gaitezkeela erakusten dieten bizipenak, hurbilerraztasunak eta erabilgarritasunak. Baina, gero ikusiko dugunez, "erreferentziak" bat baino gehiago dira. **Nerabe-toki** bat da, gaztea den guztiaentzako (zentzu orokorrean) erreferentzia-toki bat, biziara bat partekatzearen elkartasun emozionala sentitzen dutenentzako tokia. Gainera, estilo-erreferentzia bat ere bada; **bertan nerabe-estiloarekin, haren gako eta argumentuekin konektatzen** duten guneak, jarduerak eta pertsonak biltzen dira. Nerabeen zurrumurruek "han ulertzen zaituzte" zabalitzen dute. Azken batean, erreferentzia pertsonalen multzo bat da, nerabeekin **"ondo moldatzeko" gaitasuna duten helduen multzo bat da, haien bizitzan gertatzen den edozertan interesatu eta kezkatzen direnena**, haien krisiak onartzen eta ulertzen dituzten eta galtzen direnean orientatzen laguntzeko prest dauden helduen multzoa, alegia.

"Testuinguruen" sorkuntza bi alderdi garrantzitsurekin lotuta dago. Alde batetik, nerabeez ari garenean, **arretaren eta hezkuntzaren xedea talde bat (edo batzuk) eta haien arteko harremanak dira beti**. Baliabideetan bertan osatzen eta dinamizatzen ditugun taldeekin edo beren bizitzako beste une eta toki batzuetan dauden taldeekin egiten da lan. Bestetik, heztea eragin-testuinguruak sortzea ere bada, haien bizitzan eragina izango duten suspergarri, presio, zuzenketa, proposamen, eragin eta abarren multzo gurutzatua sortzea. Nerabeen kasuan, gainera, -jada esan dugunez- haiek testuinguru desberdinen ondorioa dira, eta guk testuinguru horietan eragina izan dezakegu (batzuetan sortu edo ordeztu egin ditzakegu) emaitza batzuk ala besteak lortzeko. Zerbitzuaren proposamenean helburua da, alde batetik, **haien nerabe-testuinguruak kontuan hartzea eta, bestetik, beharrezkoa izanez gero, testuinguru horiek zuzendu, osatu edo ordezteko eragina izatea**.

2. grafikoa
NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUAREN OSAGIAK ETA EMAITZAK



2. NERABEEK NBAZ BATEAN ZER AURKITU NAHI DUTEN

Ez da hemen deskribatutakoaren oso desberdina neska-mutilek beraien kontsultatzen zaienean desio moduan adierazten dutena. Nerabeen gai honi buruzko bertsioa ezagutzeko egin diren partaidetzako jardueretan gai guztiak eztabaidatu ez ziren arren eta haiek egindako ekarpenetako asko gazteleku zehatzetako esperientziekin lotuta dauden arren, ideia garrantzitsu batzuk ondoriozta ditzakegu ekarpen horietatik.

- a. Gaztelekura joaten direnak gustura egon ohi dira eta joatea zergatik merezi duen pentsatzen dutenean, beren arrazoiak eta asmoak hiru kategoriatan bildu daitezke: gunea, harremanak eta ekintzak edo jarduerak.
- b. Guneak lehen funtzioa betetzen du: "kanpoan" ez egotea ahalbidetzen du. Kalea erakargarria da euria edo hotza egiten duen artean. Barruan egoteak, gainera, helduak lasaitzeko (gurasoak) eta haiekin liskarrean ez ibiltzeko (auzokoak) aukera ematen du.
- c. Gainera, besterik gabe "egoteko" ("toki bat duzu", "denbora pasa dezakezu", "beste erritmo batzuk dituen nerabe-denbora hori pasatu") aukera ematen du, zu bezalakoak direnen artean egoteko. Horregatik, eskatzen hasita, "sofak" eta gune desberdinak ("egongelak") eskatzen dituzte, hau da, gune horietan egoteko eta guneak "bereganatzeko" (taldearen, musikaren, jarduera nahiz gelditasunaren eta abarren bitartez bere egitea) modu desberdinak ahalbidetuko dituztenak. Giroa sor daiteke. "Lagunarteko tokia da".

- d. Espazio horiek nerabe bat lagunartean egiteko erakar dezakeen guztia izan behar du. Mundu digitalarekin, ikus-entzunezkoekin, musikarekin eta komunikazioarekin lotutako baliabideek erakarri egiten dute. Laburbilduz: sofa eta "play-a" daude, baina baita mahai-futbola ere.
- e. Elkargune bat da. Helduak dauden arren, ez da eskola bezalako, bestelako askatasuna du. Elkargune hau guztiz bateragarria da beste gune batzuekiko, esate baterako, nerabezaroan aurrera egin ahala askok bilatuko duten koadrilaren lokala.
- f. Berdinak direnekiko harreman-funtzioak betetzen ditu. Bertan harremanetan daude. Lagunekin topo egiten dute eta lagun berriak egiten dituzte (harreman-maila eta adiskidetasun-maila desberdinekin). Taldeetako partaidetzak zabaldu egiten dira.
- g. Helduekin, "beste" heldu batzuekin harremanak izateko leku eta aukera bat ere bada. "Laguntzat" dituzten hezitzaileak daudelako ere joaten dira gaztelekura; konfiantzazko pertsonak dira eta "dena konta diezaiekezu", "jatorrak" dira (kanpoko behatzaileek, hau da, nerabeetan adituak ez direnek diotenez, haien eskaerak konfiantzazko lagunen beharra, ia psikologoaren beharra dira; haiekin duten harremanaren kalitatea edo estiloa kantitatea baino garrantzitsuagoa da). Jakina, ez dira gurasoak bezalakoak baina, gainera, eskolako harremanetan dituzten zailtasunak ikusita, ez dute irakasleen batere antzik (helduen "triangelua" ageri da argi eta garbi, eta NBAZ diseinatzean horretaz hitz egin beharko da).
- h. Harreman onuragarri horren zati batek bi norabideko komunikazioa izatearekin lotura du: hau da, nerabearekiko harremanaren giltzarriak ondo ezagutzen dituzten profesionalak izan behar dira eta nerabeek beren interesak, beren eskaerak lasai adierazi ahal izan behar dituzte.
- i. Helduen presentzia onartzeak eta eskatzeak haien kaosa arautzearekin du zerikusia neurri batean. Beti ez da garbi geratzen giroa eta harremanak antolatzeako behar dituzten edo, etengabeko nahas-mahasean sentitzen direnez, laguntza eskatzen duten kanpoan beren burua ordenatu ahal izateko. "Nahasita" daude eta laguntza eskatzen dute "bazterrak ez nahasteko".
- j. Arrazoiak nerabeek egiten dutenarekin ere lotuta daude. Lehenik eta behin beren denbora gustuko duten edo gustuko izatera iris daitekeen zerbait egiten bete dezaketelako. Askotan ardatza musika izaten da bere aldaera desberdinetan, entzutetik hasi eta ekoizpeneraino (DJtik entsegu-lokaleraino).
- k. Baina baita ere egiteko aukerak zabaltzen dituelako. Nerabeek beren jatorriko familia- eta gizarte-ingurunean eskura izango ez lituzketen ekintzak eta jarduerak eskaintzen zaizkie edo antola daitezke. Formalki (beste gauza bat da nerabeak dinamizatzeko eguneroko borroka), luzea dirudi egitea gustuko litzaikeenaren zerrendak, filmetatik hasi eta sukaldaritzako jardueretaraino. Dena ez da ondo pasatzea. Tailer batzuk ikasteko jarduerak direla esaten dute, ezagutzen ez dituzten gauzak egiteko.
- l. Nerabeak direnez, egiten dutenaren zati bat lokaletik kanpo eta herritik kanpo egiteko premia azpimarratzen dute: irtetea, kanpoan lo egin ahal izatea (kanpatzea), euren artean eta hezitzaileekin bestelako harremanak izatea.

m. Azkenik, beren nahiak adierazten dituztenean, beren nerabezaroa ekintza eta esperimentazio berriak izateko aro moduan bizitzeari dagokionez, asteburuaren gaia, gauarena eta dibertsioarena, agertzen da. Nerabeen gurari eta itxaropen asko esperientzia berri horiei badagozkie, gaztelekuari egiten dizkionten eskaera asko horrekin lotutako zerbait eskaintzeari dagozkio. Oraindik ez dute eskatzen astebarruko beren esperientziak asteburukoetatik bereiztea. Helduen erresistentziei eta debekuei aurre egiten diete eta gaztelekuak bitartekari-lana bete dezan saiatzen dira: gurasoei mesfidantzarik eragingo ez dien (kontrola dago), baina nerabeentzako dibertsioa izango den (dibertsio autonomoa, zaintzarik gabea) eskaintza bat.

3. BALIO ANITZEKO ZERBITZUKO ARRETA ANTOLATU ETA PLANIFIKATZEKO PROPOSAMEN BAT

Zerbitzu baten eta honek gizarte- eta hezkuntza-esparruan eskainitako jardueren definizioak aurkitzen duen lehen eragozpena da zerbitzu hori kokatzeko konplexutasuna (zer egiten duen, zeinez arduratzen den, nola aritzen den, zein eskumenekin, zein lege-esparrutan, etab.). Eta bereziki zaila da hezkuntzaren logikan eta sozializatzearen logikan oinarritutako biziarentzako (haurrak, nerabeak) baliabideen kasuan.

Baliabide horiek gizarte-zerbitzuetan edo izaera klinikoa dutenetan nabarmen jarraitu ohi den logikan sartu behar dute maiz: hasteko, beren arretak xede duen biztanle-mota definitzen dute, urritasun, desoreka edo arazo jakin bat duten taldeak, erabiltzaile-tipologia bat. Zailtasunak dituzten subjektuen kategoria baten-tzako zerbitzuak edo baliabideak dira. Hemen, irizpide honek ez digu balio, jada esan dugunez, **nerabe guztiengana iritsi nahi delako eta nerabeen eskura egon nahi delako, arazo bat egoteaz jabetu ala ez.**

Neska-mutilez arduratu behar dela garbi ez dagoenean, muturreko egoerek definitzen dituzte bereziki baliabideak: babesik gabeko nerabeak edo delitu egiten dutenak. Tarteko egoerei erantzuteko bi kontzeptu zail eta konplexu hedatzen dira: arriskua eta prebentzioa; nerabeek "gaizki" amaitzeko arriskua eta etorkizuneko gaitzen prebentzioa. Baina hemen, gero nerabeentzako arretak zehaztu behar dituzten arau unibertsaletan ere aipatuko denez, arriskua ona eta erakargarria den zerbait bezala bizi dute, eta gure asmoa ez da ezer prebenitzea, aukeren eta suspergarrien bitartez etorkizun onak bermatzen saiatzea baizik.

Garrantzitsua da, bai, kontuan hartzea haurtzaroan eta nerabezaroan izandako aukera-desberdintasunen ondorioz sor daitekeen "amaiera txar" baten arriskua. Ildo horretan arduratzen dira ingurune irekiko hezkuntza-programak arrisku-egoeran dauden nerabeez. Horregatik **lana partekatze modu bat da nerabe horien eskura jartzea NBAZren baliabideak (gunea, harremanak, jarduerak) eta elkarrekin lan egitea, baliabide guztietara iritsi ahal izan daitezen eta komunitateko partaide izan daitezen.**

Halaber, bakoitzak egiten duenaren arabera edo zein erakunde edo talderekin lan egiten den nahiz horietako zeinetan aritzen den kontuan hartuta koka ditzakegu baliabideak ere. Eskola-uztearekin lan egiten dugu, familietan esku hartzen dugu, alkohol-kontsumoaren prebentzioa egiten dugu, etab. Nerabeentzako baliabideekin definitzeko edo kokatzeko modu hori ere ez da oso baliagarria, esku-hartze gehienek orokorra

eta egunerokoa denetik abiatuta zehaztu eta aplikatzea behar izaten dutelako (adibidez: nerabeen konfiantza bereganatu eta haiek eskolara itzultzea lortzen duen kaleko lan bat, gaztelekuko hezitzaile batekiko harreman onuragarria, ondo sentiarazten eta hurrengo urtean zer egin planteatzen diona).

Lehenago ere aztertu dugunez, nerabeekin era askotako jarduerak egiten ari dira eta, Balio Anitzeko Zerbitzua martxan jarrita, beste asko iradokitzen dira. Gainera, dokumentu honetan nolabaiteko arrazionaltasun partekatua proposatzen bada eta jarduera batzuek nolabaiteko lehentasuna izatea lortu nahi bada, beharrezkoa dirudi horri guztiari koherentzia emango dion esparru antolatzaile bat proposatzea.

Hemen proposatutako hiru dimentsioen arabera, Balio Anitzeko Zerbitzua osatzen duten jarduera guztiak zehaztu, ordenatu eta planifikatzeko, lurralde batean egiten diren jarduerak sailkatzen saiatzea proposatzen dugu. Horretarako hiru ardatz hartuko ditugu kontuan:

1. Baliabideak edo jarduerak zein **"bizi-testuingurutan"** eragiten duen, zeinetan garatzen den eta ari-tzen den.
2. Nerabeen zein **beharri**, haien zein eskaerari eta helduen zein eskaerari erantzuten dien
3. Baliabidea edo jarduera zein **motatakoa** den (zein aldaeraren bidez zehaztu daitekeen).

Adibidez, DBHtik (eta neurri batean nerabezarotik) irteten direnentzako orientazio-proposamen bat eskola-testuinguru batean (ez beti eskolan) ematen da, baina baita familia-testuinguruan ere (batxilergoarekiko obsesioa zuzentzeko eta autonomia bultzatzeko laguntza). Nerabeek beren burua argitzeko eta kokatzeko dituzten beharrei erantzuten die horrek. Laguntza- eta aholku-ekintzak izan daitezke edo denboran luzatutako bide-laguntza.

Aurreko atalean esan dugu testuinguru garrantzitsuak eragina sortzen duten aldaeren multzo gurutzatua direla. Orain horietako batzuk bereizi nahi ditugu, eragina zeinetan dugun edo izan nahi dugun argitzeko.

Bizi-testuinguru batean, gainera, tokiak (fisikoak, materialak), esparruak edo inguruneak (ez bakarrik non baizik eta zein girotan eta dinamikatan) eta harreman-elementuak (norekin) bereiz ditzakegu. Nahikoa artifiziala da nerabeen bizi-testuinguruak partzelatzen saiatzea, baina egin daitezkeen ekintzak eta lehen dimentsio honetan Zerbitzuak izan behar dituen osagaiak antolatzen eta egituratzen lagunduko digun proposamen bat egingo dugu.

I. ARRETAREN TESTUINGURUEN ARDATZA

A. TOKIAK (ematen dugun arreta nerabeak eratzten diren gune fisikoetan kokatu behar dugu)

1. Gela (familia-gunea)
2. Eskola
3. Elkarguneak
 - a. kalea
 - c. nerabeentzako toki instituzionalak
 - d. nerabeen berezko tokiak eta bereganatutako tokiak

B. HARREMAN NAGUSIAK	
	1. Berdinen arteko dinamikak
	2. Helduekiko elkarreragina
	a. familia
	b. nerabeez arduratzen diren profesionalak
	c. herritar helduak (auzokoak beren ikuspegiekin eta sozialki eratzeko moduekin)
C. INGURUNEAK. EREMUAK (guneak, dagozkien harreman eta giroekin)	
	1. Familia-ingurunea
	2. Eskola-eremua (eskolara joatearen eta eskolan egotearen inguruko harremanak eta giroak)
	3. Astialdiko eremuak, aisia, dibertsioa
	4. Ingurune birtualak

Gorago jarri dugun orientazioaren adibidean nola arituko garen sailkatzen eta zehazten saiatuko bagina (diseinatuta legokeen moduaren arabera) "A.3.c." bat dela esan genezake. Hau da, gazteleku batean egiten dugun arreta-proposamena da, baina "B.2.a." ere bada, gurasoekin lan egiten badugu. Nerabearengana hura dagoen lekuan benetan iristeko aukera ematen digun gunea erabiliko dugu eta lehentasuna pertsonala denari edo hura baldintzatzen duten harremanekin lotutako alderdiei emango diegun erabakiko dugu.

Beharren ardatza zehazteko, hezkuntza-harremanari buruzko kapituluan jada egindako proposamenak erabili behar genituzke.

II. BETETZEN DITUEN BEHAREN ARDATZA
A. Nork bere burua argitzea eta munduan kokatzea
B. Komunikazioaren eta etengabeko ikaskuntzaren gizartean ikastea
C. Sortzea, adieraztea, komunikatzea
D. Arriskuak kudeatzen ikastea
E. Autonomia eta erantzukizuna praktikitzea
F. Besteekin bizitzen ikastea

Ardatz honetan, orientazioaren adibideak, esate baterako, "A" motako beharrak beteko lituzke, nerabeari bere burua argitzen eta pixkanaka bere munduan eta orokorrean munduan kokatzen lagunduko lioke.

Egiten dugun hori zein arreta-mota den zehazteko, mota bakoitzean sortzen diren edukia eta dinamika deskribatu behar genituzke. Seguru asko arreta bat ere ezingo da kokatu mota bakarrean, baina agian baliagarria izan daiteke orientatzen ari garela diogunean zer egiten ari garen eta, adibidez, bide-laguntzarekiko zein desberdintasun dituen adostasunez zehaztea.

III. ARRETA-MOTAREN ARDATZA

Errealitate aldakorraren behaketa eta ezagutza aktiboa
Informazioa eskuratzeko suspergarriak
Denbora librea eta aisialdia aberasteko eskaintzak
Baliabideetara iristeko erraztasuna
Orientazio desberdinak
Taldeen dinamizazioa
Parte-hartzearen eta konpromisoaren dinamizazioa
Arreta eta laguntza puntualak
Beste arreta batzuen (beste profesional eta baliabide batzuenak) osagarri diren arretak eta laguntzak
Jarraipen pertsonalizatua
Bide-laguntza

Lurraldearen eta nerabeen aniztasuna kontuan hartuta, **NBAZk ez du baztertzen hiru ardatzetako aukeretako bat ere (guztiak hartzen ditu kontuan baliabideak diseinatu eta planifikatzean), baina lehentasuna ematen die haietako batzuei.** Elkargune guztietan pentsatzen du, baina gaztelekuari lehentasuna ematen dio. Nerabeen arteko harremanak hartzen ditu ardatz, baina haiei beste harreman batzuk hobetzeko aukera ematen dieten harreman onuragarriak ahalbidetzen ditu heldu desberdinekin. "Eremuen" artean, lehentasuna ematen die denbora ez-formalekin eta aisiarekin lotuta daudenei. Behar guztiei ematen die arreta, baina batez ere beste testuinguru batzuetan arretarik jasotzen ez duten horietako batzuetan oinarritzen da. Subjektu eta talde bakoitzaren errealitatearen eta unearen arabera, III. ardatzean deskribatutako arreta gehienak ematen ditu (beste baliabide batzuekin batera, lehentasuna emanez edo modu osagarrian), beharretan pentsatuz eta deskribatu ditugun helburuak kontuan hartuz ematen baitu arreta.

Baina, hiruretan zehazten diren aldaerak jarraitzen baditugu, zein testuingurutan esku hartzen ez dugun eta egin behar genukeen jakingo dugu, zein beharrei erantzuten ari garen eta zein modutan arduratzen garen ezagutuko dugu. Zehaztapen horrek zer egiten ari garen, norengana iristen garen eta beren bizitzei egiten diegun ekarpena benetan garrantzitsua den jakiten lagunduko digu.

4. BALIABIDE BAT, JARDUERA BAT, ESKU-HARTZE PROFESIONAL BAT NERABEEN BIZITZAN BALIAGARRIAK IZATEKO GILTZARRI BATZUK

Jada ikusi dugunez, sozialki eraturako biziaren baten arretak, esate baterako nerabezaroarenak, honako hauek behar ditu: a) nerabearen ezaugarrien, bere zereginen eta eginkizunen, bere beharren, eta gizarte-hezkuntzaren alorreko gure asmoen definizioa; b) nerabeari eman beharreko arreten proposamen antolatua. Baina, era berean, kontuan hartu behar ditugu **hori guztia egiteko erabili behar diren moduak.** Harremana, eragina eta antolaketa bereziak dira. Ez du balio edozein modutan saiatzeak. Baliabideen edo zerbitzuaren proposamenak beti ez dira baliagarriak eta eraginkorrak, giltzarri eta irizpide oso

garrantzitsuak ahazten dituztelako. **Nerabeei arreta emateko edozein moduk ez du balio.** Hezkuntza-eragina izaten saiatzeko edozein moduk ez du balio.

Nerabeekin lan egiteko oinarrizko hezkuntza-arauetako batzuk ez ditugu hemen laburtuko, baina Zerbitzua martxan jarri eta antolatzeke modua baldintza dezaketen alderdi batzuk azpimarratuko ditugu. Dokumentu honetan sei nabarmenduko ditugu:

1. Behaketa beti aktibatuta izan behar da. Nerabeekin lan egiten dutenek begiratzen, ikusten, behatzen, entzuten, galdetzen eta haien jokabideen esanahia ezagutzen ikasi behar dute. Haiengan eragin ahal izateko argi utzi behar dugu beren munduak eta mundu horiek bizitzeko dituzten moduak axola zaizkigula.
2. Denerako izan ditzakete beren "argudioak". Gure arrazonamenduak ez dira nahikoak. Arrazoa izan ala ez, egiten dutena arrazoitu, sentitu, bizi eta baloratu egiten dute, ekintza-segidak sortzen dituzte egiten dutena interpretatzeko eta ondo interpretatzeko. Ez da nahikoa "mariari" buruz gure argudioak ematea, ia gaitz guztientzako erremedioa dela zergatik uste duten jakingo dugu ezinbestean. Jakitea, ulertzea, ez da justifikatzea, baina eragina izateko modu bakarra da.
3. Haiekin beraiek dauden tokian egon behar da beti, batzuetan lortzen da haiek guregana etortzea, baina hasteko beti haiengana joan behar da. Beti egongo gara haiekin lehen harremana non sortu erabaki ezinik. Nerabeekin egin beharreko lanaren zati handi bat haiek beren borondatez nahiz derrigorrez dauden gune batzuetan presentzia garrantzitsuak (ez inbaditzaileak) ezarriz hasten da beti. Lanaren zati bat eskola-eremuetatik, kaletik eta elkarguneetatik pasatzen da. Martxan jarritako edozein baliabidek nerabeekin izandako partaidetzazko harreman-prozesu batetik sortu beharko du edo, gutxienez, hasiera batean baliabidearen "salmentatik" edo haren funtzionamenduan parte hartzetik. Kontuan hartu behar dira beti harremanaren antolaketa- eta estilo-elementuak, gutxienez neurri batean, berea dela senti dezaten, bere egin dezaten (berdin balio du eskolarako nahiz ekipamendu baterako).
4. Arreta oro normaltasunaren logikatik eman behar da eta ez patologiatik. Nerabeak ez dute bizi beren burua "gaixotasun" baten edo besteren eramaille moduan, gehienez ere egonezin-maila desberdinetan murgilduta daude. Haiei arreta emateko ez dira beharrezkoak diagnostikatzea eta horren ondorioz us-tezko baliabide egoki batera bideratzea. Etiketa askok nerabea eratzen ari den identitatea sailkatzea besterik ez dute lortzen. Ez dira arazo jakin bat, baina gehienek uneren batean arazo-egoera bat bizi dute (intentsitate, aukera eta iraupen oso desberdinekin). Zailtasun handiak izatera iristen diren neska-mutil gehienek nerabe guztientzako baliabideetan arreta abegitsuak eta onuragarriak jasoz bakarrik has dezakete arreta bereziko prozesu bat.
5. Nerabe-izaera adingabetasunaren egoera sozial eta juridikoan harrapatuta dago, baina, praktikan, arauak ez dute argi gu gabe zer egin dezaketen eta zer ez. Hezkuntza-logikak arduraren printzipioa izan behar du beti buru: hau da, arduratsu direla pentsatu behar da eta beren jokabideei ematen zaizkien erantzunek arduratsu bilakatu behar dituzte. Ez dira haurrak, ezta tutoretzapeko subjektuak ere. Beren bizitzaren esparru guztietan pixkanaka eta (helduen) modu desberdinean arduratsu bilakatzen diren subjektu gisa tratatu behar ditugu. Nerabeekin lan egitea da haien inplikazioa suspertzea, era-

bakiak hartzera bultzatzea, beren hutsegiteak onartzea, akats horiei erantzutea, beren jokabidea bere egiten (aitzakiarik bilatu gabe) laguntzea, munduaren zilborra ez direla onartzen eta beren jokabideak besteengan eragina duela jakiten laguntzea.

6. Neurri handi batean, nerabeen bizitzan eragina izateko hurbileko pertsona heldu eta onuragarriak behar dira haien inguruan. "Hurbilekoa" da funtsean maila berean dagoen heldu bat (ez berdin bat), hurbildu eta urrundu daitekeena, baina beste galaxia batekoa ez dena. Harengana jo dezakete beren munduarekiko interesa duelako eta mundu horretara gerturatzeko prest dagoelako. Nerabe batentzat onuragarria da bere bizitzaren eboluzio onean konfiantza erakutsiz hurbiltzen zaiona, oraingo eta etorkizuneko arazorik zehaztu gabe.

5. ANIZTASUNA, IRUDI SOZIALAK ETA GATAZKAK

Nerabeak (nerabe gisa, ez pertsona gisa bakarrik) era askotakoak dira eta haiei arreta emateko moduz hitz egitean beti agertzen dira honako galdera hauek: zein nerabe-mota etortzen dira baliabideetara? zeintzuk ez dituzte ezagutzen? zein ez dituzte erakartzen? edo zeini iruditzen zaio kontraesankorra gure proposamena?. Baina, galdera horiei erantzuteko berriz ere kontuan hartu behar dira hasieran aipatu ditugun lurraldearen aniztasuna, esperientzien aniztasuna eta berezitasun demografikoak.

Herri txikietan eta auzo zehatzetan denetik joaten da (nahikoa nerabe eta daudenak bezain anitzak edo homogeenak). Beste batzuetan, aldiz, joera nabarmenak daude eta horrek beste batzuk etortzea nola lor daitekeen pentsatzera eramaten gaitu. Lokal batzuetan "euskalpijoak" dira nagusi, besteetan "latinoen" presentzia handia da, edo beste batzuetan tentsioak daude zailtasun sozialak dituzten gutxi batzuegatik. Batzuetan ikastola batekoak joaten dira eta besteak ez eta, hala, nerabeen artean alde aurretik dagoen banaketa bat gaztelekura eramaten dute. Zenbaitetan, jada aipatu dugun homogeenotasun nagusiaren, inposatuaren eraginez, guztiak joanda, gaztelekua izango da nerabe-praktika bereizgarriak izateko aukera ematen duen leku bakarra. Migrazioa bizi izandako nerabeak dauden toki gehienetan horiek ez dira izaten baliabidearen erabiltzaileak. Konpondu gabeko arazoa izaten jarraitzen du, arrakasta baino porrot gehiagorekin, gaztelekuetara nerabe ezgaituak joatea.

Esan daiteke, gazteleku askotara denbora beteta ez duten (bete ez dieten) nerabeak joaten direla, bai ikasketekin harreman zaila dutenak, bai eta ikasketetan bikainak direnak, ez oso sozialak direnak eta konprometituak eta parte-hartzaileak direnak ere.

Azpimarratu dugu nerabea talde-subjektu bat dela, horregatik du halako eragina koadrilak. Batzuk koadrila etortzen delako etortzen dira. Beste batzuk bakarrik daudelako eta koadrilarik ez dutelako. Koadrila bateko pertsonaia adierazgarriak etor daitezten lortzea koadrila osatzen duten nerabeak etor daitezten lortzea da. "Bakarrak" etor daitezten lortzea koadrila izateko aukera ematea da. NBAZ zabaltzeko estrategiek diskriminazio positiboko beren dosia izan behar dute, informatu gabe edo konektatu gabe daudenengana iristeko ekintzak behar ditu, kontuan hartuta ez direla modu berean hurbiltzen, esate baterako, neskek eta mutilak.

Desberdinen arteko tentsioetan alderdi bat nerabetasunari dagokio (honek ze uste du...) eta beste alderdi bat gizarte-tentsioen (ekonomikoak, kulturalak, ideologikoak) isla da. Baina, zailtasun handiena lotuta dago helduen gizartera iristen den irudiarekin (gaztelekuak edo NBAZk zertarako balio duen erakusten du; seme-alaba nerabeak desegokitzen edo lagun txartzat hartzen diren nerabeekin zein neurritan bizi daitezkeen erakusten du) edo helduen gizarateak gaztelekuaren "eredutzat" definitzen duenarekin.

Sortu (arduradunentzat eta helduentzat azaldu eta kokatu) beharreko irudiaren beste zati bat tarteka aldizka gerta daitezkeen nolabaiteko intentsitateko gatazkak kudeatzearekin lotuta dago. Baina, NBAZk gatazkak malgutasunez kudeatu ahal izateko baliabide bat izan behar du. Batzuetan nahikoa da argi uztea jokabide jakin batzuk "barruan" ez direla onartzen eta atletik metro batzuk harago eztabaidagarriak izan daitezkeela hezkuntzaren aldetik. Nerabe-egoera guztiak NBAZn kudeatu ezin diren arren, ulertu behar da leku ez oso instituzionalizatua dela eta nerabeari hezkuntzaren alorrean benetako aukera desberdinak ematen dizkiola.

Batzuetan irudi soziala itxuraz lokala monopolizatzen duen talde batek finkatzen du: *ijitoak joaten dira, handiak joaten dira, txikiak joaten dira, eskolan arazoak dituztenak joaten dira,* joaten dira. Batzuetan helduek zehazten dituzten arazoaren unibertso "kontsumoak" dira ardatza, nahiz eta horiek kanpoan gertatzen diren edo hain zuzen gaztelekuan ez daudenean nerabeek ohiko dituzten portaerei dagozkien. Irudi "txar" hori ez emateko, NBAZk ez ditu bazterrean utzi behar, beren burua sendotzeko gatazkaz baliatzen diren, bizirik daudela frogatzeko arriskatu egiten diren, probatu eta esperimendu egiten duten pertsonaien oinarrizko jokabideak; izan ere, nerabeak direlako egiten dituzten horiek guztiak. Horrek helduekin egin beharreko lanarekin eta nerabeak hezi daitezkeen ala ez eta nola hezi behar diren erabakitzearekin du zerikusia. Argi utzi behar da NBAZ ez dela familiak edo auzoak bere nerabeengan duen kontrolaren luzapena.

Azkenik, sortu edo eman beharreko irudiaren beste zati bat proposamenak beraiekin zerikusirik ez duela pentsatzen duten neska-mutilentzat proposamen hori bera erakargarri egiteari dagokio. Era berean, helduei azaldu behar zaie NBAZ nerabeentzako lokal huts bat baino gehiago dela.

VI. GUNEAK, JARDUERAK, BIDE-LAGUNTZAK
VI. GUNEAK, JARDUERAK, BIDE-LAGUNTZAK

1. NERABEENTZAKO EKIPAMENDUAK. GAZTELEKUTIK LOKALETARA

“ Eta mezu bat bidali zitzaion alkateari, ea non egotea nahi zuen, edozein tokitan enbarazu egiten dugu eta” .

“Nerabeen lokala” harreman batzuk sendotzeko eta beste batzuk sortzeko aukera ematen duen “gune” horietako bat da; nerabeak dituen hainbat hezkuntza-beharri erantzun diezaieke eta abiapuntutzat har daiteke nerabeei eskaintzak egiteko, dinamizatzeko, orientatzeko, etab. Kontsumo desberdinen, helduen kontrol eta lasaitasunen, “edukiontzi” bat besterik ez izan daiteke edo **era askotako hezkuntza-aukerak (balio anitzekoa) dituen “ekipamendu” garrantzitsua izan daiteke**. Auzoan nahiz herrian nerabeekin eta nerabeentzat egiten den horrek ekipamendua izan behar du erreferentzia (gogoan izan: gunea, ekintzak eta jarduerak, profesionalak).

Ez dugu ahaztu behar elkarguneei dagokienez gazteria-politikan (nerabeak eta gazteak) beti nagusitu den tentsio-lerroa, Nerabeen eskaera eta behar askori erantzun nahi dienean, lerro horren mutur batean daude gazteentzako jardueren lokalak, zorrotasun gehiago edo gutxiagorekin baina helduen logikarekin kudeatuak, eta beste muturrean daude autokudeatutako gune alternatiboak. Tartean, era askotako formatuak eta tokian tokiko zehaztapen desberdinak sartzen dira.

Erreferentzien tokia

Gogora dezagun, lehenik eta behin, “erreferentzien” lekua izan behar duela, edo gune fisikoari lotutako erreferentzia-multzo bat ahalbidetu behar duela. Gunea bera tokian tokiko erreferentzia bat da (Ni beza-lakoak direnak, egon daitezkeenak, egin dezaketenak doaz) eta kontu berezia izaten du bere antolaketan, jardueretan, guneen banaketan eta erabilera-moduetan nerabeentzat ere erreferentzia izan dadin. Gune horrek nerabeen aniztasunerako ere izan behar du (ez du izan behar bizimodu jakin baten gune adierazgarria bakarrik). Nerabeen eta nerabeentzako leku bat da.

Jada esan dugunez, erreferentziak gainera zerikusia du ekipamenduko pertsona helduek nerabeekin lan-tzen dituzten harremanen “estiloarekin”. *Ni bezalako jendea ezagutzen dute, ni kezkatzen nauen horretan interesa dute eta behar dudanari buruzko informazioa ematen didate, guk proposatzen dugunarekiko jarra-ira irekia dute*. Administrazioaren gune bat izanik, elkargune gisa eta beren espazio gisa sentitu ahal izateko inplikazio-ereduak eta kudeaketa-ereduak nola lortu jakitea da arazorik handiena.

Aurrerago itzuliko gara gai honetara, baina ez dezagun ahaztu lokalean dauden pertsonak, edo lokalarekin lotuta daudenak, nerabeentzat erreferentzia puntualak nahiz egonkorrak direla edo izan daitezkeela. *Beraiekin ondo moldatzen diren hezitzaileak daude han*. Gainera, nerabeekin harremanak dituzten beste profesional batzuk era normalizatu eta onuragarrian ezagutzeko garrantzi bereziko lekua izan behar du. Nerabeak bere eskura dagoen hurbileko profesional baten aurpegi pertsonalizatua aurkitu behar du ekipamenduari lotuta.

Nolanahi ere, gune “ezaguna” izan behar du eta, beraz, nerabeak dauden beste gune eta testuinguruen

arteko lotura-sistemak planifikatu behar dira eta leku ezaguna izatera iritsi behar du, nerabeentzako hainbat jarduera (aisiarekin lotuta daudenak bakarrik ez) bertan izaten direlako.

Gunearen funtzio nagusiak

Gune hori definitzeko (bere espazioaren banaketa, erabilera-moduak eta egin daitezkeen ekintzak pentsatzeko), kontuan hartu behar da, gutxienez, **lau funtzio betetzen dituela**:

1. **"Egoteko" eta berdinak direnekin egoteko** gune bat da. Hain zuzen ere nerabeentzako gune bat delako, aurreikusi egin behar da maiz ez dutela ezer nahi, ez dute ezer adierazten, kezka berezirik gabe egon besterik ez dute egin nahi. Ekipamenduak zentzuzko "asperraldiak" eta ez aktibo egoteko aukerak eskaini behar ditu, profesionalak zain egon behar dute. Horrek normalean gehien erabiltzen den altzaria "sofa" izatea esan nahi du. Egote horretan bertako helduek hiru gauza egin behar dituzte: nerabeen "geldotasuna" gaizki ez interpretatu; behatu, distantziaren eta muturra sartzearen arteko oreka aurkituz; eta "jardueraz" aldatzera "behartuz" geldotasuna haustea eragin.
2. Gune horretan **nerabeentzako gauzak egiten dira**. Leku hezitzailea da; nerabeen beharren arabera pentsatutako eta egituratutako (gero hitz egingo dugu jarduera edo ekintzez) plangintza bat dagoen neurrian eta plangintza horrek formatu pedagogiko eta didaktiko espezifikokoak dituen neurrian. Askotan haien ustezko "ez gurariak" gure plangintzekin konektatu ahal izatea da arazoa. Batzuetan egote hutsa negoziatzeko erabili behar dira proposamen horiek.
3. Gune horretan **nerabeek gauzak egin ditzakete**, era askotako proiektu pertsonalak nahiz taldekoak burutu ditzakete; zerbait egitera joan daitezke eta zerbait egiten egon daitezke. Bertan baliabide batzuk modu berezian aurkitzen dituzte (adibidez, komunikazioaren gizartearekin edo musika-alorrean dituzten interes eta praktikekin lotutako batzuk). Aukera honek badu eragozpen bat: dinamizazioa. Izan ere, dinamizazio hori normalean ekipamendua ez den beste testuinguru batzuetan eman behar da lehenago.
4. Gune hau nerabeekin harremanak dituzten **beste profesional batzuek erabili dezakete**, haiekin ekintza eta jarduera desberdinak burutzeko, beren dinamizazio-lana gauzatzeko. Profesional batek lortzen (edo hitzartzen) badu nerabe-talde batek zerbait egiteko erabakia hartzea, gune honek "non egin" galderari erraz erantzuteko balio behar du.

Oinarrizko gunea

Lau funtzio horiek bete ahal izateko, egitura estandar batek dirudienez bereizita dauden hiru gune izan behar ditu gutxienez:

- a. egoteko, elkar topatzeko;
- b. jarduera desberdinak egiteko;
- c. sarea, mundu digitala, musikakoak eta multimedia erabiltzeko.

Gaur egun martxan dauden esperientzia gehienek, osagarri moduan, "sukalde" bat izatea zein garrantzitsua den azpimarratzen dute. Bereziki erakargarria da nerabeentzat eta, harreman oso desformalizatuen lekua denez, batez ere komunikazio-maila handia izatea errazten du.

Egiturak, une batzuetan gutxienez bi "adin" desberdineko taldeak bananduta hartzeko aukera eman behar du. Gainera, astebarruko eta asteburuko jarduera desberdinetara egokitu ahal izan behar du. Gunea bakarra eta irekia bada, talde bakar batek guztia monopolizatu dezake.

Nolanahi ere, guneha hauek nerabeek ez dituzte aurkitzen beren ingurune edo beste erakunde batzuetako "trabak". Ekipamenduan nerabeen eskura jartzen ditugun proposamenek eskolan edo etxean ezinezkoak diren suspergarriak eta informazioak komunikatu, sortu, ikasi, egin eta jasotzeko aukera eman behar dute. Horretarako, nerabeen inplikazioa behar da, eta ezinbestekoa da neurri batean bere egin duten edo bereganatu duten gunean gustura sentitzea.

Hasi berrientzako lokala, laster joango direnentzako lokala

Nerabeek beraiek gogorazten digutenez, 12tik 18 urtera bitartean mundu asko daude. Gauza bat da NBAZK nerabe guztientzako arretaz egiten duen kontzeptualizazio orokorra eta beste bat, oso desberdina, adinak, heltze-erritmoak, talde batean zein bestean integratuta egotea, etab. kontuan hartuta lan egiteko moduak. Gazteleku batzuek arazoak dituzte "txikiak" erakartzeko. Beste batzuetan zailtasuna "handiak" geratzea da (zenbaitetan, 18 urterekin joateko). Funtsean oraindik jolastu eta oihu egiten dutenak eta funtsean egonean egon nahi dutenak elkarrekin bizitzea kudeatu behar da. Testu honetako beste gai askotan bezala, guneen kontua ere adinarekin lotuta dago eta, konplexua den arren, komeni da pentsatzea nerabearoko lehen urteetan elkargunea eskaintzeko zein parametro-oro har gazteen gunearen imitazio hutsaren ondoriozkoak izango ez direnak erabiliko ditugun.

Trantsizio desberdinen zati bat bereizitako elkarguneetara joan ahal izateak sinbolizatzen du (hautxokotik gaztelekura pasatzea eta gaztelekutik gaztegunera). Nerabe-izaerak, bi baldintzatzaile sortzen ditu: neska-mutilek direna bezala, nerabe gisa, tratatuak izan nahi dute; hezkuntza-harremanaren helburuak eta arauak ez dira aurrekoak bezalakoak, ezta gerokoak bezalakoak ere. Horregatik kontuan hartu behar ditugu, nerabeei dagokiena gazteei dagokienetik bereizteko kezka sistematikoa oinarritzat hartuta, honako hauek:

- Hasieran nerabearoaren barnean bereizi ditugun aldiek badute beren koherentzia, eta erabateko nerabetasunak eta gaztetasunak behar eta dinamika desberdinak dituzte. Gainera, arretaren arrazoiak bestelakoak dira.
- Neska-mutilek adierazi dutenez, nerabearoan barrena aurrera egin ahala ez dute nahi haurtzarotik atera berriak direla gogoraraztea, egoera horretara "iritsi" berriak diren txikienekiko desberdin sentitzen dira. Gainera, pixkanaka gazteak bezalakoak izan nahi dute eta, bereziki, haiek egiten dutena egin ahal izatea nahi dute. "Txikiak" harrituta, larrituta eta "handienek" egiten dutenak erakarrituta sentitzen dira. Aldiz, gazteek ez dute nahi beren nerabearoko "erokeriak" nabarmentzea eta nerabeekin gogor jokatze edo bereziki kritikoa izateko joera dute.

- Gune eta jarduera askok argi eta garbi desberdinduta egon behar dute; horrek ez du esan nahi tarteko guneak eta jarduerak egon ez daitezkeenik, edota batzuen eta besteen arteko trantsizio-prozesuak formulatu ezin direnik. Normalean batzuek zein besteek beren taldeak dituzte dinamika desberdinekin.

Batzuek eta besteek baliabidea nonbait bere egin edo senti dezaten lortzeko, neurri batean bereizita edo desberdinduta dauden guneen, jardueren eta ordutegiaren konbinazio bat pentsatu behar da. Era berean, aintzat zehazki adinak hartu beharrean talde bakoitzak jarraitzen duen "adin-dinamika" hartu behar da kontuan. Ezin da dinamika homogeenoa bat izan eta Zerbitzuak duen hezkuntza-asmoak, sozializazio proaktiboan eta autonomiaren lorpenean oinarrituta dagoenak, honako dinamika hau iradokitzen du: lehen adinetan nerabeek jardueren proposamenak jasotzea nagusitzen da; gero haiek proposatu eta elkarrekin egiten dugu; ondoren lagundu egiten dute. Nerabezaroaren azken fasean beste batzuek arduratzeko lagundu behar dute, jarduera publikoak antolatu, desastre bat atera arren, esparru publikoaren izar sentitzen utzi behar zaie. Azken batean, "heltzen" lagundu behar zaie, erantzukizunak emanez eta baliagarri sentiarazten.

Ordutegiei buruz

Hemen ere tokian tokiko desberdintasunak eta auzoen errealitateak gogoan izan behar ditugu; baina NBAZ guztientzat baliagarriak izan behar lukete honako irizpide hauek:

- a. Astelehenetik ostiralera irekitzea, arratsaldean ordutegi zabalean. Talde desberdinentzat ordutegi desberdin samarrak jar daitezke (sartzeko eta irteteko).
- b. Ezin da alde batera utzi asteburuetakoa gaia. NBAZren lokalak ezin du izan betebeharren egunetako gunea bakarrik. Aisialdi-modu desberdinen erreferentziak ere eman behar ditu. Jada adierazi dugunez, beren nerabe-izaera berriaren ardatza da gai hori. Herri bakoitzean, nerabeen "mobiden" arabera, urteko garaiaren arabera, proposamen bat bilatu behar da (betiere eragin onuragarria izateko xedez, ez kaletik arazoak kentzekoa). Kontraesana dirudi NBAZren guneak eta jarduerak asteburuetan bakarrik martxan jartzea.
- c. Beste ordutegi batzuk erabiltzeko aukera izan behar da, beste profesional batzuekin egiten den lanaren arabera. Esate baterako, ingurune irekiko programetako hezitzaileek aukera izan behar dute talde jakin batzuekin jardueraren bat egitea planteatzeko. Goizez, adibidez, zentzua izan dezake eskolara joaten ez direnak elkartzeko gune puntual gisa. Era berean baliagarria izan daiteke gero aipatuko ditugun informatzeko eta orientatzeko zereginetan ere.
- d. Beste profesional batzuentzako erreferentzia-testuinguru bat izan behar duen neurrian, profesionalen arteko topaketetarako ordutegiak izan behar ditu. Bertan hezitzaileak izaten dira neraberik ez dagoenean ere.

Ezin zaie guztiei arreta egokia eman

NBAZren oinarrizko hiru funtzioak betetzeko ardura profesionaleko denbora egokiak behar dira. Hasteko, hobe da aurrerago aipatuko den hezkuntza-harremanetarako erreferentzia, gutxienez, bi profesionalengan izatea eta ez bakar batengan. Hala, partekatatu eta elkarrizketan aritu ahal izango da, nerabeari lotura-aukera bat baino gehiago eskainiz.

Lurralde edo eremu bakoitzaren idiosinkrasia kontuan hartuta, arreta egokia zenbat neraberi eman ahal izango zaien hainbat kopururen arteko konbinazioa da beti: zerbitzura besterik gabe joan egiten direnen, egotera joaten direnen, kopuru orokorra, alegia behaketako, dinamizazioko eta bizikidetzako arreta eman behar zaien kopuru orokorra; bultzatu ditzakegunen, gure arreta beren zalantza eta krisietan behar dutenen kopurua; edo aldi batez, beste profesional batzuekin batera, jarraipen handiagoa behar dutenen kopurua. Kategoria horietako batek gora eginez gero, ez da denborarik ezta ardurarik ere geratzen bestentzat, baina ez da bat ere baztertu behar.

Kopuru orokorra guneak eta baliabideek markatzen dute, baina inoiz ez du gainditu behar profesional guztiek bakarka ezagutu eta haien nerabearoa nola garatzen den behatu ahal izateko moduko kopurua. Eragina izan, iradoki, adore eman eta laguntzeko moduko taldeak agian bi edo hirukoak izan daitezke profesional bakoitzeko. Jarraipen sakon samarra egiteko, seguruenik ez dute hamarna nerabe baino gehiago izan behar profesional bakoitzeko.

Gainera, jada aipatu dugunez, profesionalen taldeak bere arduren artean aurreikusita izan behar ditu talde-lana eta sare-lana.

2. GUNE BAT BESTE GUNE BATZUEN ARTEAN


NBAZ gaztelekua baino gehiago da eta gaztelekua lokal bat baino gehiago da. Azken hori ez da nerabeen lokal bakarra (ezta nerabeak elkartzeko eta nerabe izateko leku bakarra ere, kalea ere hor da); izan ere, beste lokal batzuk ere badituzte eta horien artean bereziki azpimarratzekoak dira nerabe-taldeek kudeatzen dituzten "lonjak", "etxabeak" eta antzekoak.

Finkatutako nerabearoaren (15-18) eta nerabe ondokoaren (18-20) artean askok beren lokalak kudeatzera jotzen dute. NBAZk lokal horien zeregina kontzeptualizatu behar du eta haietan dauden nerabeekiko harreman-estiloa zehaztu behar du. Ez du balio ez ikusiarena egitea ezta gaztelekuan zerbait gehiago eskaintzen diegula esatea ere.

NBAZk erreferentzien (helduena, berdina) gune nagusia izan nahi du, baina horrek ez du esan nahi inolaz ere haietzako nerabeen gune bakar eta nagusia denik, ezta are gutxiago helduen presentzia, arreta eta esku-hartzea eman behar diren gune bakarra denik.

Berrero ere aintzat hartu behar ditugu nerabeen bizitzako (eragina izan dezakegu horietako bakoitzean moldatzeko moduan) hiru gune-mota nagusien arteko dinamika eta eraginak:

3. grafikoa NERABEEN GUNEA



Gogoan izan dezagun nerabezaroa nerabe-izaera praktikatzeko denbora luzea dela eta saiakuntza eta ikas-kuntza horrek eremu desberdinak behar dituela. Horietako asko eskolan gertatzen dira, beste batzuk kalean eta besteak era askotako lokaletako lau hormen artean. Hurrengo atalean "kaleari" dagozkion hainbat alderdi zehaztuko ditugu. Orain gogora ekarri behar dugu kontua ez dela nerabeentzako ekipamendua mar-txan jartzea, helduek nahi duten bezala, haiek kalean ez egoteko. Helburua beste bat da: ekipamenduak eskaintzen duen gune horrek aukera eman behar du nerabeak kalean egon behar ez izateko, joateko eta egoteko beste tokirik ez dutelako bakarrik. Gune horren estiloak eta ez oso instituzionalizatua izateak nera-beak kalekoak bezain bere sentitzea ahalbidetu behar du.

*"Jokabide esperimentatzaileen, norberaren egoera berria sendotzekoen, izaerak sortzekoen, ebolutiboen eta heldutasunera eramaten dutenen errepertorioa oso zabala da, taldeen artean oso anitza, eta leku desberdinen artean banatu behar da (etxea, hezkuntza-eremua, eremu instituzionalak, kalea, gazte-eremuak, etab.). Horietako bakoitzak bere arauak eta bere logikak ditu, bakoitzean portaera jakin bat izan liteke ala ez, harreman jakin batzuk izan daitezke ala ez, norberaren egoera berrira hobeto egokitzeak aukera izan daiteke ala ez"*⁵.

Nerabe-izaera dela-eta, alde batetik gutxi gora-behera ondo sentitzen dira toki informaletan, arautu gabee-tan, helduenak ez direnetan eta, bestetik, ezin dira erraz sartu beren "txiki" izaera oztupo den beste leku batzuetan. Horregatik hartzen dute halako garrantzia borondate ona izaten den gune pribatuek (berezi-ki tabernak) edo publikoek (kultura-etxeak, gizarte-etxeak, kirol-eranskinak, etab.): alegia, kontsumitzeko

⁵ Funes, J. (2008). *Reencuentro en clave joven. Respuestas impertinentes a preguntas pertinentes sobre los jóvenes, la diversión y las drogas*. Portugaleteko Udala

ahalmen gutxi duten arren eta arauak betetzean ardura gutxi erakusten duten arren, toki horietan beren presentzia onartu egiten da nolabait.

Nerabeen lokalak

Balio Anitzeko Zerbitzuan nerabeentzat izan behar diren gunez hitz egitean, hausnartu egin behar dugu zein eratako harremana planifikatu behar dugun nerabeek (bereziki beren nerabearoko azken urteetan) bereganatu egiten dituzten gune horiekin lan egiteko. Kalearen xarma izateaz gain, berezko gunea (lonja, utzitako lokala, aprobeixatu nahiz okupatutako gunea) kalea baino erosoagoa da, eta bertan beste jarduera batzuk egin daitezke, helduekin izaten diren tentsioak ekiditearekin batera. Ez dira tabernak, ezta kalea bera ere. Egon, egin eta partekatze hainbat eratako guneak dira; nerabe-aisia hasiberria praktikatzeko, kalean egiten uzten ez dietena egiteko, eta baita beste jarduera "serioago" batzuk burutzeko ere.

Beste lokal horien gaiari herritar helduekin sortzen dituzten tentsioen ikuspegitik heltzen zaio herrietan. Tentsioak sortzen dira, ez bakarrik bizikidetzaren-arazoengatik, baita lokal horietan, helduen begirada eta kontrolatik ezkatututa, egiten dutenak eragindako "kezkengatik" ere. Erlazio anibalentea dago kaleetan nerabeen presentzia onartzearen-gaitzestearen artean eta beren lokaletan gordetzen direnean egiten dutenak eragindako kezkaren artean.

Agian nerabeen presentzien "continuum espazial" bat pentsatzea izango da zentzuzko irizpidea. Continuum horretan kokatuko genituzke lokal instituzionala (betiere nerabeentzako ezaugarriekin eta haien parte-hartzearekin); lokal instituzionala (gutxienez jatorrian) baina autogobernu-mailak dituena; nerabeen berezko lokala; eta zenbait ordutegitan nerabe batzuen edo gehienek presentzia garrantzitsua duten gune publikoak. Nerabe guztiak ez daude denetan eta gehienetan harreman eragingarri bat sortzen saiatu behar dugu (gutxienez, nerabeen bizitza publikoan presentzia ez gatazkatsua izaten). Guztietan helduen nolabaiteko "presentzia" behar litzateke.

Batzuk gaztelekura etortzea ondo legoke. Batzuk beren lokaletatik irtetea ondo legoke. batzuek beren lokala eduki ahal izatea ondo legoke (berez lagun-sare on bat ez dutelako, eta gaztelekuak sare hori sortzen laguntzeko balio du; batzuetan "gatazkatiak" dira gaztelekuan jarraitzen dutenak lokalik aurkitzen ez dutelako). Zenbaitetan harremana eremu birtualean sor daiteke, gehienek erabiltzen duten sare sozialean. Eta beste batzuetan lana batez ere auzokoekin edo gurasoekin egin beharko da.

NBAZ diseinatzean bereizi egin behar ditugu nerabeen guneetan muturra sartzea zer den eta hurbiltasuna lantzea eta harreman-aukeren eskaintza irekia, pixkanakakoa eta anitza egitea zer den. Zertan dira desberdin gaztelekua eta nerabeen lokala? Bietan sofa bat dago eta bietan jolas dezakete play-an. Baina gaztelekuan, gainera, honako hauek daude: harremanak sortzeko beste neska-mutil batzuk; ezagutzen dituzten eta beren bizitzarako baliagarri ikusten dituzten hainbat heldu desberdin; eta porrotik, play-etik eta kalimotxotik harago doazen ondo pasatzeko beste aukera batzuk.

Dibertsioa zapuztuko dien heldu gogaikarrik ez egotea da lokal baten funtsa. Aldi berean, baldintza hori heldu "bitartekari" baten presentzia modulatuarekin batera daiteke. Heldua beste baliabide batean eza-

gutuko dute, baina muturra sartu gabe "ager" daiteke, gatazkak kudeatzeko laguntza eskaintzeko edo laguntzeko (ezagutzen zaituztelako uzten dizute bertan egoten, haientzat norbait zarelako). Gutxienezko harreman onuragarri bat haiek bisitatzean datza, zein diren ezagutzean, harreman-sare bat sortzean, bizikidetzarako protokolo bat (batzuetan araudi bat) proposatzean, helduen hainbat irudi instituzional bi alderdiek onar ditzaten lortzean. Gutxienez nolabaiteko etengabeko bitartekotza-harreman bat sortu behar da. Guk egindako "guneen" plangintzan nola sartzen diren pentsatu behar dugu eta, edonola ere gune horiek okupatzen dituztenekin harremana izateko, suspertzeko eta lankidetzan aritzeko moduren bat landu behar dugu. Horrez gain, ezin dugu ahaztu "bestelako lokal" horietan ere talde-dinamikak, elkartasunak eta erantzukizunen ikaskuntzak gertatzen direla.

Halako harremanak sortu ahal izateko, nerabezaroan nola sartzen diren landu behar da, gaztelekuan ere beren "lekua" nola aurkitu jakin dezaten. Hala, beren nahasteak ulertzen dituzten eta une zailtan laguntzeko prest dauden helduak, eta ez errietak, daudela ikusiko dute. Heldu guztiengandik urrun dagoen leku bat desiratzen ez hastea lortu behar dugu.

3. NBAZ-N HEZITZAILE-LANA EGITEA.

Erreferentzia onen sorrera ahalbidetzea

Gaztelekuan dauden profesionalak zer egiten duten edo nola egiten duten hausnartzeko, lehenik eta behin haien benetako zeregina gogoratu behar da: hau da, **nerabeen bizitzen zati batean, haiek zer diren eta zer izan nahi duten onartzen duten pertsona helduen eguneroko presentzia ahalbidetzea**. Batzuetan, nerabezaroan, neska-mutilen bizitzaren lekuko onuragarriak (arrera egiten eta arreta ematen dietenak) besterik ez dira izaten. Beste batzuetan, interesa duen eta galdetu egiten duen norbait. Besteetan laguntza ematen eta bidean laguntzen dutenak. Nolanahi ere, norbaitentzat garrantzitsuak direla egiaztatzen dute.

Nerabeek lokala lehenik eta behin egoteko lekua dela dioten bezala, profesionalen lehen egitekoa ere egotea da (bertan, erne, prest, suspertzen). Profesionalak azpimarratzen dutenez: *"Eskaileretan eserita, prest, egoten ikastea da"*. *"Sukaldea" primerako tokia da behatzeko, entzuteko, hitz egiteko*. *"Batzuetan mahai-futboleak jokatzen irteten da gaia"*. Lehen esaldi bat jasotzen, uneak aprobetxatzen, jakin behar da.

Gero harremanaren lana dator, talde bakoitzarekin, nerabe bakoitzarekin harreman egokia sortzekoa. Bakoi-tzak begirada desberdin baten xede dela, arreta pertsonalizatua duela ikusi behar du eta, kasuari eta uneari hala badagokie, arreta egokia jasotzen duela. Sortzeko eta elkartzeko guneak prestatu behar dira. Aurretik, behatu egin behar da, beharrak antzeman eta arreta hurbildu. Denbora eskaini behar zaio entzuteari.

Neska-mutil guztiarentzat profesionalak pertsonaia onuragarriak dira, baina ez dute garrantzi bera denentzat (edo ez dute garrantzia une guztietan). *Ez zara garrantzitsua guztientzat*. Hezitzaile bat behar dutenean "aurkitzeko" aukera izan behar dute. Hezitzaileak **nerabeek hala onartzen dituzten erreferentziak dira, egunero lan egiten dute nerabeek eurak erreferentziatzat hartzeko aukera egon dadin**. Askorentzat hezitzailea erreferentzia garrantzitsua izango da bost urtez. Eta denbora horretan baliagarria izango zaien zerbait pertsonalizatua aurkituko dute.

Ez dira nerabeen gurasoak ezta haien irakaslea ere. Nerabeek nahi badute izaten dituzte harremanak be-
raiekin. Harreman "hitzartua" da, bien artekoa, ez dago txostenen mende eta ez du ondorio txarrik (heldu
horiei azal diezaiekete bazterrak zergatik nahasten dituzten). Ez dute epaitzen eta zer gertatzen zaizu
egiten duzuna egiteko? galde dezakete, nerabeek egindakoak ematen dien kezka adieraz dezakete, haiek
beren inguruan eragiten dituzten "zalapartez" ohartarazi eta elkarrekin irtenbidea bilatzea eskaini diezaie-
kete. Gertatzen zaiena kudeatzeko tresnak bilatzen dituzte. Nerabearentzat hurbileko norbaitekin duen
harremana da, bere eguneroko bizitza ezagutzen duen norbaitekin; bera nor den, zer egiten duen, zerk
kezkatzen duen dakien norbaitekin; bere desberdintasunak aitortzen dituen eta hala onartzen duen norbai-
tekin. Behin etortzen dira, hitz egin dezakete, kontatu, eta itzuli egiten dira; gero lagunak ekartzen dituzte.

Nerabeek bide-lagun dituzte beren bizitzako une batzuetan. Zenbaitetan bilatu egiten dituzte norbaiti beren
gauzak azaldu ahal izateko, norbaitek entzuteko. Halaber, esan nahi dutena baina nola esan ez dakitena,
ateratzen ez zaiena, hezitzaileak esatea behar dute. Beste batzuetan errieta jasotzeko bilatzen dituzte,
hala beren buruari eusteko. Besteetan haien iritzia ezagutzeko bilatzen dituzte, erreferentzia bat baitira.
Beren kideen irudiak nahikoak ez direnean, beste irudi batzuk itzultzen dizkieten ispiluak dira
hezitzaileak (*Bat-batean, espero ez duzunean, harrapatu eta azaldu egiten dizute*). Baina hori gerta dadin,
aurretik harreman-prozesu luze bat behar da. Proposatzen zaiena "izorratzera" ere etortzen dira, arreta
ematera behartzera (arreta eskatzera).

Ezinezkoa da gure arrakastaren erreferentzia zenbat etorri diren izatea; aitzitik, horietako bakoitzarekin zer
egin dugun, guregana etortzeak, gurekin egoteak eta zerbait egiteak harreman bat sortzeko aukera zein
neurritan eman duen izango da erreferentzia. Nerabearoa prozesu bat da, gaztelekuan igarotako aldia ere
bai. Epe luzeko estrategiak dira beti. Azkenean urruntzen direnean arrastoren bat geratu behar du.

Harremanak, nerabeekin elkartuz eta aukerak sortuz landuak izan arren, ez dira berdinak une orotan. Ez
dugu ahaztu behar gustura eta pozik egotera ere etortzen direla. Astean zehar harremanek kalitatea eta
intentsitatea izan dezakete. Asteburuko denbora desberdina izan daiteke. Baina denbora bat eta bestea
ere lotuta daude. Larunbatean etortzeko ohitura dutenek lagunak ekartzen dituzte, koadrila. Harremanak
zabaltzeko denbora ere bada. Berberak dira, beste batzuekin, baina bestelako beharrekin. Gustura egoteko
aterpea bilatzen duten koadrilak dira.

Nerabe-taldeak eta profesional-taldeak

Lehenago hitz egin dugu ordutegiez eta lokalez, baina azpiegitura egokiak zein diren zehazteko, lehenik
eta behin profesionalen arduraldiak zehaztu behar dira. **Hezitzaileen kopuruak eta arduraldiak aukera
eman behar du taldeko jarduerak burutzeko eta harremanari "hutsarteak" eskaintzeko.** Ohiko
neska-mutilen kopuruak ez du eragotzi behar premia puntualak edo bereziak dituzten taldeei ardura be-
reziak eskaintzea. Arduraldiak aukera eman behar du lokaletik irteteko, bertara hurbiltzen ez diren talde-
kin harremanetan jartzera.

NBAZk "hezkuntza-talde" bat izan behar du beti. Hau da, gutxienez bi profesional izan behar ditu beti.
Neska-mutilak beti talde bat diren bezala (zailtasunak daudenean salbu, nerabea beti taldean izaten da),

hezkuntza-erreferentziak ere taldekoa izan behar du, gutxienez bikote batekoa. Erreferentzia hezkuntza-taldea da, eta honek pertsona eta une desberdinak ditu, zereginak truka ditzake, batez ere hausnarketak partekatzen ditu, aritzeko moduak entseatzen ditu, harreman-modu onak eta txarrak egiaztatu ditzake, eta logika partekatuz baliatuz behatzen eta interpretatzen du. Taldea bakarrik ohar daiteke une garrantzitsuez, egoera adierazgarriez.

Helburua bizitzako kezkei erantzutea denean, erantzunak ez dira matematikoak izatean eta, gutxienez bi begirada badaude, erantzun horiek aberastu egiten dira. Pertsona bakar batek ez ditu erantzun guztiak, errezetak amaitzen zaizkio, sortze-egun gutxi ditu, pazientzia erreserban izatera iristen da. Gainera, nerabeekin egindako lanak norberaren nerabe-izaerak azaleratzen ditu, gogora ekartzen ditu, kezkatu, barre-nak nahastu. Batzuetan, asko nekatzen dutenez, haiek egiten dutenaren irakurketa desberdina da norberaren energiaren arabera. Lan-taldearen laguntza sentitzea eta kezkek taldeari jakinaraztea beharrezkoa da. **Hezitzaileak nerabeak bezain larrituta egoteko eta talde baten laguntza izateko eskubidea izan behar du.** Halaz ere, talde-lana ez da erraza. Aurreikusita egon behar du arduraldietan, denbora eta trebetasunak behar ditu.

NBAZko profesionalek egin behar dituzten eta, dagokien denbora aurreikusita, izan behar dituzten oinarri-zko zereginen artean, une desberdinetan gaztelekura etortzen diren taldeen dinamizazioaz gain, honako hauek kontuan hartu behar dira planifikatzeko eta arduraldiak prestatzeko:

- a. erakundeen arteko koordinazioa
- b. lan-taldearen koordinazioa
- c. nerabeekin lokalean nahiz lokaletik kanpo egin beharreko lan pertsonalizatua
- d. beste profesional batzuekiko koordinazioa
- e. neska-mutil batzuen jarraipen partekatua
- f. ezagutzaren eguneraketa, prestakuntza, hausnarketa eta ikuskapena

Nerabeekin egiten den lanak profesionalen ardura eta jarduera mugatua, kalitatezkoa, behar du.

Nork balio du honetarako?

Lehenago ere esan dugu ekipamendua helduen presentzia onuragarrien lekua dela, erreferentzien tokia. Han erreferentzia (era, intentsitate eta iraupen desberdinetakoak) bilaka daitezkeen profesionalak daude. Leku bakoitzak dituen hornidurak eta aukerak kontuan hartu gabe, hezitzaile profesionalak dira (gizarte-hezkuntzako esku-hartzean tituludunak), ez animatzaileak edo begiraleak.

Nerabeentzako arretari buruzko irizpide orokorretan jada azpimarratu dugunez, nerabe batekin harremanak dituen pertsona heldu orok hezi egiten du, eragina du eta modu jakin batean nola eragin planteaz dezake eta planteatu behar du. Nerabeen gunean dauden profesionalek betekizun desberdinak (hezkuntzakoak, prestakuntzakoak, teknikoak) izan ditzakete, baina neurri batean bakarrik. Inor ez dago zerbait irakasteko edo zerbaiti buruz informatzeko bakarrik. Beti hezten dute. Maiz zerbait eginez hezten dute.

Edonork balio al du zeregin horietarako? Dirudien ez. Pertsonekin lan egitea gustatzeaz gain, nerabeekin lan egitea ere gustuko izan behar da. Lan honek benetako inplikazioa eskatzen du, ezin dira plantak egin. Bestela, litekeena da hauteman ezin diren "keinuen" bidez adieraztea nerabeen bizitzak ez zaizkigula axola.

Profesionalek automatikoki gertatzen ez den harreman-modu bat ikasi behar dute. Enpatia eta inplikazio pertsonala dosi handietan behar dituzten pertsonaia oso zuzenekin lan egiten dute. Metodoaren zati handi bat sortu eta landu egin behar dute, teoria errealitate aldakorrera egokitu behar dute eta esperientzia adierazgarrietatik ikasi behar dute.

Guztiek izan behar dituzte hiru gaitasun, hiru betekizun:

1. Errealitate pertsonalak eta taldeenak behatzeko gaitasuna.
2. Krisialdi puntualei, laguntza-, babes- eta orientazio-eskaerei erantzuteko hurbiltasuna eta prest egotea. Nerabea beste profesional, baliabide edo sistema batekin harremanetan jartzeko gaitasuna, horretarako nerabeak beregan jarritako konfiantzaz harantzago joanez.
3. Nerabe batzuen kasuan, beste profesional batzuekin lotuta jarraipeneko edo bide-laguntzako maila desberdinak mantentzeko aukera (gaitasuna eta denbora) izatea.

Nolanahi ere, taldean eman behar diren gaitasunak, jarrerak eta betekizunak dira. Ekipamenduko taldea da horiek guztiak ahalbidetzen dituen. Sare-lanarekin eta aurrerago aipatuko dugun bide-laguntzaren batekin lotuta dago.

Lan-mota honek etengabeko laguntza tekniko behar du ("tuenti" berri batek arrakasta duenean nerabeen bizitzaz gehiago jakiten jarraitzeko). Eguneroko lanari ikuspegi berriak ekarriko dizkion ikuskapena behar du. Etengabeko hausnarketa behar du, NBAZren berezko filosofia eta logika landu, partekatu eta egokitzeko. Udalek garrantzia eman behar diete egiten ari garena hausnartzeko, pentsatzeko eta laburbiltzeko denborei eta espazioei.

Behaketa-sistemak eta jarraipenerako oharrak

NBAZ hezkuntza-proposamen pertsonalizatu bat da. Benetan hezigarria izateko, plangintzarako elementuak izan behar ditu (berariazko diseinu bati eta jardueren aurreikuspen orientatzaile bati erantzutea). Baina **esku-hartzearen jarraipena ere egin behar da**.

Jakina, zentzugabea litzateke pentsatzea, lurralde bateko nerabe gehienek arduratzeko borondatea izanik, bertara joaten den nerabe bakoitzaren eta guztien espediente moduko bat izango dutela. Zentzuzkoa eta beharrezkoa da, ordea, **profesionalek nerabeen dinamikak behatzeko jarraibide adostu batzuk eta nolabaiteko jarraipen-sistema bat izatea**.

Praktikan, lan-taldeak partekatuta duen lanaren egunkari moduko bat izan daiteke, subjektibitateak eta gogo-aldartearen erlatibismoak saihestuko dituen egunkari moduko bat. Inplikazioak, isolamenduak, talde-

dinamikak, koadrilen mapak, etab. behatu eta egunkarian idatziko dira. Zentzudunena da lanaldia amaitzean eta tarteka balorazio bat egin ahal izatea, eta taldeen nahiz norbanakoen gorabeherak aztertzea.

Norbaiten egoera berezia denean ohar gehiago idatzi behar dira, bere interesak eta beharrak kontuz deskribatuko dira, eta baita haiei arreta emateko probatuko diren moduak ere. Zailtasunak daudenean, hainbat dinamika sortzen saiatu behar da, neska-mutilek "hitz egiteko", beraien artean adierazpenak egiteko eta helduek erantzun egokiak probatzeko. Etortzen direnetako gutxi batzuei, bereziki arreta beste profesional batzuekin batera ematen bazaie, nolabaiteko jarraipen dokumentatua egin behar zaie.

4. UDAL-TEKNIKARIAK EDO NBAZ-REN ETENGABEKO EUSKARRIA

Laburki bada ere, azpimarratu egin behar dugu Balio Anitzeko Sistema osoaren funtsetako bat lidergoa, sustapena eta ikuskapena beren gain hartzen duten udal-teknikariak direla. Gainera, nerabeentzako arreta-proposamenak konplexuak eta zailak badira eta NBAZren funtzionamenduak dinamikoa eta irekia izan behar badu, toki-administrazioak berak ere bultzatu egin behar du, etengabe eta konbentzimendu osoz.

Lurraldean NBAZren antolaketa egoki batek NBAZko hezitzaileen eta tokiko teknikarien artean harreman zuzeneko sistemak izatea eskatzen du. Haien arteko harremana funtsezkoa da honako hiru alderdi hauek lortu eta garatzeko:

- a. Sortzen den ezagutzaren kudeaketa. Hau da: profesionalek teknikariari transmititu diezaioketen nerabearen errealtatearen eboluzioa ezagutzea; arreta emateko modu egoki eta eraginkorrei buruzko eztabaida; baloratzeko eta berritzeko aukera ematen duen hausnarketa.
- b. Udalerriari aritzen diren beste profesionalekin sarean lan egiteko edo lana partekatzeko benetako sistemak sortzeko laguntza.
- c. Balio Anitzeko Sistemaren eta arretaren hiru mailen arteko elkarreragina, hiruren arteko trantsizioak.

NBAZ "sustapenetik" egindako tokiko proposamen bat da eta, beraz, tokiko teknikariek "sustatu" behar dute hurrez, nerabeez eta gazteez modu aktibo eta egokian arduratzea. NBAZren kasuan, bermatu egin behar du neska-mutirik nerabe gisa, pertsona gisa eta herritar gisa garatzea, guztionak diren inguruneetan, eskubideak dituzten subjektu aktibotzat hartuz eta eskubide horiek erabili ahal izatea sustatuz.

5. JARDUERAK, AUKERAK

Egunero dinamika dago lokaletan, baina egunero ez dago jarduera planifikatua. "Tailerrak" planifikatu behar dira, baina egin daitekeen eskaintza bat izan behar du jada aurreikusitako ekintza bat baino gehiago. Planifikatzea, neurri handi batean, nerabeen proposamenak modu aktiboan jasotzen jakitea da. Oreka bialatu behar da porrot egiten duen planifikatutakoaren eta arrakasta lortzen duen bat-batean egindakoaren artean. Bizikidetzarako guneak eta aukerak sortzen dituzten egitura malguak dira.

NBAZk erreferentziazko jardueren aldi baterako plangintza bat du. Ez da martxan jartzen ea zer gertatzen den ikusteko zain. Baina, beti du kontuan nerabeen interesak eta kezkek jaso behar dituela. Ho-

rrekin batera, ez du ahazten horiek ekintzetan zehaztea zein zaila den. Dinamizatzea nerabeak mugitzeko eta atzemateko amua jartzea da.

Jarduerak helburuekin lotuta daude, ase behar ditugun beharrekin. Baina ezin ditugu ahaztu nerabeentzako baliabide bat funtzionarazteko aurreko kapituluan adierazi ditugun irizpideak. Izan ere, irizpide horiek nerabeen kezka dituzte abiapuntu, haien interesak hartzen dituzte kontuan.

Plangintzan beti bilatu behar da nerabegaroko gai klasikoak (nerabeen unean uneko kezka, haien esperimentazioko eta arrisku-jokabideekin lotuta daudenak, dauden gizartean mugitzeko informazio faltari dagozkionak) nolabait sistematizatzeko modua.

Gai horietako askori beste profesional batzuek (hezkuntza-arlokoak, osasun-arlokoak) heltzen diete edo heldu behar liekete. Askotan kontua da haiekin zubi-lana egitea eta jarduera baliagarriak eta interesgarriak planifikatzea, NBAZren testuinguruan edo beste gune batzuetan; betiere interesak dinamizatzen eta didaktikak eta metodologiak partekatzen.

Ez dugu ahaztu behar NBAZ ez dela ikaskuntzako beste leku bat (gero aipatuko ditugun eskola-motibazioarekin lotutako jarduerak salbu), aisia hezitzailean oinarritzen den toki hezigarri bat baizik. Testuinguru jakin batean eta "lagunartean" egotera eta ondo sentitzera etortzen dira, beren nerabe-interesei dagozkien edo haiek suspertzeko baliatzen ditugun interesekin lotuta. Gogoan izan, gaztelekua dela-eta, haien gura-riei eta itxaropenei buruz jada idatzi duguna.

Jakina, ez dugu ahaztu behar gainera lokalaz kanpoko jarduerak ere nahi dituztela eta programan sartuta egon behar dutela: lurraldeko barneko irteerak eta ibilaldiak, kanpaldiak, eta kanporako bidaiak. Halakoe-tan nerabeen eta hezitzaileen arteko harremana desberdina izan ohi da.

6. NERABEAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA

Nerabeen guneei buruzko triangeluan "kalea" eta "borondate oneko" beste toki ez oso instituzionalizatuak ere sartu ditugu. Lehen, gizarte-zerbitzuei dagokien kaleko lanaren programa instituzionalaz hitz egin dugu.

Jada esan dugunez, kalea da kontraesanen esparruen artean nagusiena. Heldu askorentzat gaizkiaren erreina da beti eta, aldiz, nerabe gehienentzat beren bizitzako testuinguru onena da. Nerabeen beste eremu bat da eta **NBAZ besterik gabe kalean dauden nerabe horiez ere arduratzen da** (ez dute nahitaz gizarte-arazoekin lotuta egon behar). Nerabe horientzat kalea "egoteko" toki bat da –ez luke bakarria izan behar- eta eragin orotik kanpo gelditzen dira, gu gauden tokira "etortzen" ez direlako.

Etorri eta joan egiten dira. Guk **planifikatuta izan behar dugu haiek dauden tokira nola joan** (gaztelekuko kontratuek aurreikusi behar dute hezitzaileak irten ere egiten direla, batzuetan gaztelekua ireki egiten dela, kaletik hori zer den ikustera datozen taldeen eskaera puntualei harrera egiteko). Nerabeekin egiten den lana komunitate-lanaren nolabaiteko logika baten barruan sartuta badago, zentzuzkoa dirudi gaztelekua kalera ateratzea, auzoko jarduerekin lotuta egotea (errazagoa da NBAZk eremu edo tokiko beharrei erantzuten dienean).

Beti ez da erraza izaten nerabeekin beren eremuetan egiten den lana eta "kaleko gizarte-hezkuntzako lana" bereiztea. Arrazoi desberdinak direla-eta, bereziki gizarte-zailtasunak dituztelako, arreta-zerbitzuekin lotura zuzenik ez duten herritar-taldeein arreta emateko modu bat da bigarren hori. Nerabeez ari garenean, lehena-go esan dugunez, aukerarik ezaz eta erakundeekiko harreman gero eta gatazkatsuez beteriko historia batek eragindako arrisku-egoeran dauden neska-mutilak dira.

Askotan batzuk zein besteak atzemateko bidea kaleko hezitzaileak dira. Aurrerago, beste profesional batzuekiko harremanei buruzko eta gaztelekura etortzen ez diren neska-mutilei buruzko atalean, hitz egingo dugu "kaleko" nerabeekin egin beharreko lanaz. Baina, halaz ere, gogoan izan behar dugu zenbait udalerrik ez dituztela bereizketa horiek egiten eta haietan profesional berberak direla kaleko eta gaztelekuko lana egiten dutenak.

Nerabe guztien kasuan, baliabidean bertan arreta eman behar dieten profesionalak ingurune informalean egon behar dute, "jatorrak" izan behar dute, hurbilerrazak, haien mundutik gertu daudenak, erraz informatu, aholkatu eta lagunduko dutenak.

Neska-mutilek laguntza eskatuko dute, profesionalen presentzia neurri batean normalizatua izatera iritsi bada eta une egokietan haientzako prest badaude (gorabehera bat dagoenean, nerabeen segurtasuna krisian dagoenean, laguntza eskatzeko prest diruditean, etab.).

Ordutegiaren atalean asteburuko denbora batzuk sartzean kontuan hartu dugu, nerabe-izaera finkatzen denean, neska-mutileen ametsa "irtetea" dela eta guk iradokizun eta proposamenen bat egin behar dugula de-sio eta praktika berri horien inguruan. Irtete horrek zerikusia du eremu publikoa okupatzeko modu berriekin ere eta, NBAZk tokiko nerabeen erreferentzia izan nahi badu, toki-eremuko beste profesional batzuekin lan egin beharko du udal-mailan gure helburuari koherentziaz ekitea lortzeko.

7. GAZTE-INFORMAZIOA KOMUNIKAZIOAREN GIZARTEAN

Dokumentu honen hasieran adierazten zenez, zenbait herritan gazte-informazioarekin lotutako baliabideak daude. Horrez gain, gazte-politiken ibilbidea informazio-politikan oinarritu da neurri batean. Gazteen errealitateak eta komunikazioaren errealitateak, ordea, aldaketa handiak izan dituzte. Gainera, behin eta berriz esan dugunez, nerabeentzako arreta planteatzeak (baita informazioaren arloan ere) kontzeptuzko eta antolaketako logika bereziak eskatzen ditu.

Nerabeentzako informazioa krisian

Etengabe aipatzen ari garen aniztasuna (nerabe-izaerena, lurralde edo eremuetako errealitateena eta dauden baliabideen lan egiteko moduena) kontuan izan arren, gazte-informazioak eta gazte-informatzaileek lau zalantza handi edo lau ardatz erabakigarri dituzte gaur egun:

1. Zein biztanleriari zuzentzen zaien eta, azkenean, arreta zein biztanleriari ematen dioten; alegia nerabeak-gazteak dikotomia. Gaur egun normalean informazio-zerbitzuetan izaten den nerabeen presentzia eskasak konpontzen du arazoa.

2. Bakardadea edo proiektu handiago batean txertatua ez egotea, halakorik gabe zaila baita zentzua izaten jarraitzea. Gaur egun, Balio Anitzeko Zerbitzuen zati nola izango diren zehaztea da arazoa.
3. Komunikazioaren gizartean gertatutako aldaketak; izan ere, zerbait aldatu bada belaunaldi gazteek informaziora eta ezagutzara iristeko duten modua da. Arazoa da NBAZ batean bitartekarien edo solaskide helduen laguntza zein informazio-motak (informazioa lortzeko zein moduk) behar duten argitzea.
4. Nerabearentzako informazioaren eta helduen erreferentzia onuragarriaren arteko lotura. Arazoa da informazio-kudeatzailea NBAZko hezitzaileentzako profesional baliagarria nola bilakatuko den eta, aldi berean, informatzaileek beraiek hezkuntza-eragina duten pertsonaia izatea nola onartuko duten. Hau da, nerabeekin informatzeko elkartzen direnean harentzat erreferentzia ona izan daitezke (batzuetan zertaz oso ondo jakin gabe informatzeko egiten den lehen bisitan sortzen da erreferentzia) eta arazoa da hori nola onartuko duten.

Oro har, baliabide bat gazte-informaziokoa dela esaten denean nerabeak ez dira ohiko erabiltzaileak izaten. Arazoaren zati bat nerabe-izaera bera da, baliabide horiek ezin baitute beti kontuan hartu. Nerabea gutxitan mugitzen da aurreikusitako segidari jarraituz: zalantza bat dut, informazioa bilatzen dut, erantzuna topatzen dut. Informazioaren paradigma ez da guk erantzuteko galdera batekin datorren norbait.

Egungo esperientziak erakusten digutenez, informazioaren proiektua gaztelekuaren proiektuarekin lotuta badago, nerabeengana iristen da (gaztelekua haiengana iritsi delako edo gaztelekuaren erreferentziak baliabidean bertan informazioa bilatzeko aukera hurbiltzen dielako). Proposamen baliagarriena seguruenik **informatzailea NBAZko lan-taldean sartzea izango da, hezkuntza-zereginak partekatze eta profesionalen eta nerabeen informazio-zereginak errazteko**. Gaztelekuetako profesionalak gogorazten dutenez, **harreman bat lantzen bada bakarrik eman daiteke informazio malgu eta baliagarria**. "Informazio-zereginak" betetzea posible da testuinguru batean dagoen (gutxienez bertan dagoen eta hurbilekoa den) neurrian eta nerabeak ezagutzen duen edo beste profesional batek (gaztelekuko hezitzaileak) nerabeak beregan duen konfiantza informatzaileari pasatzen dion neurrian.

Informazio-paradigma, komunikazio-paradigma, hezkuntza-paradigma

Agiriak eta laguntzak lortzeko euskarri-lanak (maiz informazio-zerbitzura gurasoek bideratzen dituztenak) salbuesten baditugu, sortzen den galdera da: zer-nolako informazioa eman diezaiokegu nerabe bati? eta ondoren, zer-nolako ezaugarriak izan behar ditu nerabeentzako informazioak? Informaziotzat hartzen badugu gehiago jakin nahi izatea, norberaren ez den beste ikuspegi batzuk izatea, norberaren zalantzak argitzea eta, agian, ezagutza berri horren bidez modu batera edo bestera jardutea, nerabeentzako informazioaren muinak, dirudienez, honako hau izan behar du:

- a. nerabeen gaiak (nerabe den aldetik horietan buru-belarri sartuta dago);
- b. nerabeen trantsizio desberdinei dagozkien gaiak (orain zer egingo dut);
- c. komunikazioaren gizarteko informazio-sareetan norbere irizpideekin mugitzeko trebetasunak eskuratztea.

Nerabeen gaiez arduratzeko (izan ezagutu berria duten sexualitatea edo izan behar adinako informaziorik gabe bizi dituzten abenturak eta esperimendazioak, betiere pertsonala denarentzako tartearekin), **informazio-triangelu** batean mugitzen gara. Triangelu horretan daude: a) gaztelekuko hezitzaileak; b) eskolako, gizarte-zerbitzu desberdinetako edo osasun-zerbitzuetako profesionalak; c) informatzeko pentsatutako baliabideak. Asmo hori izan arren, horietako batek ere ezin du lortu, berak bakarrik, informazioaren alorrean beharrezkoa den eraginkortasuna (informazio mobilizatzailea). Batzuetan ez dira izango nerabeak dauden tokian, beste batzuetan ez dute eraginik informazioa irits dadin, besteetan litekeena da beharrezkoak diren informazio-gaitasuna eta ezagutzak ez izatea.

Hiruetako batek ere ezin du itxaron nerabeak etorri arte. Guztiek komunikazio-estilo bat partekatu beharko dute. Batzuek zein besteek sendotu egin beharko dute batak edo besteak helburuak lortzeko. Gauza bera gertatzen da eskola-trantsizioetako eta lan-mundura sartzeko ahaleginetako orientazio-prozesuekin. Beti planteatuko da nerabeak norengana eta nora jo behar duen zalantza-mota edo informazio-behar bakoi-tzarekin (norengana joko dute eta nola, esate baterako, inplikazio-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin larrialdiko antisorgailuari buruzko zalantza bat argitzeko?). Beti kontuan hartu behar da haien informazio-unibertsoaren zati txiki bat besterik ez garela.

Nerabeekin erabiltzeko **informazio-estiloen** konplexutasuna ondo erakusten dute informazioak "antennen", informazio-puntuen eta gazte-bitartekarien bidez hurbiltzeko egin diren esperientzia desberdinek. Esperientzia horiek eta beste batzuk nerabeei arreta ematen dieten baliabide guztiek egiaztatutako bi beharrek bultzatuak dira: nerabeak dauden tokian egoteko beharra eta hizkuntzak edo komunikazio-estiloak hurbiltzeko beharra.

Nerabe-izaerek ere badituzte beren **komunikazio-eskakizunak**. Informazioaren zati bat berdinen artean ere gertatzen da eta, beraz, berdin horietako batzuk gaitu behar ditugu beren "ezjakintasuna" txikiagoa izan dadin eta beren eragina egokiagoa. Nerabeen komunikazio-eredua landu eta eguneratu behar da. Kontuan hartu behar da informazio-fluxuek bi noranzko dituztela, guk ere haien mundua ezagutzeko beharra dugula, gutxienez zerk kezkatzen dituen eta erantzuna zein galderarentzat bilatzen duten ezagutzeko beharra dugula.

Nerabeei dagozkien beste esku-hartze askotan bezala, ez da erraza informatu eta orientatu bereiztea eta biak benetan baliagarriak izateko, nolabaiteko bide-laguntzako prozesu baten barnean eman behar dira. Gutxienez, **bide-laguntza informatzaile** bat izan behar da beti. Beti dago begiz jotzeko prozesu bat, joan-etorrikoa, eskaera zehaztekoa edo arazo batetik bestera pasatzekoa. Eragina izateko edozein aukera hasieran izaten den entzuteko jarreraren hasten da. Informazio-baliabide batean gutxietan jakiten da, besterik gabe, emandako informazioarekin zer gertatu den.

Oraindik ere ziurtasunak baino zalantza gehiago ditugula, sare sozialek, komunikazio-gizartearen multimedia informazioak eta informazio digitalak ekarri duten komunikazio-logika berriaren barnean planteatzen da informazioaren arazoa. Oraingoz, nahikoa da azpimarratzea informazioaren hedapenak egun eragin askoz ere handiagoa duela "tuenti-ko" "gertakari" izatera pasatzen bada. Era berean gogoan hartu behar da baldintza berriei esker nerabeak (bere taldeak) lehen baino informazio askoz ere gehiago sortzeko aukera duela; bere esperimendazioen bidez akatsen sortzaile eta esperientzia hedagarrien sortzaile izateko aukera handiagoa duela⁶.

⁶ Aintzat hartu, adibidez, HOGUETI plataforma

NBAZ osoa bezala, informazio-zereginek nerabeekin dauden helduentzat ere izan behar dute. Informazioaren zati bat gurasoentzat pentsatuta egon daiteke eta egon behar du, tokiko profesionalak haien seme-alaben nerabezaroari buruz helarazi nahi dizkieten informazio guztiekin koordinatuta edo kokatuta egon behar du.

NBAZ osoa bezala, NBAZko "informazioaren" zatia ere gaztelekura joaten ez direnentzat eta joango ez direnentzat pentsatu behar da. Nahitaez planteatu behar dira harremanetan jartzeko eta harremanak izateko beste modu batzuk.

8. NERABEAK ESKOLA-GUNEETAN

Nerabeak neurri handi batean eskola-subjektuak badira, funtsezkoa dirudi eskolarekin zentzuzko harreman bat lantzea. NBAZk nerabeen tokiko erreferentzia izan behar badu, haiek denbora gehien pasatzen duten "eremuetako" batekin (bertako profesionalekin) nola erlazionatu pentsatu behar du; izan ere, eremu horren ondorio izan daitezke haien nerabe izateko modu asko.

Gaur egun, harreman hori baldintzatzen dute, eremu horren aniztasunaz gain, bigarren hezkuntza bizitzen ari den egoera konplexuak eta toki-mailan Gobernuaren Hezkuntza Sailaren eskumenetan dagoen inplikazio txikiak. Kasurik onenean "sorospeneko" harremana dago, nerabe jakin batzuentzat laguntza eskatzekoa. Harremana gutxitan oinarritzen da elkarrekin landutako nerabeentzako arreta batean. Dena oso puntuala da eta ez dago proposamen egonkorrik. Auzoan nahiz herrian nerabeez arduratzen diren profesionalen eta ikastetxeetako hezkuntza-taldeen arteko harreman-eredua zehaztu gabe dago neurri handi batean.

Herri handietan BHlek elkarren artean loturarik ez duten udal-eskaintza ugari jasotzen dituzte (kultura, hezkuntza, gazteria, etab.), eta irakasle batzuek bakarrik aprobetxatzen dituzte. Udalarekiko harremanak asko eta sakabanatuak dira, eta horrek ekintzen eraginkortasuna oztopatzen du.

Nerabeak ez diren beste lehentasun batzuekin normalean gaineztuta dauden gizarte-zerbitzuetako profesionalen jarduera, lan-arloko eta gizarte-hezkuntzako profesionalen jarduera, "kasuak" kudeatzera mugatzen da maiz. Bigarren hezkuntzako eskolaren eskaerak, halakorik badago, eskolarentzat problematiko eta jasanezin bilakatu diren neska-mutilei dagozkie. Eremu horietako profesionalak egoera zaila edo krisialdia bizi duten nerabeentzako erreferentzia bihurtzeko aukera txikia da. Hala, edozein harreman arazo bihurtzen da hasieratik eta profesionalak zailtasunak dituzte erreferentzia lagungarri bihurtzeko.

Oso gutxitan esan daiteke tutoreek gaztelekua kontuan hartzen dutela beren lanaren zati moduan. Nerabeei aisialdian arreta emateko tokiko baliabideek ibilbide laburra dute bigarren hezkuntzako eskolaren dinamika konplexuaren aldean.

Gaur egun, eskolarekiko harremanean nagusitzen dena da eskolan, ikasturteko uneren batean, gaztelekuko programa aurkezteko egiten diren ekintzak. Zerbait gehiago lortzen da tokiko arduraduna hezkuntza-arduraduna ere baden herrietan, halakoetan nerabeentzako arreta batzorde berean eztabaidatzen da-eta.

NBAZren ikuspegitik, tokiko baliabide den aldetik, **bigarren hezkuntzako eskolarekiko harremanak honako parametro hauei erantzun behar lieke:**

- a. Toki mailan eskola-belaunaldien hezkuntzan (lurraldeko hezkuntza-proiektua, hezkuntzako komunitate-planak, eskolatzearen tokiko bide-laguntza, hezkuntza-zailtasunentzako tokiko laguntza, etab.) eta hezkuntza-jarraipenean inplikatzeko proposamen integratu baten barnean egotea sistema gisa.
- b. Honako hauek egin ahal izateko elkarreragin normalizatu bat izatea: NBAZren proiektua sistematikoki ezagutzera ematea; eskoletako nerabeek baliabidea eta bertako profesionalak ezagutu ditzaten lortzea; tokiko nerabeen eguneroko bizitzari buruzko bi noranzkoko informazio-sistemak izatea.
- c. Guztion artean bigarren hezkuntzaren eta nerabezaroaren hasiera planifikatzea. Nerabezaroan sartzen ari diren neska-mutilekin lan egitea helduak pixkanaka hiru arazo nagusiez ohartarazteko: nerabeen mundua, derrigorrezko bigarren hezkuntza eta NBAZren proposamenak. Etapa berriari dagozkion "baliabideak" ezagutzeko aukera ematea eta hasi berria duten hezkuntza-aldiaz jabetzen eta eskura ditzuten tokian tokiko erantzunak ezagutzen laguntzea.
- d. Bere eskaintza tutoreen hezkuntza-lanaren osagarria izatea. Bere programa nerabeen hezkuntza-jardueretan inplikatzeko. Bere guneak eskolaz kanpoko ekintzetarako erabiltzen uztea.
- e. Ikasle batzuen hezkuntza-jarraipena sendotzeko edo partekatzeko aukera ematea. Tutorearentzako erreferentzia izatea.
- f. Gizarte-zerbitzuetan eta ingurune irekiko hezkuntzan egiten den eskola-zailtasunen jarraipena osatzea.
- g. Nerabeen trantsizio desberdinetan bide-laguntza hezigarrian parte hartzea.

9. TRANTSIZIOEZ ARDURATZEA. HAURTZAROA UZTEN DUTENEAN, GAZTAROAREKIN AMETS EGITEN DUTENEAN

Hainbat trantsizio

Nerabezaroko bost urte horien atzean, urte eta eboluzio-erritmo (pertsonalak eta taldekoak) desberdinez gain, kontuan hartu behar dira nerabeengan eragina duten eta NBAZk aintzat hartu behar dituen hainbat trantsizio (zenbait zirkunstantzia, errito, ekintza eta laguntza). Nabarmenena haurtzarotik nerabezarorako trantsizioa da eta, bereziki gaztelekuan, etortzen direnekin lan egiten da, pixkanaka desberdinen moduan tratatuaz, beren bizitzako etapa berri hori ona dela sentitu eta onar dezaten.

Erdiko trantsizioa edo nerabe-izaeraren bizipen handia azpimarratu berria dugu antolaketak eta plangintzak gutxienez bi "adin-talde" desberdin kontuan hartu behar dituztela gogoratu dugunean. Amaierak edo gaztarorako sarrerak (maiz nerabe ondokoa izan ohi denak) bi erronka desberdin planteatzen ditu. Batzuetan horiek gaztelekuan mantentzea izaten da xedea, 16 urte bete eta, lokala eta koadrila dituztela, desagertze-

ko joera dutenean. Beste batzuetan, 18 urterekin gazteentzako baliabideetan kokatu ahal izateko mekanismoak martxan jartzea da helburua, hala, nerabezaroaren logikan alferrik irautea ekiditeko.

Mugimendu eta trantsizio horien erdian daude, nerabeen izaera biziki baldintzatuz, erakundeen arteko trantsizioak (eskolak eta ikasketa desberdinak) eta, zenbaitetan, bizitzan ardatz dituzten jardueren artekoak (ikastea, lana bilatzea, bizimodua ateratzea). Lehenengoari dagokionez, jada esan dugunez, helburua da DBHrako eta nerabezarorako sarrerari elkarrekin heltzea. Bigarrena eskola jada nerabeen bizitzaren mui-na ez denean agertzen da edo, aurrera jarraitzen badute, garrantzi berbera ez duenean. Eskolatik irtetean gerta daiteke NBAZk beste garrantzi bat hartzea edo, baita ere, gurekin harremana izateari uztea.

Dena den, udalerrri batzuetan egiaztatu da haurrentzako baliabideetatik pasatu diren haur batzuk jada ez direla gaztelekura iristen. Familia-prebentzioekin batera erakundeen arteko deskoordinazioa aipatu behar da. Izan ere, beste sail batzuetan (ez hezkuntzaren edo gazteriaren arloetan) pentsatutako haurrentzako zerbitzuak izaten dira eta oraindik ez diote erantzuten balio anitzeko zerbitzuen logikari, hau da, bereziki etapa batentzako zehaztu diren baina euren artean jarraipena duten zerbitzuen logikari. Zerbitzuen arteko trantsizio hori ere are konplexuagoa da, normalean, haurrentzako arretak 10 urteren inguruan amaitzeko joera izaten duelako eta haurtzaroko azken bi urteentzako proposamenik izaten ez delako.

Balio Anitzeko Zerbitzu baten (haurtzaroan haietaz arduratu dena eta orain nerabezaroan arduratu nahi duena) ikuspegitik, nerabezarorako hasierako trantsizioan kezka nagusia "ongi-etorri-programen" moduko zerbait martxan jartzea izan behar luke. Dauden programetako batzuk guztiz eskolakoak dira (hasierako harrerako eta tutoretzako eskola-planak), baina beste batzuk –lehentxeago aipatu ditugun eskola-eremue-tako jardueren barnean- jarduera mistoei dagozkie (esate baterako, tutoreekiko lankidetzak); eta nerabeak murgiltzen ari diren eboluzio-aldaketen eta transformazio sozialen mundua beraiekin lantzea dute helburu.

DBHren amaierarekin batera NBAZk **gazteen mundua, lurraldearen eta bere baliabideen ezagutza aktiboa eta horiek modu autonomoan erabiltzeko modua planteatzen hasi behar du**. Gazteleku batzuetan 16 urteren muga gainditzeak proiektu berri bat, bereizitako eskaintza bat aurkeztea esan nahi du. Ez du zentzurik 16 urte dituztenean nerabeekin haustea.

Bere nerabeez arduratzen den tokiko zerbitzu batentzat, bigarren trantsizioak bi konplexutasun ditu. Alde batetik, nerabeen kopuru garrantzitsu eta adierazgarri bat eskola-eremutik desagertzen da eta, hala, haiekin hurbileko harreman bat izateko aukera oro desagertu daiteke. Bestetik, nerabezaro bete-betean gertatzen den bigarren trantsizio horrek gauza oso desberdinak ekar ditzake: pixkanaka lan-mundura eraman dezakeen eskola-askapena, krisian eta nahastean murgildutako eskola-irteera, edo hurrengo "udaberrian" erraz krisian sartuko den eskola-jarraipen behartua.

Funtsezkoa da azken etapa hori lantzea (eskola-mota baten amaiera, arian-arian nerabezarotik irtetea, gaztelekuan oinarritutako harremanaren amaiera). Garai horretan garrantzi handiagoa izango du **bide-laguntzaren kontzeptuak (beren bidea egiten duten artean haien ondoan egotea), jada beren nerabe-izaeran kokatzeko ez, baizik eta inguratzen dituen munduan kokatzeko**. Aldi horretan garrantzi berezia du beste profesional batzuekin (prestakuntza, okupazioa, aisialdia, etab.) egindako lanak. Amaierak gainera zer-nolako amaiera nahi dugun pentsatzea dakar (koadrila librea eta poteoa bakarrik?),

eta horrekin batera neska-mutilak nola gizarteratzea nahi dugun eta zein komunitate-egituretarantz eta parte hartzeko zein egituretarantz bultzatzen ditugun pentsatzea ere bai.

Azken urte horietan bide-laguntza **orientazio bilakatzen da erraz, erabakiak hartzeko laguntza, nork bere burua argitzeko laguntza**, edo motibazio berriren bat bilatzeko laguntza. Hezitzaileak lortu duen erreferentzia profesionalari esker, orain hartaz fidatzen dira hurrengo urtean zer arraio egin argitzen saiatzeko edo beraiek aukeratu arren jasan ezin dituzten ikasketa batzuk uzteko zer egin jakiteko, edo ezer egiten ez dutela-eta estutu egiten dituen ama lasaitzeko. Beren zalantzekin etortzen dira ikasketetan ondo ibili arren, baina gehiengoa dira nahasita dabiltzanak. Orain bide-laguntzak esan nahi du tematu egin behar garela, iradokizunak ez baitira alferrekoak izaten, noizbait aprobetxatuko dituzte.

DBH amaitzean errazagoa dirudi LHak (Lanbide Hastapeneterako Ikastetxeak) bezalako egiturekin harremana izatea, orokorrean bigarren hezkuntzako eskolekin baino. Informazio-baliabideen ekarpen batzuk aldi horri buruzkoak izan behar dute eta, zehazki, gai horiei buruzkoak. Badira beste batzuk ere, egun osoa ezer egin gabe igarotzen duten arren gaztelekura etortzeari uzten ez diotenak.

BI alderdi horiek aintzat hartuta, ekintza batzuk beharrezkoak dira, **nerabeak eskolan igarotzen duen denborak nerabeez arduratzen diren toki-eremuko beste profesional batzuk ezagutzeko eta haiekin harreman onuragarriak** izateko balio izan diola bermatzeko. Hori guztia, nerabearen eskolako egoera arrakastatsua ala gatazkatsua den kontuan hartu gabe, eta ikasteko betebeharraren eta bizitzeko grinaren artean dituen zalantzen emaitza zein den kontuan hartu gabe. Eskola-eremuan testu osoan aipatzen ari garen helduen erreferentzia onuragarriak ezagutu eta garatu behar dituzte.

Orain, beren trantsizio-bizitza horietan baliagarriak izan nahi dugu, eta nerabeei arreta ematean dauden zailtasunei -jada aipatu ditugunak- tokiko baliabideen desegokitasun ugariak gehitzen zaizkie. Zailtasunak ez dagozkie eskolari edo lana bilatzearekin lotutako tokiko baliabideei bakarrik, -aurrerago ikusiko dugunez- nerabeei arreta ematen saiatzen diren eta batzuetan arrakasta gutxi izaten duten tokiko programei, baliabideei eta zerbitzuei ere badagozkie. Trantsizioak asko dira (ez dira eskolatik lanera bakarrik pasatzen), ibilbideak nahiko desberdinak eta konplexuak dira, bizipen zailak edo gatazkatsuak kontraesankorrak dira, eta esku hartzeko uneak eta aukerak, berriz, anitzak eta hauskorak.

Behar berriak, erantzun berriak

Arreta orientatzailearen ildoko edozein proposamenek kontuan hartu behar du zeintzuk diren orain, gazte izan nahi duen nerabearen bizi-testuinguru berrian, haren gizarte-hezkuntzako behar nagusiak. Hala, adostu egin behar du zein jarduera edo baliabide izango den egokia erantzun bat emateko, abiapuntutzat NBAZ eta honek orientatzeko eta bide-laguntza emateko dituen aukera orokorrak hartuta. Gogoan izan behar dugu une honetan nerabeak batez ere honako behar hauetako batzuk dituela (dokumentuaren hasieran aipatu ditugunak, gehiago zehaztuta):

- Erabakiak hartzen lagunduko dioten eta mugiaraziko duten informazioak eskura izatea.
- Gazteen testuinguru, esperientzia eta jarduera desberdinak hurbiletik eta modu erakargarrian eza-gutzea.

- Bere bizitzan sortu den egoera berriaz (jada eskolakoa ez den eta arian-arian gaztearena bilakatzen ari den egoeraz) pixkanaka jabetzea.
- Prestakuntzako eta laneko esperientzia eta aukera berrietara heltzea.
- Noizbait beren bizi-esperientzietarako erreferentzia izan daitezkeen hurbileko profesional helduak ezagutzea.
- Bizi izandako esperientzien azterketa egin ahal izateko laguntza-moduetara heltzea.
- Laguntzako eta bide-laguntzako harreman pertsonal eta berezi batera erraztasunez heltzea.

Derrigorrezko eskolatze-aldiaren amaierako trantsizioak toki-eremuan nola landu zehazten laguntzeko, NBAZk ondoren aipatuko ditugun ekintza eta jardueretako batzuk abiarazi behar ditu, koherentziaz, jada aipatu ditugun tokiko proiektuen barruan eta horietan tokiko baliabide guztiak inplikatur:

1. Gazteen munduarekin, gazteentzako baliabideekin eta aukerekin lotutako informazio-jarduerak.
2. Hezkuntza- eta lan-arloko orientazioarekin lotutako informazio-jarduerak.
3. DBH amaitzen denean, hurrengo ikasturterako alternatibak "saltzeko" ekintza puntualak.
4. Eskura dituen prestakuntza-baliabideak eta lan-baliabideak ezagutzeko ekintzak.
5. Etengabe prestakuntza-arloan edo lan-arloan orientatzera bideratutako jarduera egituratu luzeagoak.
6. "Hezkuntza-konponketara", berriro ikasten hastera eta hezkuntzarekin lotzera bideratutako prestakuntza-ekintzak.
7. Profesionalizatzeko prestakuntza-ekintzak. Lanerako prestakuntza.
8. Laneko esperientziak lortzeko lan-alorreko bitartekaritza.
9. Denboran zehar luzatuko den tutoretza
10. Jarraipena eta laguntza beren bizitzako hainbat alderditan.
11. Bide-laguntza.

Bide-laguntza ahalbidetzea

Baliabide desberdinek trantsizioetan bide-laguntza eman ahal izateko, nerabeei arreta emateko sare-lanean adostasuna beharko da, aurrerago aipatuko dugun bezala. Oraingoan, nahikoa izango da honako hauek gogoan hartzea:

- institutuekin partekatutako plan bat izan behar da hori egin ahal izateko,
- eskolara joateko betebeharrak desagertu baino lehen ezagutu behar dituzte eskura dituzten profesional onuragarriak,
- eskaintza (eta kezka) amaitzen ari den belaunaldi osoari dagokio, berdin dio nola amaitzen duten,
- orientazioko ekintzek eta jarduerak denbora batez iraun behar dute (gutxienez urtebete DBH amaitu ondoren).

Orain egiten den trantsizioa ibilbide pertsonalei dagokie eta horietan gertatzen diren aldaketa-prozesuek helduen presentziaren eragin handia jaso dezakete. Bidean laguntzea da pertsona baten ondoan hurbile-rraz eta laguntzeko prest egotea, elkarrekin ibilbide bat egiteko. Ez dago bide-laguntzarik "erreferentziarik" gabe, pertsona bakoitzak berezitat eta zehazki berekin lan egiteko dagoen profesionaltzat hartzen duen irudirik gabe.

Eskola amaitzen denean, eskola-prozesuaren eta bizi-prozesuaren arteko elkarreraginak beste zentzu bat hartzen du. Ez da nahikoa DBHren amaierako emaitzak aztertzea zer egin hausnartzeko. Kontuan hartu behar ditugu orain sortzen diren bizi-testuinguru desberdinak; haien bizitzan helduen eraginak sortzen dituen aukerak eta krisiak; erantzunak eta baliabideak antolatzeke modu jakin batzuk betetzen badira bakarrik egin daitekeen hura. Nerabeen erabakiak hartzeke moduek, osagaiak, eragileek orientazioa behar dute, baina haien biografiaren testuinguruan kokatuta.


Trantsizioetan bide-laguntza planteatzean esan nahi da Balio Anitzeko Zerbitzuak tokiko baliabide desberdinekin partekatutako arreta-moduak jarri behar dituela martxan, edozein nerabek, bere ibilbidearen une konplexu batean, hurbileko heldu onuragarri baten laguntza izango duela bermatzeko, normaltasunez eta egunerokotasunean, "gaixo" sentitu gabe eta eratzten ari den bizitzan alferreko mutur-sartzeak jasan gabe.

10. BESTE HELDUEZ ARDURATZEA

Bereziki nerabeez arduratzen den baliabide bat zehaztean haien inguruko helduez ere arduratu behar ote duen hausnartu behar da. Testuan kapitulu desberdinen irakurketatik erraz ondoriozta daiteke ez dagoela nerabeen arazo bat, pertsona helduek beren nerabeekin duten arazoa baizik. Pertsona heldu horiek arazoaren zati dira, irtenbidearen zati, autonomia eragin dezakete, nerabeentzat astia izan dezakete, laguntza proposamenak sortu. Behin baino gehiagotan argi utzi dugu pertsona heldu desberdinek funtsezko eginkizunak dituztela nerabeen bizitzan.

NBAZko hezitzaileez hitz egitean helduen triangelu moduko bat aipatu dugu, esanez nerabeak triangelu horren erdian mugitzen direla sustapen, laguntza, zailtasun eta gatazka maila desberdinekin.

4. Grafikoa
HELDUEKIKO HARREMANEN TRIANGELUA



Gurasoek beren guraso-zeregina betetzen dute, estutasuna kontrolatzen eta hezteko modu berri bat praktikatzeko ikasiz. **Euskarriak behar dituzte beren seme-alaben bizitzetan orain zer gertatzen den, eskolan zer gertatzen den ulertzeko, eta zentzuzkoa haien bizitzetan eragina duten heldu bakarrak izan nahi ez izatea dela barneratzeko.** Horregatik jada azaldu dugu gurasoek, eskolak eta NBAZk elkarrekin lan egiteko proposamen bat.

Baina neurri batean zein bestean beren nerabeenganako kezka duten gurasoek bigarren mailakoa ikusten dute gaztelekua, eskolak duen garrantziaren eta eskolaz kanpo egin behar dituzten gainerako jardueren aldean. Seme-alabak nerabezaroan sartu diren arren, guraso askok pentsatzen dute gaztelekuan proposatzen dena egitera joatea denbora galtzea dela (ez da ingelesa, ez da gitarra, etab.); nerabeei denbora kentzen die seme-alaba bikainak izatea lortzeko.

Ulertzea kostatzen zaie, hain zuzen, haurtzaroa uztea denbora guztia (gurasoek) beteta izateari uztea dela eta, beraz, haien bizitzaren gaineko kontrolaren zati bat galtzea dela. Batzuetan, une oro non dauden jakin ahal izateko apuntatzen dituzte gaztelekuan.

Dirudienez triangelua gehiegi desorekatzen da testuinguru informaletako "hezitzaileen" (gaztelekuko hezitzaileak edo instituzionalizatu gabeko beste profesional batzuk) duten eraginaren aldera. Neurri batean gaur egun bigarren mailako hezkuntzak duen konplexutasunagatik, eta neurri batean eskolak "irakatsi" besterik ez egitea eskatzeko (alferrik) joera sozial eta profesionalagatik, nerabeak gero eta heldu gehiago ez dira fidatzen eta murriztu egiten da beren ustez "ulertzeko" eta beren bizitzan laguntzeko gai direnen taldea. **Ez da komeni hurbileko heldu onuragarriak nagusitzen diren leku bakarra NBAZ izatea.** Horregatik, aurreko ataletan eta azken kapituluan azpimarratu egin dugu NBAZk eskolan nerabeen bizitzan sartzen lagundu behar duela eta hezkuntzako bide-laguntzak partekatu behar dituela. Gauza bera esango dugu betekizun espezifikagoetatik uneren batean nerabeez ere arduratzen diren gainerako profesionalen ere.

Gaur egungo gaztelekuekin lotutako profesional gehienek ustez, gurasoak (beren borondatez edo harremana sortzeko zailtasuna dutelako) nahiko baztertuta geratzen dira. Dirudienez, ez dira gonbidatuta sentitzen, ez dago argi etor daitezkeela badakiten ala ez; baliteke inplikaturik ez sentitzea eta kostatu egiten zaie beren seme-alabak hezteko xedea duten profesional batzuen esku daudela kontuan hartzea (arazoren bat sortzen denean errazagoa da eskolako tutorearengana jotzea gaztelekuko hezitzailearengana jotzea baino).

Udalerri batzuetan esperientzia onak izan diren arren, bide luzea geratzen da familiak etorkizuneko NBAZren funtzionamenduan sartzeko. Lan-sekuentziak honako hau izan behar duela dirudi: beste batzuekin batera helduen komunitateari nerabezaroa eta beren nerabeak zer diren azaltzea; NBAZ (bere zereginak, bere profesionalak, bere ahalmenak eta mugak) azaltzea; harreman baliagarri bat sortu eta lantzeko beharra azaltzea (ez dadila izan kontrola uztea edo beste baten esku uztea bakarrik). Helduak beren seme-alabak ez diren beste nerabeekiko interesa izatea lortu nahi dugu. Administrazioa nerabeen alde zerbait egiteko prest zergatik dagoen eta haien heziketan baliagarria zergatik den ulertzea nahi dugu.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar nerabeekin nerabeen gunean sortzen den harremanaren berezitasuna. Haiek beren alde gaudela eta ulertzen dituzten heldu gutxietakoak garelako pentsatzen dute. Horre-

gatik, nerabeentzako baliabideetan gurasoekin sortzen diren harremanek ere badituzte arau batzuk, ez da beste etapa batzuek bezalakoa eta desberdina da NBAZ batean (zu etxera, ez deitu hau ez da eskola-eta). Ezin dugu egin haiek jakin gabe. Beti dira beharrezkoak nerabeekin beraiekin adostutako akordioak eta bi-tartekotzak. Jakin egin behar dute zergatik nahi dugun beren gurasoek jakitea. Beren gurasoak "fidatzeko" laguntzea eskatzen badigute, ulertu egin behar dute hori baino lehenago konfiantza sortu behar dugula. Familiak ulertzen ez dituela-eta "kontsolatzea" eskatzen badigute, onartu egin behar dute guk azaltzea gurasoak zergatik larritzen diren edo gurasoek beraiek ulertzeko egiten dituzten ahaleginak.

VII BALIO ANITZEKO ZERBITZUA
VII BALIO ANITZEKO ZERBITZUA ETA BESTELAKO ZERBITZUAK
LEKUPA

1. NBAZ ERREFERENTZIA NAGUSIA

NBAZren eta beste baliabideen (toki-eremuan nerabeez arduratzen diren -edo arduratu behar luketen- bertako profesionalen) arteko harreman-modu baliagarriak zehazteko, gogoratu eta sistematizatu egin behar genuke haren ardatza zein den, nerabeentzako arreta egituratzen duen ideia nagusia zein den. Jada esan dugunez, ekipamendua (gunea, jarduerak eta profesionalak) nerabeen erreferentzien erreferentzia moduko bat da eta hala izan behar du. Beste baliabideentzako erreferentzia orokorra izan behar lukeen gizarte-hezkuntzako proiektu bat da NBAZ.

NBAZk eskaintzen dituen aukera hezigarriek honako hauek dituzte bereizgarri:

- Ez ditu baldintzatzen zailtasunen edo arazoan alde aurreko definizio batek, eta ez dira nerabeen tipologia jakin batentzat. NBAZ guztientzat pentsatuta dago, ez du inolako nerabe-motarik baztertzen, baliabideek zailtasun-egoera guztiak aintzat hartzeko aukera beti ematen ez duten arren. Lurralde bateko nerabe gehienengana iritsi nahi du, intentsitate eta harreman-modu desberdinekin.
- Nerabeak ez dira bertara iristen profesional beten kargu egoteagatik, babesteko edo gatazkaren bati erantzuteko esku-hartze sozial baten mende egoteagatik. Norberaren nahiz taldearen jakin-minak edo interesak eramaten ditu hara, konfiantzazko beste helduek iradokita, sentitzen dituzten beharrei erantzuten diela ohartuta iristen dira. Horiez gain, badira profesional espezializatuen (osasuna, gizarte-zerbitzuak, eskola) kargura dauden nerabeen jarraipenaren edo bide-laguntzaren zerbitzura dauden aukerak ere.
- Gizarte- eta familia-aukera gutxiago dituzten nerabeentzako arretan nolabaiteko ekitatea lortzera bideratuta egon nahi duten aukerak dira. Izan ere, askok beren ingurune hurbilenean aurkitu ezin duten hori iradokitzen eta sustatzen du NBAZk.
- Komunitate batean nerabe izateko modu desberdinen artean eta nerabeen eta herritar helduen artean harreman-dinamika onuragarriak sortzeko proposamen bat da.
- Zerbitzu gisa, beti, nerabeei arreta eman ahal izateko oinarrizko hiru alderdiak biltzen ditu: leku bat, ekintzen eta jardueren proposamen bat, eta nerabeen bizitzan baliagarriak izateko harremanerako prest dauden profesionalak.

Alderatzeko besterik ez bada ere, gogoan izan behar dugu nerabeei nolabait arreta ematen dieten beste-lako baliabide eta zerbitzu askoren bereizgarria **zailtasunei, krisiei edo behar bereziei lotutako arreta ematea dela**, eta horiek arreta eman edo baliabidera iritsi aurretik agertutakoak izaten dira. Dirudienez, zentzuzkoena litzateke lurralde bateko nerabeentzako arreta orokorra baliabide eta zerbitzu desberdinen ardatz moduan jartzea eta, gero, zerbitzuen eta baliabideen artean lan egiteko modu partekatatu bat, ahalik eta integratzaileena, sortzea.

Erdiko kokapen normalizatu eta unibertsal horrek honako hauek dakartza berekin:

1. Zerbitzuak adinaren arabera dagokion eremurako (auzoa) egin den ekintzen eta baliabideen plangintza baten barruan kokatuta egon behar du: nerabeen plana, haurren plan baten edo gazteen plan baten barnean; nerabeentzako arreta-mahaiak edo arreta-sareak (bananduta edo hezkuntza-etapa desberdinentzako diren beste batzuen barnean).
2. Dagokion eremuan nerabeez arduratzen diren profesionalekin izango diren harremanen sistemak arina eta baliagarria izan behar du (besteengana bideratzeko logikan ez oinarritua).
3. Beste zerbitzu eta baliabide batzuen arreta jasotzen duten neska-mutilen beharren zerbitzura dagoen harrerako, sustapeneko eta arretako gune bat izatea onartzen du.
4. Nerabeek beraiek adierazten dituzten beharren eta zailtasunen hasierako hartzailea izatea onartzen du eta, beharrezkoa izanez gero, erantzun egokia eman behar duten baliabideetara modu aktiboan eraman edo eskualdatzeko sistema eratzen du.
5. Bertako profesionalek nerabe batzuen jarraipena egiten dute, intentsitate-maila desberdinekin, bakarririk edo beste profesional batzuen osagarri.
6. Neska-mutil batzuen kasuan, zerbitzuko profesionalak bide-laguntzako prozesu baten erreferentzia bilakatzen dira.
7. Dagokion eremuko profesional desberdinei nerabe baten bizitzan irudi "normal" bihurtzeko aukera ematen die beren presentziaren eta beren ekintzen bitartez, gaztelekuaren bizitzako une desberdinetan (esate baterako, osasun-gune batean sexualitatearen arloko orientazioa ematen duen profesionala nerabeek ezagutu eta onartu egiten dute, nerabeen gunean agertu delako eta antzeko zerbaitekin egin duelako).

2. SARE-LANA IRITSI ARTEAN HARREMANA IZATEKO MODUAK

Herri batzuetan aprobezia daitezkeen harreman-egiturak daude. Harremana errazagoa da nerabeentzako arretak komunitatearen proiektu bati erantzuten badio. Beste profesionalengana "bideratzeko" benetako sare-lan bat ez izatean, ahal dena egiten da. Baina NBAZk logika integratzailearekin eta sare-lanean oinarritutako profesionalen arteko harreman-sistema batekin egin behar du lan.

Behin eta berriz esan dugu NBAZra era askotako neska-mutilak iristen direla (iritzi behar dutela), alegia egoera desberdinak bizi dituzten neska-mutilak: nerabe-izaeraren gozamina, krisiak eta desorientazioak, arrisku handiegiak dituzten abenturak, familiaren tentsio-giroan edo hauskortasunean nerabeek bizi dituzten tentsioak, eskolako zailtasunak eta gatatzak, gizarte-zerbitzuetako familiak, nolabaiteko babesneurriren bat dutenak, etengabe istiluetan dabilzanak, arau-hauste penal batekin beren bizitza konplikatu dutenak,... Helburua ez da NBAZn dena egitea edo beren bizitza osoaz arduratu nahi izatea. Baina profe-

sionalen arteko harreman-modu koherente bat sortuko balitz, errazagoa litzateke, une bakoitzean, NBAZk egoera bakoitzean zertarako balio duen argitzea. Batzuetan nerabeen arazo jakin batzuentzako erantzunak martxan jartzen dira jada badiren sistema orokorrak (esate baterako gaztelekua edo informazio-zerbitzua) kontuan hartu gabe, eta horiek gabe alferreko ahalegina da nerabeengana iristen saiatzea. Askotan abiarazten diren prebentziozko edo informaziozko "kanpainak" ez dituzte kontuan izaten ez nerabeen logika (haiekin egunero lanean ari diren profesionalek ezagutzen dutena) ezta nerabeez arduratzen diren tokian tokiko baliabideak ere.

NBAZk beste profesional batzuekin harremana izateko eta sarean lan egiteko sistema bat ezartzen du, ez eraginkortasunaren logikagatik bakarrik (iritsi eta baliagarriak izan), baizik eta, haiengana iritsi ahal izateko eta haien bizitzan eragin ahal izateko, emandako edozein erantzunek Xxx kapituluan adierazitako irizpideak bete eta partekatu behar dituelako. Ez dugu ahaztu behar: **xedea ez da haiek etortzea, lehenbizi gu joatea baizik, egonezin gehiago edo gutxiago dituzten nerabe sentitzen dira, baina ez dira identifikatzen arazo edo patologia batekin eta, azkenik, harreman onak sortzen dituzte hurbileko sentitzen dituzten pertsona helduekin** eta horiei laguntzen uzten diete.

Zerbitzuak ere jasaten ditu nerabeei arreta emateko baliabide guztietan nagusi diren hiru galderak: nor arduratzen da haietaz; non; zein modutan. Erantzunak kolektiboak dira, halaberharrez, lurralde oso baterako, eta guztion artean planifikatu, aplikatu, aztertu eta ebaluatu behar dira.

Batzuetan, baliabideen artean harreman onak lantzeko zailtasunak nerabe batzuek dituzten zailtasunetatik datoz, edo itxura batean beren zailtasun desberdinek definitzen dituzten nerabe batzuegandik. Alegia, era horretako ezaugarri jakin batzuk izateak edo ez izateak nerabe baten ardura gizarte-zerbitzuek izatea ala gaztelekura joatea ekarriko balu bezala. Beste batzuetan, zalantza talde batek zein besteak baliabide batean sortzen dituzten gatazkei dagokie eta, hezitzailearen zereginez hitz egitean jada aipatu dugunez, baita gatazka horiek kudeatzeko gaitasunari eta trebetasunari ere. Beti izaten dugu zalantza nerabe-izaera desberdinentzako guneen arteko harremanen konplexutasunaren aurrean (norgehiagoka-dinamikak) eta, bereziki, komunitatean kudeatu behar ditugun irudi-arazoen aurrean.

NBAZren lehen adierazpenaren jatorri den dokumentu batean ondo zehaztuta dagoenez⁷, Zerbitzuak eta ekipamenduak aintzat hartzen dituzte, era berean, "zailtasunak dituzten nerabeak". Bi alderdi nabarmentzen dira hor:

- a. **Neska-mutil guztiek izan ditzakete edozein unetan zailtasunak;**
- b. **Zailtasun-egoeran daudenak izan ohi dira ekipamenduetan parte hartzeko eragozpen gehien izaten dutenak** (jada aipatu dugunez, baliabideetatik kanpo geratzen dira).

Zailtasun-egoeren arazoak are gehiago nabarmentzen ditu zeharkakotasuna eta sare-lana nerabeekin lan egiteko ezinbesteko elementu gisa. NBAZri eta beste baliabideei zailtasun horiei arreta emateko zenbait irizpide partekatu beharra planteatzen die:

- zailtasunak komunitatean konpentsatu behar dira
- eskaera ez da beti izaten, bai arreta behar duten beharrak

⁷ ZAILTASUNAK DITUZTEN NERABEEN PARTE-HARTZEA. 100 JARDUERA-PROPOSAMEN

- nerabeei beraientzat zehaztuta hautematen dituzten guneetan bakarrik eman dakieke arreta
- arretan hezkuntza-asmoa dago
- arreta planifikatuta dago
- laguntzak (berriro ere diogu) harreman ona behar du
- aldatzeko, heltzeko, partaide izateko, batzeko eta abarreko prozesuak sustatzen dira.

Logika honetan, garrantzi berezia dute Balio Anitzeko Sistema osoaren arteko harremanek, batez ere NBA-Zren eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren artean. Legez, hurbiltasunean, bide-laguntzan eta pertsonen arreta eta laguntzako prozesuan parte hartzean oinarritutako komunitatearen ikuspegia eta arreta-sistemak dira Gizarte Zerbitzuen erreferentzia. Edozein adinetarako, "gizarte-hezkuntzako esku-hartzea" zerbitzu edo arreta baten moduan eratzen da, eta horietan oinarritzen da, neurri handi batean, funtsezko gizarte-zerbitzuen lana.

Hala, NBAZk gizarte-zerbitzuekin duen harremana komunitate-lan partekatua eta lurraldeko nerabeekin gizarte-hezkuntzako bide-laguntza eratzeko maila eta estilo desberdinetako modu zehatzen inguruan antolatatu behar da, bereziki krisiak eta zailtasunak ageri direnean. Zailtasun-egoeretan garrantzi berezia du NBAZko profesionalak kaleko programan (ingurunean bertan arreta emateko gizarte-hezkuntzako programa) sartuta dauden hezitzaileekin etengabeko harremana izateak. Batzuetan egitura berean sartuta daude eta beste batzuetan guneak eta jarduerak partekatzen dituzte. Hasiera batean erraza izan behar luke jarraipen partekatua egiteak, nerabe desberdinek zailtasun-egoera bat bizi dutenean haiekin nola konektatzen den eta nola lan egiten den elkarrekin ikusteak. Zailtasun-egoera berezietan dauden nerabeez arduratzen diren profesionalak izaten den harremanak honako hauek sustatu behar ditu:

- ekipamendura iristeko modu ahalik eta normalizatuena (gustatzen zaidalako etortzen naiz, ez kale-hezitzaileak bidaltzen nauelako),
- nolabaiteko intentsitate pertsonalizatua arretan (behaketan, harremanen sustapenean, jardueretan parte hartzerantz animatzean),
- helduen erreferentzia onak elkarrekin garatzea, jarraipen partekatua egin eta elkar sendotzeko aukera izatea.

Bigarren hezkuntzako eskolak osatzen duen nerabeen eremua NBAZn gogoan hartzeko arrazoietakoa batzuk aipatu ditugu jada. Eskola-erakundeetako profesionalakiko harremanak, nerabeen eta eskola-guneen atalean adierazi dugunez, tokian tokiko eskolarekin eta orokorrean hezkuntza-arloarekin dagoen harreman-ereduak baldintza ditzake. Labur esateko, harreman horrek, bide-laguntza hezigarri partekatu baten logikarekin, honako hauek sustatu behar ditu:

- presentzien nolabaiteko trukea (irakasleen eta nerabeentzako ekipamenduaren artean, NBAZko profesionalen eta eskola-eremuaren artean), nerabeak dena berdina dela edo gaztelekua eskola bilakatu dela sentitu gabe (aitzitik, bere gaztelekuko nerabe-bizitza eskolan sartu dela sentitu behar du),
- laguntza osagarri bat, eskolan igarotako denbora hondamen gisa bizi ez dezaten eta, gatazka-kasuetan, ikasketarekin berriz konekta dezaten,
- eskolak egiten duen orientazio-prozesua gaztetasunera igarotzearekin lotuta dauden alderdiekin osatzea.

Bi profesional-talde horien alderdi jakin batzuen baturak gailendu behar luke osasun-arloko profesionalakiko harremana ere. NBAZk eta bertako profesionalak beste profesionalen artean zabalitzen dituzten lan egiteko moduek aukera ematen diete erreferentzia bihurtzeko. Kontua ez da kontrolak eta jarraipenak adostea, baizik eta **nerabeengana iristeko eta haiek gu baliagarritzat onartzeko trebetasunak partekatzea**, arreta zein zerbitzutatik eman nahi zaien kontuan hartu gabe.

Lurraldean azken urteetan izan diren plangintza eta koordinazio orokorreko esperientziek ez dute izan, itxuraz, arrakasta handirik. "Planak" inposatutako plangintza moduko bat izan ziren, lurraldean eragin handirik izan gabe. Baina ez genuke ahaztu behar errealitate anitz eta aldakorraren arabera era batean edo bestean jardun behar dela, nerabeez bereziki arduratzeko nerabeentzat planifikatu behar dela, beste plangintza orokor batzuetan galdu gabe. "Prebentzio-mahaiek" presentzia aktiboa dute neurri batean, eta hori aprobetxatu eta eraldatu egin behar litzateke.

Ezinbestekoa da nerabeentzako arretan sarea sortzeko moduak zehaztea edo, gutxienez, nolabaiteko "koordinazio-mahaia". Nerabeak iristen diren edo iritsi behar luketen baliabide desberdinetako profesionalen artean elkarrekin lan egiteko egiturak jarri behar dira martxan, honako hauek lortzeko:

- a. Guztion artean lurraldeko nerabeen errealitatearen irakurketa eguneratu bat egitea.
- b. Beharrezkoak diren erantzunak eta baliabide bakoitzak bere gain hartzen dituen erantzukizunak aldizka planifikatzea.
- c. Elkarri eraginkortasuna eta efizientzia ematea.
- d. Nerabeek beren beharrentzako erantzuna edozein baliabidetik sartuta lor dezaten erraztea. Nerabea erantzun egokiena emango dionarengana bideratzeko moduak landuta izatea.
- e. Harremanak izateko moduak eta estiloak partekatzea.
- f. Egoera horretan dagoen nerabe bakoitzarentzako jarraipeneko eta bide-laguntzako modu baliagarriak adostea.

"Planei" eta "mahaiei" dagokienez, oraindik konpontzeko dago lidergo politikoaren eta lidergo teknikoaren arazoa. Ez da erraz lortzen kultura profesional espezializatuetatik kultura normalizatzaileetara pasatzea, administrazioaren kulturatik nerabeen kulturara.

GAZTELEKUTIK NBAZ-RA

Dokumentu honen izaera deskribatzean adierazi dugunez, testu honek lurralde bateko nerabeei arreta emateko balio anitzeko zerbitzu batek ustez izan behar lukeenaren ildo nagusiak deskribatzen ditu: **arrazoiak, irizpideak, egiteko eta jarduteko moduak, antolatzeko moduak eta beste sistemekin harremanak izateko moduak**. Orain falta zaigu egungo egoeratik Sistemaren proposamenarekin lortu nahi den horretara eramango gaituen dinamismoa martxan jartzea. Bestela esanda, jada dagoena nola eraldatu, partzialki bakarrik dagoena nola garatu zehaztea da falta zaiguna.

Sistema ezartzeko zehaztapen-maila hori hemen garatuko ez dugun arren, eraldaketa horren lehen urratsak iradoki nahi ditugu:

1. Dokumentu hau kontsultako eta eztabaidako prozesu baten emaitza da, baina nerabeez modu desberdinetan arduratzen diren profesional gehienek oraindik ez dute ezagutzen. Zabaltzen hasi behar dugu, ezagutarazten, testuinguru desberdinetan aritzen diren profesionalak partekatu dezaten. **NBAZk egunen batean lurraldeko nerabeen erreferentzia izan behar badu, hasteko, dokumentu honek nerabeei arreta emateko modu egokiei buruzko erreferentzia izan behar du.**
2. Ez da erraz pasatzen entretenimendua ardatz duen eredu batetik sustapenean oinarritutako eredu batera. Ez da erraz pasatzen zailtasunetan edo gatazketan oinarritutako ereduetatik bide-laguntza landu nahi duen eredu batera. **Denbora beharko dugu NBAZren proposamenari zentzua ematen dioten ideiak hausnartzeko, eztabaidatzeko eta partekatzeko, gero profesionalen praktketan eta antolaketa-proposamenetan gauzatzeko.**
3. Lurraldearen aniztasunak eta nerabe-izaeren aniztasunak NBAZ eratzeko modu desberdinak aurkitzera behartzen du, proposamen zehatz bakoitzak NBAZk izan behar duenaren eduki partekatua aizundu gabe. **Hemendik aurrera, lurraldean NBAZ zehazteko modu jakinak definitzea dagokigu.**

ERANSKINAK

1 ERREFERENTZIAZKO DEMOGRAFIA

NERABEEN POPULAZIOA POPULAZIO OSOAREKIKO (31.12.2008)

	GUZTIRA	13-18	NERABEEN %.	Nerabeen % Gipuzkoa osoan	Atzerritarren tasa (%)
Abaltzisketa	316	12	3,80	0,04	1,9
Aduna	401	13	3,24	0,04	2,9
Aia	1959	123	6,28	0,36	3,0
Aizarnazabal	671	24	3,58	0,07	9,8
Albistur	312	17	5,45	0,05	1,6
Alegia	1734	80	4,61	0,23	5,0
Alkiza	357	13	3,64	0,04	1,2
Altzaga	161	5	3,11	0,01	3,2
Altzo	402	22	5,47	0,06	3,3
Amezketza	990	41	4,14	0,12	4,8
Andoain	14680	611	4,16	1,79	3,1
Anoeta	1851	110	5,94	0,32	3,9
Antzuola	2169	92	4,24	0,27	4,1
Arama	199	8	4,02	0,02	1,6
Aretxabaleta	6695	312	4,66	0,91	3,8
Arrasate	22058	1008	4,57	2,95	3,3
Asteasu	1478	72	4,87	0,21	3,8
Astigarraga	4678	204	4,36	0,60	4,8
Ataun	1671	58	3,47	0,17	3,1
Azkoitia	11266	583	5,17	1,71	5,5
Azpeitia	14376	802	5,58	2,35	4,7
Baliarrain	111	3	2,70	0,01	0,0
Beasain	13559	694	5,12	2,03	8,9
Beizama	180	9	5,00	0,03	1,1
Belauntza	292	7	2,40	0,02	9,4
Berastegi	1036	58	5,60	0,17	1,1
Bergara	14710	683	4,64	2,00	4,9
Berrobi	602	35	5,81	0,10	3,4

**NERABEEN POPULAZIOA POPULAZIO OSOAREKIKO
(31.12.2008)**

	GUZTIRA	13-18	NER- ABEEN %.	Nerabeen % Gipuzkoa osoan	Atzerritarren tasa (%)
Bidegoian	510	24	4,71	0,07	4,1
Deba	5408	284	5,25	0,83	3,8
Donostia	185364	8773	4,73	25,71	5,8
Eibar	27410	1159	4,23	3,40	4,6
Elduain	238	5	2,10	0,01	1,3
Elgeta	1067	57	5,34	0,17	5,8
Elgoibar	11221	453	4,04	1,33	4,8
Errenteria	38798	1577	4,06	4,62	3,7
Errezil	628	31	4,94	0,09	4,3
Eskoriatza	4063	155	3,81	0,45	3,9
Ezkio-Itsaso	594	27	4,55	0,08	6,1
Gabiria	477	36	7,55	0,11	5,4
Gaintza	132	7	5,30	0,02	1,5
Gaztelu	161	3	1,86	0,01	0,0
Getaria	2634	148	5,62	0,43	6,1
Hernani	19368	1039	5,36	3,04	4,0
Hernalde	346	19	5,49	0,06	2,0
Hondarribia	16459	855	5,19	2,51	5,0
Ibarra	4334	214	4,94	0,63	3,4
Idiazabal	2270	93	4,10	0,27	4,7
Ikaztegieta	465	23	4,95	0,07	2,6
Irun	61014	2996	4,91	8,78	7,2
Irura	1516	62	4,09	0,18	4,2
Itsasondo	649	26	4,01	0,08	5,2
Larraul	249	14	5,62	0,04	1,3
Lasarte-Oria	17771	764	4,30	2,24	4,8
Lazkao	5355	287	5,36	0,84	6,1
Leaburu-Txarama	396	11	2,78	0,03	2,8
Legazpi	8714	393	4,51	1,15	2,9
Legorreta	1494	78	5,22	0,23	4,7
Leintz-Gatzaga	265	14	5,28	0,04	6,5
Lezo	6027	342	5,67	1,00	2,7
Lizartza	643	34	5,29	0,10	4,8

**NERABEEN POPULAZIOA POPULAZIO OSOAREKIKO
(31.12.2008)**

	GUZTIRA	13-18	NER- ABEEN %.	Nerabeen % Gipuzkoa osoan	Atzerritarren tasa (%)
Mendaro	1907	65	3,41	0,19	4,5
Mutiloa	235	8	3,40	0,02	0,0
Mutriku	4977	243	4,88	0,71	4,3
Oñati	10894	527	4,84	1,54	2,4
Oiartzun	9892	554	5,60	1,62	7,3
Olaberría	970	41	4,23	0,12	3,5
Ordizia	9728	529	5,44	1,55	12,5
Orendain	185	9	4,86	0,03	1,1
Orexa	121	3	2,48	0,01	0,0
Orio	5028	248	4,93	0,73	4,9
Ormaiztegi	1323	62	4,69	0,18	7,3
Pasaia	15984	748	4,68	2,19	6,2
Segura	1391	70	5,03	0,21	5,7
Soraluze	3990	178	4,46	0,52	4,7
Tolosa	18045	1132	6,27	3,32	3,6
Urnieta	6131	311	5,07	0,91	4,1
Urretxu	6882	320	4,65	0,94	3,7
Usurbil	5943	328	5,52	0,96	3,3
Villabona	5787	287	4,96	0,84	4,3
Zaldibia	1527	77	5,04	0,23	8,4
Zarautz	22633	1302	5,75	3,82	5,5
Zegama	1493	65	4,35	0,19	8,3
Zerain	244	12	4,92	0,04	1,2
Zestoa	3480	157	4,51	0,46	3,0
Zizurkil	2791	144	5,16	0,42	4,3
Zumaia	9289	524	5,64	1,54	3,4
Zumarraga	10032	479	4,77	1,40	3,8
GIPUZKOA	705856	34125	4,83	100,00	5,1

**NERABEEN POPULAZIOA POPULAZIO OSOAREKIKO
(31.12.2009)**

	GUZTIRA	13-18	NERABEEN %	Nerabeen % Gipuzkoa osoan
Abaltzisketa	326	17	5,21	0,05
Aduna	429	16	3,73	0,05
Aia	2008	141	7,02	0,41
Aizarnazabal	708	24	3,39	0,07
Albistur	315	16	5,08	0,05
Alegia	1751	79	4,51	0,23
Alkiza	353	12	3,4	0,03
Altzaga	159	6	3,77	0,02
Altzo	400	21	5,25	0,06
Amezketza	994	46	4,63	0,13
Andoain	14668	598	4,08	1,74
Anoeta	1850	109	5,89	0,32
Antzuola	2164	85	3,93	0,25
Arama	218	13	5,96	0,04
Aretxabaleta	6705	316	4,71	0,92
Arrasate	22011	1022	4,64	2,97
Asteasu	1472	67	4,55	0,19
Astigarraga	4715	219	4,64	0,64
Ataun	1670	55	3,29	0,16
Azkoitia	11349	595	5,24	1,73
Azpeitia	14308	801	5,6	2,33
Baliarrain	121	5	4,13	0,01
Beasain	13684	690	5,04	2,01
Beizama	183	8	4,37	0,02
Belauntza	296	7	2,36	0,02
Berastegi	1051	52	4,95	0,15
Bergara	14642	721	4,92	2,10
Berrobi	590	33	5,59	0,10
Bidegoian	530	28	5,28	0,08
Deba	5385	268	4,98	0,78
Donostia	185510	8939	4,82	25,98
Eibar	27376	1150	4,2	3,34
Elduain	235	4	1,7	0,01
Elgeta	1078	53	4,92	0,15

**NERABEEN POPULAZIOA POPULAZIO OSOAREKIKO
(31.12.2009)**

	GUZTIRA	13-18	NERABEEN %	Nerabeen % Gipuzkoa osoan
Elgoibar	11326	477	4,21	1,39
Errenteria	39044	1671	4,28	4,86
Errezil	616	28	4,55	0,08
Eskoriatza	4056	153	3,77	0,44
Ezkio-Itsaso	613	28	4,57	0,08
Gabiria	494	29	5,87	0,08
Gaintza	128	7	5,47	0,02
Gaztelu	167	4	2,4	0,01
Getaria	2682	161	6	0,47
Hernani	19355	1043	5,39	3,03
Hernalde	357	17	4,76	0,05
Hondarribia	16489	866	5,25	2,52
Ibarra	4348	212	4,88	0,62
Idiazabal	2269	93	4,1	0,27
Ikaztegieta	470	26	5,53	0,08
Irun	61036	3050	5	8,87
Irura	1577	66	4,19	0,19
Itsasondo	661	28	4,24	0,08
Larraul	253	12	4,74	0,03
Lasarte-Oria	17850	760	4,26	2,21
Lazkao	5350	267	4,99	0,78
Leaburu-Txarama	395	11	2,78	0,03
Legazpi	8718	408	4,68	1,19
Legorreta	1496	66	4,41	0,19
Leintz-Gatzaga	262	12	4,58	0,03
Lezo	6027	338	5,61	0,98
Lizartza	663	28	4,22	0,08
Mendaro	1898	62	3,27	0,18
Mutiloa	248	12	4,84	0,03
Mutriku	5021	242	4,82	0,70
Oñati	10957	552	5,04	1,60
Oiartzun	9946	533	5,36	1,55
Olaberría	949	38	4	0,11
Ordizia	9763	514	5,26	1,49

**NERABEEN POPULAZIOA POPULAZIO OSOAREKIKO
(31.12.2009)**

	GUZTIRA	13-18	NERABEEN %	Nerabeen % Gipuzkoa osoan
Orendain	191	6	3,14	0,02
Orexa	123	3	2,44	0,01
Orio	5151	257	4,99	0,75
Ormaiztegi	1319	68	5,16	0,20
Pasaia	15976	753	4,71	2,19
Segura	1457	74	5,08	0,22
Soraluze	4004	177	4,42	0,51
Tolosa	18098	984	5,44	2,86
Urnieta	6145	334	5,44	0,97
Urretxu	6956	351	5,05	1,02
Usurbil	6021	277	4,6	0,81
Villabona	5826	300	5,15	0,87
Zaldibia	1505	78	5,18	0,23
Zarautz	22699	1323	5,83	3,85
Zegama	1536	75	4,88	0,22
Zerain	249	15	6,02	0,04
Zestoa	3551	171	4,82	0,50
Zizurkil	2765	152	5,5	0,44
Zumaia	9337	504	5,4	1,47
Zumarraga	9976	469	4,7	1,36
GIPUZKOA	707623	34401	4,86	100,00

GIPUZKOAKO GAZTELEKUAK. ARRETA ZEIN ADINEI EMATEN DIETEN ETA ZEIN ORDUTEGI DUTEN

Herria	Gaztelekua	Adinak	astelehena	astearte-osteguna	ostirala	larunbata	igandea
Aretxabaleta		13-16	17:00-21:00	17:00-21:00	17:00-21:00		
Arrasate	Erguingo	12-15		17:00-20:00	17:00-20:00		
	Musakolako	12-15		17:00-20:00	17:00-20:00	17:00-20:00	
	S. Andresko	12-15		17:00-20:00	17:00-20:00	17:00-20:00	
Azkoitia		12-17	16:30-20:30	16:30-20:30	16:30-20:30		
Azpeitia		11-16		17:00-20:30	17:00-20:30	16:00-20:30	
Beasain		12-15				16:30 -19:30	16:30 -19:30
Donostia	Amarako	15-16		17:00-20:30	17:00-20:30	17:00 -21:00	
	Antiguoko	13-15				18:30 -21:00	
	Bidebietako	13-17		17:00-20:30	17:00-20:30	17:00 -21:00	(1)
	Egiako	12-14		17:00-20:30	17:00-20:30	17:00 -21:00	
	Groseko	15-16		17:00-20:30	17:00-20:30	17:00 -21:00	
	Martuteneko	13-17		17:00-20:30	17:00-20:30	17:00 -21:00	(2)
Eibar		12-15	17:00-20:00	17:00-20:00	17:00-20:30	16:30-20:30	16:30-20:30
Elgoibar				17:00-20:00	17:00 21:00	17:00 21:00	17:00-20:00
Errearteria	Gabi	13-16	18:00-21:00	18:00-21:00	18:00 -21:00		
	Jostari	13-20	18:00-21:00	18:00-21:00	18:00 -21:00		
Errezil		9-14				16:00-20:00	16:00-20:00
Eskoriatza		12-16	16:00-20:00	16:00-20:00	16:00-20:00		
Hondarribia		13-17	17:00-21:00	17:00-21:00	17:00 -21:00	17:00 -21:00	
Idiazabal		12-16				16:00-20:00	16:00-20:00
Irun		14-20		17:00-20:30	17:00-20:30	17:00-20:30	
Itsasondo		12-18	17:00-20:00	17:00-20:00	17:00-20:00		
Lazkao		12-16				16:00-20:00	16:00-20:00
Oñati		12-17	17:00-20:00	17:00-20:00	17:00-20:00		
Pasaia	Donibaneko	nerabeak			17:00 -21:00	17:00 -21:00	
	Trintxerpe	nerabeak			17:00 -21:00	17:00 -21:00	
Tolosa		12-15		(3)	16:30-20:30	16:30-20:30	16:30-20:30
Urnieta		12-16	17:00-20:00	17:00-20:00	17:00-20:00		
Zarautz		14-24	16:30-21:00	16:30-21:00 (4)	16:30-21:00	17:00 -21:00	17:00 -21:00

(1) Astearte, asteazken, ostegun eta larunbatetan 10:00 - 14:00

(2) Astearte, asteazken, ostegun eta larunbatetan 10:00 - 14:00

(3) Ostegunetan ere

(4) Asteartetik larunbatera 11:00-13:30

3 INGURUNE IREKIKO HEZKUNTZA-PROGRAMAK GIPIZKOAN

			(3)
1	ANDOAIN	3 Hezitzaileak (1)	BAI
2	ARETXABALETA	2 Hezitzaileak (1)	BAI
3	ARRASATE	2 Hezitzaileak (2)	BAI
4	AZKOITIA	2 Hezitzaileak (1)	BAI
5	BEASAIN	3 Hezitzaileak (1)	BAI
6	BERGARA	(lizitazio-prozesuan)	EZ
7	DONOSTIA ALTZA-LARRATXO	4 Hezitzaileak (1)	EZ
8	DONOSTIA AMARA	2 Hezitzaileak (2)	BAI
9	DONOSTIA BIDEBIETA	2 Hezitzaileak (2)	BAI
10	DONOSTIA GROS	2 Hezitzaileak (2)	BAI
11	DONOSTIA INTXAURRONDO	3 Hezitzaileak (1)	EZ
12	DONOSTIA LOIOLA-MARTUTENE	2 Hezitzaileak (2)	BAI
13	EIBAR	2 Hezitzaileak (1)	BAI
14	HERNANI	2 Hezitzaileak (2)	BAI
15	IBARRA	2 Hezitzaileak (1)	EZ
16	IRUN LAPITZE	2 Hezitzaileak (1)	
17	IRUN SAN MIGUEL	2 Hezitzaileak (1)	
18	IRUN ARTIA	2 Hezitzaileak (1)	
19	IRUN VENTAS	2 Hezitzaileak (1)	
20	LASARTE – ORIA	3 Hezitzaileak (1)	EZ
21	LEZO	2 Hezitzaileak (1)	EZ
22	ORDIZIA	2 Hezitzaileak (2)	BAI
23	PASAIA	4 Hezitzaileak (2)	BAI
24	TOLOSA	3 Hezitzaileak (1)	BAI
25	URNIETA	2 Hezitzaileak (1)	BAI
26	VILLABONA	2 Hezitzaileak (1)	EZ
27	ZARAUTZ	3 Hezitzaileak (1)	BAI
28	ZUMARRAGA URRETXU	3 Hezitzaileak (1)	EZ

(1) Ez dira lanaldi osoak, asteko 20 orduetik 35 ordura bitartekoak dira;

(2) Lanaldi osoak

(3) Bat dator nerabeentzako ezaugarri eta formatu oso desberdinetako ekipamenduak (Gaztelekua, Gaztetxokoa, Gaztegunea...,) dituzten udalerrri edo auzoekin.